

MITXELENAREN BERE LEKURATZEKO

1957 urtean, JAKIN-en 4-gn zenbakian, eta badu beraz hogeitau urte haundi, artikulo bat publikatu zuen Joseba Intxaustik, bideak, abertzaletasun egia eta kritikoa bezain zuzen, eta sendoa bezain argi eta zorrotz batetan hainbeste aldiz, eta hainbeste bide, ireki dizkigunak: *Arantzazu-Euskalerra*, «*Arantzazu*» poeman. Lanoki eta franko aitortzen zuen Josebak («negar malkotxo batek iges egin zidan»), nolako zirriada eragin zion Salbatoreren poemak. Eta, guztiz zuzen, *tesi* bat somatzen zuen poeman, euskal historiaren filosofia bat, teologia bat: ermitagintza —orain herrigintza esango genuke— hiru aldi dialektikotan (hirugarrena, poematik aparte Guatemalan publikaturiko *Bizi Nai* hura genuela).

Salbatore hil zenean, JAKIN-en 21-gn zenbakian, haren adiskide, orain haren obren argitaratzaile, A. Iturriak agurtu zuen Jakindarron partez.

1970-ean, Joan Mari Torrealdaiyek, urteotako JAKIN-en arkitektoak, idazlan bilduma bat Salbatoreri buruz prestatu zuen, omenaldi antzera, Jakin-Sortako 2.gn zenbaki bezala argitara zena, SALBATORE MITXELENA tituloz. Torrealdaiyek lan haundi eta merezigarria egin zuen Salbatoreren eskuizkribuak biltzen ere.

Jakinek eta Salbatorek inoiz ez dute elkaturik ibili ahal izan, lan batetan lankide. Jakin taldea Arantzazun sortu zenerako, batik-bat, Salbatore, Diktaturaren graziaz, Euskaditik aldegin genuen eta gero herbestean hil zitzaigun. Beharbada, Salbatorerenak ez bezalako pentsabideak ere bazekartzan Jakinek honez gero, gerra ezagutu gabekoak bait ziren, izan ere, talde horretan bildu ziren euskal Seminarietako lagun denak. *Unamuno ta Abendats*-en Autorea, halare, saio modernoaren abiatzailea euskaraz, aitzindari eta eredu izan da beti Jakindarrontzat, ez bakarra, baina bai inportantea: bere izpiritu kritikoa, problemei aurrez-aurre buru egiteagatik, ez ihes, etab.;

eta, arrunt, Jakindarrok ere, harek bezala eta haren ondotik, beste zarautzarraren asmoa izan dugulako begien aurrean gure lanetarako: «baserriz landa nai aunat ager / arazi, bazterrik bazter / arroki».

Torrealdayek aspaldi esan zuen: «zorretan daude euskal letrak Salbatorerekin». Halaxe daude oraindik. Lehen-lehenengo zorra, ordea —harekin eta Euskal Herriarekin— Torrealdayek «gerra ondo ko euskalminaren adierazlerik nabarmenena eta fidagarriena» zerizkionaren obrak, osorik publikatzea da, publikoan zabal dadin eta haren estudioa muga ez dadin, orain arte bezala, eskuizkribu puskak handik eta hemendik eskura zitzaketen banaka batzuetara.

Geure kulpaz adina kulpa gabe, memoria laburreko belaunaldia gara: oraintxe sortu bagina bezala, arraultza kosmikotik, gaua gabeko egunsenti bat. Gu ere, ordea, sortu egin gaituzte, ez gara sortu. Eta sortu gaituzte, 50.gn urteetako langile gogor haiek, besteak beste, eta lehenagokoek. Jakin bai, apika badakigu, makina bat zor diegula. Aitortu, gutiago egiten dugu; eta, jakin ere, agian ez dakigu ondo, zor dugun makina bat hori, zenbat den, zer den justu. Oraindik aztertzeo dauzkagu *Euzko Gogoa* eta *Egan*, horien inportantzia aski goratzerik ez bait legoke ondo merezitako gorazarre batekin. Agian badakigu, Arestiri eta Txillardegiri zor dieguna; askoz gutiago, nik uste, 50.gn urteetako Krutwig, A. Villasante, Luis Mitxelernari, zenbat zor diegun, gero ibili dugun guztirako bidea horiek egin ziguten arren; are gutiago, Altube, Ibar, Lekuonarekin dugun zorra... Hola jarrai genezake: Zaitegi, etab., etab., etab.

Lehenengo resistentzia kultural dei genezakeen hartan, gerra osteko «katakombetan», Salbatoreren nortasuna destakatzen da, Eliz egituren barruan, behintzat, eta, orokarki, produkzio literarian ere. Baina badakigu, Salvatore ez zebilela bakarrik. Eliz giroan, giro horretara mugatzeko, kultur ekipo bezala organizatzea eta egitamu iraukor bat eraikitzea lortu duen lehenengo taldea, Jakin izan bada ere (gerratik hoge! urtetara), aurrekoen lanari eskerrak izan da; eta ez da izan hain berandu, lehenago ahaleginik egin ez zutelako. Ezpada bai, Eliz Amak berak eta are aita Estatuak, eskulotu, kastigatu, desterratuak izan zirelako behin eta berriro haik, ahalegileak oro, edo lau haizetara sakabanatuak, elkar lanean jarraitzea ezin izanik. Adbz., Arantzazun bertan bazenuen, Salbatoreren inguruan, aldizkari «klandestino» bat, *Bai* (Elizaren barruan ere egon bait da «klandestinitaririk»). Kupidagarriak eta miresgarriak, haik denborak eta gizonak! Haien lanak, halare —asmatu zituzten aldizkaritxoek eta— ez zuen publikoan agertu eta gerorako «iraun» ahal izan (Salbatoreren obra askok, esate baterako), ez jarraipenik aurkitu ekipo lanetan. Bakoi-tzak bere aldetik ahalegindu behar izan zuen, ahal zuen moduan:

Villasantek, Iturriak, Gandariasek, Agirretzek..., Salbatoreren ikaslagunok; eta beste hamaikak: Garatek, Imanol Berriatuak, Omaetxebarriak, Kandido Izagirrek, Alustizak, etab., Arantzazuri buruzko liburuki honetan Arantzazukoak bakarrik aipatzeko. Gurea belaunaldi errea bada, hori belaunaldi kiskalia da, guk izan ditugunak baino labe gaiztoagoetan...

Salbatoreren idazlan guztion argitalpen honek, omenaldi apal bat izan nahi luke, hobeago faltaz, 50.gn hamarrurtealdi gaitz hari, eta, Salbatorerekin ikuskizunik zuten ala ez zuten, urte beltz haietan borrokari eutsi zioten guztiei.

Frantziskotarroi dagokigunerako, hau da, uste dut, lehenengo aldia, belaunaldi hartako lagunak —Salbatore zenaren ingurukoak, esango dugu orain— eta Jakin ingurukoak, noizpait nola-halako haien ikasle izanok eskolako aulkietan, eginkizun berbatetan elkartzen garena: eta Salbatoreren inguruan, hain zuzen, kasualitate simboliko bat baino gehiago bait dirudi horrek. Haientzat, edizio hau hain arduratsuki prestatu, mila eratan laguntza eman, finantzatu, zabalikudeaz kargutu, ari direnentzat, nagusi ala mendeko, Salbatoreren *Idazlan Guztien* argitalpen hau, beren lan luze gogorraren jarraipen eta, beranduko, presentazio dateke publikoan, eta gorazarre bat adiskide eta pairakide zutenari: nagusien enkarguz nahiz adiskideen laguntzaz buruturiko Salbatoreren obraok (zenbait obra idatzi ote da euskaraz, nagusiren baten enkarguz, eta ez idazlearen gogo hutsez?) frantziskotarren arteko gerra ondo giroa eta izpiritua mamitzen eta dokumentatzen bait dute¹; gure aldetik, esku-erakutsi bat izan bedi gure kolaborantzatxoa, Salbatoreri bai, baina belaunaldi oso hari, gutitan agertu diegun, benetan sentitzen dugun, begirunearen eta esker onaren. Guztiontzat, haientzat ala guretzat, denoi Arantzazuk euskaldun herri sinplearen zerbitzari izaten irakatsi digunontzat, izan bedi elkarlan hau gure zerbitzuen eskaintza elkarrekiko bat, Salbatorek kantatu zuen Arantzazu-Euskal Herri batasuna, berriro egiazta dadin.

—oOo—

Hemen, orain, Mitxelenaren irakurpenerako eta estudiorako sarrrera gisa, kontsiderazio arrunt batzuk aurreratzen badizkizugu —batez ere gazteenei begira pentsatuak— ezer berririk apenas aurkituko duzu, beste nonbait esanik ez dagoena lehendik. Eman ere, ez dizu-

¹ Ik. A. Agirretxe, *Mitxelenarekin pentsaketan*, in S. Mitxelena, *Idazlan Guztiak I*, 1977, LIX-LXVI; A. Iturriaren hitzaurrea, han bertan, «Aberriak min dit»-i (or. 21-23) eta Salbatoreren idazlan hori bera; eta Agur, *Salbatore*, lek. ber., or. 451-456.

gu ezer berririk eman nahi, Salbatoreren obraok berauk ezpada, eta horiek ez dira oraingoxeak. Lagun artean egindako gure azterketa fragmentarien emaitza —probisional— batzuk biltzen dizkizugu, hemendik aurrera, estudio sakon bat errazago izanen dugulakoan, Salbatoreren obra guztiak eskuetan ditugula. Gu geu, bederen, sinestuta bait gaude, gure kultur eta politik norabideak ezagutzeko, interesik haundieneko lana izanen dugula Salbatore eta bere garaia estudiatzea.

Ondorengoan, Salbatoreren *pentsabideak* begiratuko ditugu piska bat. Ez, noski, Salbatoreren obrako alderdi aztertu beharrezkoenak horietxek direlako, ezpada bai, alderantziz hain zuzen, aztertuenak horiek ditugulako iadanik.

MITXELENAREN PENTSABIDEAK

(edo 1950 aldera egiten zen euskal historiaren filosofiaz)

Salbatore Mitxelena ez da pentsatzaile orijinalik izan, abertzaleen pentsamentu arruntari espresio poetiko orijinalik ematen jakin duena baino. Hainbat ederkiago jaso digu, gure pentsamentuaren historiako mementu garrantzizko hura.

Badaude problema batzuk...

Hasieratik hasiko gara. Hona bi galdera: Salbatore poeta da. Merezi al du haren *pentsabideei* aparte eta propio begiratzea? Jeneralean, poeta bat ez da bere pentsamentu orijinaltasunagatik, edo sakontasunagatik, destakatu ohi. Lizardiren pentsamentua aztertzeak, esate baterako, interes orokar apartekorik ez luke. Nik uste. Salbatoreren kasuan bai? Baduela, haren pentsamentua erakutsiz, erakusten da. Baina, arrunt, eta alde zurretik, interes hori, haren obraren karaktereak eta denboraren eta situazioaren berezitasunak, oinarriturik ageri da. Kontuz ibili beharko dugu, nolana ere, literatoa ez filosofo mozorroturik bihurtzeko. Daukagun Mitxelenaren obra, literaria da, ez filosofikoa.

Bigarren galdera, galderarik baino gehiago, prejudizio bat da. Edo inpresio bat, garai hartako katolizismo gehienaz daukaguna (edo orduko abertzaleez). Dagoena da, nolana ere, eta dagoenetik hasiko gara: Salbatore eta —arrunt, belaunaldi hura— ez al dira, ideologikoki, frankistak bezalakoak: eskuindar, kontserbakoi, artxi-katoliko, etab., bakarrik abertzale izatea? Holaxe esaten bait da. Baina hor adierazten den egia puskari, beste puskek bilatu beharko dizkiogu.

Salbatore Mitxelena ez duzu irakurriko susto batzuk eraman gabe. Oso bere garaikoa zen. Eta zen bezalakoa bera radikal, garaiko alderdi batzuk, oso gure gustorik ez direnak, benetan radikaldurik eta radikalki espresaturik aurkituko dituzu. Funtsean, beraz, Salbatoreren alderdi problematikoena, orain iruditzen zaigunez, haren «nazional-katolizismo» delakoari datzekionak, dituzkegu. Puntu hori, nik uste, ekibokoz josita dago aldenik alde, ongi banatzen ez delako bere alderdian eta mailetan, forma eta edukinetan, eta sozialki betetzen zituen funtziotan. Dena dela, orduan Labayeni berari gogortxo egiten zitzaion «erlijio ta abertzale naasketa» hura, Luis Mitxelenari biraotaraino ailegatzen zela, iruditzen zitzaiona eta Salbatore bera zalantzan uzten zuena («Biraia ote? Sakrilegioa?»), gaur ez zaigu irudituko problematiko, biraia izan litekeelako, bazterrotan biraia kezka guti gelditzen bait da eta gauzak ez bait dira maila horretan epaitzen, baina, problematikorik, apenas irudituko zaigu lehen baino gutiago: zer da hau, «kristofaxista» abertzale bat? Frontez ekibokatu den guruztari bat?...

Ez dago holakorik. Ez dago, uste hori baino lerdokeria haundia gorik.

Bere pentsabideen konstrukzio sistimatiko bat, Salbatorek ez digu inon egin. Baina haren pentsabideen lehenengo inpresio bat berehalaxe ateratzen da. Bakarrik, zure inpresioari forma eman nahi diozunean, puskatu egiten zaizula irudia: Salbatorek duela, uste duzun, euskal historiaren filosofia, hasten zara formulatzen eta ez dela filosofiarik, aurkitzen duzu, baina teologia; hasten zara konstrukzio teologiko baten eran biltzen, eta, teologiko baino gehiago, mitologiko eta sinboliko bihurtzen zaizu... Historiaren filosofia batek, ala teologia batek, ala mitologia batek, ala sinbolismo batek soil, zintzilikatu du gurutzean herri hori? Okerrena, Salbatoreren obran horrela ebaki eta berezi nahi izatea zenuke. Salbatore, bere desberezitasun guztiarekin, nahasiborrasi, hartu behar da, bizirik harrapatu nahi bada. Bere nahaspila guztiarekin, nahiago baduzu horrela esan. Salbatoreren sinboloak ez dira sinbolo soil: filosofia bat dira; eta filosofiak, teologia dira. Eta nahasketaok, forman, ez dira forma literari hutsak; barneko nahasketa sakonago, tragiko, batek eragin ditu. Beraz, guri, sinboloak eta filosofiak eta teologiak, denak irudi dakizkiguke problematiko. Baina, beharbada, konprenigarriago ere bai beren anbiguotasun guztiarekin, bizitzarena berarena bait da anbiguotasuna, zenbait larriune historikotan bereziki, nola izan zen abertzaleen hura gerraren inguruan. Eta bidezkoago eta egokiago batez ere biziago, irudi dakizkiguke, teologia bezala bakarrik hartuko bagenitu baino, edo filosofia soil bezala. Hots, «ideologia» be-

zala. Badut susmoa, behintzat, interes ideologikoa piska bat baztertu orduko, naturaltasunez harturik, Salbatoreren «Guruzbideak» eta, beren indar espontan, tragiko guztiaz ageri direla berriro garbi eta bortitz. Beharbada, konprenitu ere, errazago eta hobeto konprenitzen dira gaur, eta gutiago xokatzen dute distantziarekin. Berriz ere literatura literaturatzat hartzea errazago delako, agian.

Nik neuk behar dut aitortu —gusto kontua orain aparte utzirik— honez gero batere ez nauela eskandalizatzen «Guruzbideak», h.d., Salbatoreren «ideologiak», edo «nazional-katolizismoak». Alderantziz, harrigarria aurkitzen dut; ikaragarri bizia, bortitza, egoerari egoiki-zegokana.

Hemen gauza kurioso bat seinalatu behar da, Salbatoreren larritasunak ikusteko, funtsean problemaren muina ukitzen bait du. Mirandek esaten zuen, kristautasuna «Orienteko doktrina» dela: «eta Europa hunetan erro hartzekotan, hemengotarren *Weltanschauung* bereziari egokitu behar zaio, nahi ala ez», bai bait dakigu horrek zer esan nahi duen Miranderentzat. Urteren batzuen aldearekin, Txillardegik —*Huntaz eta Hartaz*— aldrebes ari zuen: «Esan diteke, beraz, kristautasuna, jatorriz eta pentsaeraz, Asiakoa dala. Munduan sinistu ala mundua ukatu: horra hor benetako banaketa eta benetako muga»; baina, Txillardegiren ustez: «kristautasuna europartu egin da errotik». Izan ere, «kristautasunaren muinaren muina iruditzen zaizkiz mundutarrekiko galtzen jakitea... munduarekiko hutsegitea. Mundutar garaitzapena arbuia: horri deritzat nik kristautasunaren mamia». Horra, bada, Salvatore (h.d., haren belaunaldia, gerra garaiko abertzaleak), ezpata biren artean harrapatuta. Salvatorek ez du galdu nahi, mundutarrekiko hutsegin nahi; bizi egin nahi du, garaitu. Baina kristautasuna «desorientaldu», «europartu» duela esateko (Txillardegiren esanahi gaitzerizkor hartan), haren Gurutze dena ahaztu beharko genuke. Eta alderantziz, Miranderi erantzuteko: kristautasuna euskal egoerari egokitu eta modu konkretu batetan «europartu», apenas dago Salvatorek egin duen baino gehiago egiterik... Halare, tragedia intelektual bat: ez batera eta ez bestera ailegatzen da Salvatore. Ez borroka, beste kondizio gabe, zeharo onartzera, eta ez Gurutzearekin osorik etsitzera. Borroka, bai; baina «gehiegikeria» gabe. Gurutzea, bai; baina etengabe protestatuz. Horregatik, beste Autore bion aldean, Salvatore iluna da, nahasia, biderdian edo bezala geratu dena; bai euskal arazoari eta bai kristautasunari, irtenbide «ilunak» ematen dizkie; desabantaila guztiak dauzka. Baina ni neu, aukeran, sinesgabe banintz ere, harekin geratuko nintzateke, ez besteekin: haren zalantzarekin, ezin problemak soluzionatuarekin, dramarekin; ez hauen soluzio garbi eta errazekin. Unamunorekin eta

Kierkegaardekin: ez Nietzschekin eta ez Budharekin. Alternatiba oso garbiek aurretik, soluzio oso errazen abantaila dute gero: baina, azkenean, beharbada ez dute ezer akklaritzen, alternatiba hura bera baino, h.d., problema akklaratzeko muntatu den aparatua, ez problema bera. Soluzioak, problemaren gainetik ematen dituzte, ez barruan. Historikoki beste abantaila bat dute soluzio biok: besteak bere flakezia erakutsi eta gero etorri direla..., baina ez flakezia gutiagorekin. Ehundik ehun sinestun kristau zintzo eta ehundik ehun abertzale borrokari, batera izan nahia, nolako katramiletan nahasten zen, ikusi eta gero, erraza zen esatea, nahasketa hori gaizki zegoela; eta beste planteamolde batzu bilatzea, kristautasuna alde batera utziz. Ez den eta halare baden «nazional-katolizismo» harek, ordea, bere problematikotasun guztiarekin, abantaila bat badauka beste bien aldean: ez duela problema, soluzionatzen asmatu ez badu ere, haren gainetik posizio hartuz, likidatu. Problema beti ere hor bait dago: borroka eta morala. Ni ez nau sekula konbentzitu korapilo gordianoa, askatu ordez, mozteak ezpatazo batekin. Edozein ez da makedon. Salvatore —eta haren belaunaldia, gerrateko abertzaleak— drama ikaragarri batetan aurkitu dira kontzientzian: katoliko eta «gorri», demokrata bakezale eta gudari. Bistan da: Miranderen eta Txillardegiren goiko posizio horietan, drama hori ez dago, aldez aurretik soluzionaturik dago. Eliminaturik, hobe. Eta, hori ere, itxuraz bakarririk: kristaurik izan gabe ere problema hori berdintsu bait dago, konzientziarik duenarentzat eta planteatzen duenarentzat. Beraz, kontua da, kristautasun/abertzaletasun nahasketa, modu horretan ala bestetan, posizio teorikoetan ez egon arren, errealtatean badagoela. 36-an bazegoen. Eta, oraintxe ere, badago. Adbz., «terrorismo» delakoarekin. Azkenean problema morala, etikoa; edo, hitz horiek gusatzan ez bazaizkizu, publikoa, zibiltasun problema; edo, sinpleago, medio deitoragarriez eta kondenagarriez baliatu beharra nahitaez, bilatzen den helbururik eskuratzeko. Oso guti eztabaidatu dugu (eta ez dut esan nahi, gehiago eztabaidatzeko kondiziotan gaudenik), baina problema hor dago. Drama hori hor daukagu. Guk ere, euskaldunek beti bezala, teoria gutirekin eta praksian soluzionatu dugu arazoa. Fakto konplutuekin. 36-an ere halaxe egin zen. Haiek ere, beren «nazional-katolizismo» guztiarekin, laster asmatu zuten, berezkuntza bat, sinplea bezain oinarritzkoa eta, beren kasuan, erabakiorra: harkak bizkarrean hartu eta Jaungoikoarekin, zuzenbidearekin, zihozela, usteko zuten; baina nik ez dut inoiz entzun, berek botatzen zituzten tiroak, Jainkoarenak zirenik, uste zutela, frankisten moduan. Helburua —Euskadiren defentsa, etab.— Jaungoikoarena balitz bezala da, baina medioak deabruarenak - tiroka ibili beharra. Anbigotasun hori beti dago: Jaungoikoaren eskutik ibili usteko da; bai-

na gero, Jaungoikoak, guk nahi duguna, nahi dezala, nahiko da derrigor (nekez ailegatzen bait da inor Euskadiren zortea Jainkoaren eskuetan uztera, Orixerekin esanez: «Erri au uretan gatz lez urtu nai / baduzu, Zure da: Uzu!», *Urte zuria*). Salvatore, ezin etsi bat da. Etenda dago pasio eta berbizkunde artean. Jainkoaren borondatea onartzen du, baina patuaren kontra errebelatzen da. «Nazional-katolizismo» egiazkoarekiko diferentzia garbi dago: abertzaleena, arrunt, goian esan dugu (deabruaren medioena); Salvatorek, «nazional-katolizismoaren» ezaugarriak nabarmenena, zeharo falta du: triunfalismoa, agresibitate militarra. Euskal Gudalostearen patroik San Mikel hori omen da, sinbolo perfektu, ezpata gabeko San Mikel bakarra, Aralarkoa... Tormentu bat da abertzaleon zalantza egoera: *Dubia plus torquent mala*, esaten zuen Senekak. Beren posizioaren anbiguitatea, urragarria iruditzen zaigu. Nolanahi ere, agoantatzen jakin dute barruko drama guztia. Eta, niretzat, hor haien miseriarik adina, haien haunditasun morala eta bikaintasuna, gizalegea, ikusten da. Besteren batzuek, beharbada, kontzientzien halako torturarik gabe bonbardatu dute Gernika. Hiroshima, Auschwitz, Gulag. Nik neuk nahiago dut kontzientzia tormentatuko «gizajo» hura... Askotan bur-latu gara belaunaldi haren «zintotasunaz», moralismoaz, etab. Gerra behar bezala egiten ere ez zuela jakin, esaten dugu. Problema horik «gaindiatzen» omen zituzten planteamoldeak, asmatu uste ditugu. Baina problema morala eliminatzea, eliminatu nahi izatea, ez da soluziorik ematea, konzientzia eliminatzea baino. Azken finean, Salvatore —haren belaunaldia— bezalakoxe barne tiranduran, edo dualismoan, erortzen dira, nire ustez, funtsean tiranduraok errazago salbatzeko planteamoldeak abiatu arren, Mirande eta Txillardegik ere. Mirande, bere joera nietzscheano amoralaren aldean, beste budhistaz; Txillardegik, budhistaren aldean, aktibistaz. Beharbada gure egoeraren anbigutasunak ez bait du besterik permititzen, intelektualki eta moraliki ere holakoxe anbigutasun etengabea baino.

Beraz, besteak beste, finka dezagun hau, hasteko: «nazional-katolizismoaren» arazoak alderdi eta maila desberdin asko du; baina kristautasun/abertzaletasun «nahasketa» hori, nola egin etab. aparte, bera soil, egite hutsa, ezinbestezkoa da kristauarentzat¹. Eta modu horretan ez bada, beste batetan, edozeini planteatzen zaio problema hori, edo horren balioberdina. Funtsean ez bait da besterik, konzientziaren eta historiaren zein sentidoren problema baino (adbz., hil-

¹ Premia berberari obedituz, kristautasun sozial bat agertu da gero, sozial arazoaren eta kristautasunaren «nahasketaz»... Totalitatearen sentidoren esplikazio guztiek dute, eta izanen dute, problema konkretu mugatuetan, «nahastu» beharra.

tzepak —ni neu, edo nik inor, hiltzepak— zein sentido zein legitima-
zio, duen historian). Bakoitzak bere «ideologiaren» barruan esplika-
tu beharko du nazio borroka. Problema hori, *nire* aberria, *nire*
ideologia, *nire* kristautasuna (edo modua), h.d., *nire* alderdia, abso-
lutu bihurtuz bakarrik «gaindiatzen» da. Bestela, erlatibismo sano
batek, nahitaz drama hura dauka ondorio. Problema horik beti dau-
de: nik aitortzen dudana esistentziaren sentidoan, historiaren filoso-
fian, zein sentido duen nazio borrokak, edo gure ekintzek (harma-
tuek, adbz., edo gure derrotak), etab. Beharbada, gure gurasoek, guk
baino askoz sakonkiago sentitu dute hori. Sentidoaren galderak (bi-
zitzaren, heriotzaren; justiziaren, gizalegearen...) gehiago preokupa-
zen zituelako, esito hutsarenak baino.

Beraz, kristau batentzat borroka sozialak sentido bat kristautasunaren barruan izan beharra daukan bezalaxe, kristau abertzalearen-
tzat, nazio borrokak ere izan beharra dauka bere kristautasunaren
barruan gogoetagarri eta sentido batekin esplikagarri (eta kristaurik
ez denarentzat berdin bere «ideologiaren» barruan). Nola eta ez du-
gun, behintzat, gure «ideologia», guztiz tranzendente, errealitate kon-
kretuekin ikuskizunik batere gabe, zeruetako erreinuan, mistikoki,
konstruitzen: orduan ez dago «nahasketarik». Beste kontu bat da,
errealitate historikuei norainoko autonomia ezagutzen zaien. Alde ho-
rretatik, Salbatorek ez zedukan bere garaikoa izan beste erremedio-
rik, bere garaiko eta bere herriko kristautasun moldez. Beti ere go-
goan izan behar da, literatoa ez dela *ideologia produzitzen* ari, ezpa-
da bere aurrean aurkitu duen ideologia *batetan*, produzituen duela
bere produzioa. Pentsatzeko modu korriente bat hartu —irudigileak
harria bezala— eta egoera bati «bihurtu» —irudi bat egin— egiten
du. Literato denez, Mitxelena ez da ari, bere obran, egoera berri ba-
ten aurrean «ideologia» baten balioa probatzen, neurtzen. Zuzenean
egoerari eman nahi dio esplikazio bat (beti ere literato gisa); ez da-
bil ideologiari, egoera berriak eska dezakeen eraldakuntza, eman na-
hita. Hori propio teologoaren edo filosofoaren eginkizuna litzateke.

Lehenengo, bada, ideologia batetan dago, h.d., leku batetan, be-
re garaian hain zuzen, bere talde sozial eta politikoa, inguruko gi-
zartean, haren girotan, eta egoera jakin baten aurrean. Salbatoreren
lekua, gerra garaiko abertzaleena da. [«Txingarrak nonai su eragi-
ten /, maiteminduak maitemin /; Olakoxeak bear Eleizan! / Olako-
xeak Euskadin! / Olako bat genuen Sabin...», - idazten zuen Salba-
torek 1936-ko otsailean]. Eta inguru horretan biltzen du egurra,
bere sua egiteko. Ez dirudi, inportantzia haundia duenik, literatoa
zein ideologia-*tan* dabilen, ibili: Homero, Cervantes ala Balzac nahiz
Tolstoi, eta literatura modernuko abangoardista gehien-gehienak,

ideologia kontserbakoietan aritu izan dira beren produzioan. Ideologia kontserbakoiean sortua da Salbatoreren obra. Inportantzia haundirik ez du, halare: tresna bat besterik ez bait du hori, bere obra egiteko. Eta bere obra, produktua, literaria da, ez ideologikoa. Alderdi honetatik¹, Salbatore baitan atentzio ematen duena, da, nola asmatu duen, ideologia hura azken barnetasunetaraino lauskitzen eta zuku ateratzen. Ideologia hura tresna baldin bazuen, tresnak eskaintzen zizkion posibilitate denak aprobetxatu ditu, bere obrari forma emateko. Ez aurretik, ez ondotik, aprobetxatu ditu inork sakonkiago euskal literaturan, erlijiozko munduak eskaintzen zituen posibilitateak. Ernesto Cardenalen aitzindari bat, -Hegoameriketaren salmista. (Hor ez ote dago kristautasun/sozial arazo «nahasketarik»? Baina guztiei lan jenial bat iruditu zaie hori...). Mitxelenaren errekurtsio bortitzenak —irudi, etab.— handikoak dira. Eta haik maisukiro erabiltzen dakiela, esan behar. Hortxe dago Salbatoreren indarra. Haren obraren oinarria eta gailurra... «Gure kristautasunaren Gurutz! Gure euskaltasunaren Aritza! Aritz eta Gurutz! Arizgurutz, *Arbor una nobilis*, zaar sendo zindo, adoragarria...». Somario bat biltzen bait digu holako pasarte batek: erlijioa eta politika, karlismoa eta abertzaletasuna, liturgia eta Gernikako Arbolaren ideologia politikoa, Arana Goiri eta Iparragirre, Euskal Endaren Ereserkia eta *Cruz Fidelis*. Salbatoreren errepertorioa.

*Arizgurutz Santu, batean bi abe,
ezin maita dugu bat bestea gabe,
ezin ere Zu uka geu ukatu gabe,
Arizgurutz Santu, batean bi abe.*

.....

¹ Gure borroka ideologiko arruntaren poderioz, obra literaria, ageri duen «ideologiagatik» epaitzeko ohitura aldrebesa, egon da urteotan. Obra literaria, ordea, oso inportantzia guti du, zein ideologiaz baliatzen den literatura: produktu literaria nolakoa duen, ikusi behar da. Gorabehera honetaz, ik. *Zer dugu Orixeren alde*, 1977, III.-4, or. 109-138, «Lenin irakurri eta Orixen interpretatu». Salbatoreren «ideologia», hein honetan, Orixerena bezalakoxe erlijioso-moralista da funtsean eta konprenitzen da egungo irakurlea ideologikoki harengandik urruti samar ibiltzea: Euskal Herri «zintzoaren» abandonoa samintzen du gehiena; euskaldunek hain zintzo jokatu eta ezin da konprenitu haien zorigaitza... Funtsean, bada, zintzoak irabazi egin behar duen esperantza dago barnean: Euskal Herriak beti zintzo jokatu dizu, beraz, bizitzea merezi du... Ik. ideologia hori bera nola ageri den Orixeren obran, in *Zer dugu Orixeren kontra*, 1976, I.-1, or. 37-47, «Erljiozale eta moralista». Alderdi ideologiko horiek gorabehera, Salbatoreren obra literariak Euskal Herriaren biktima izatea eta bizi nahia kantatu nahi ditu eta hori literariki nola egin duen, ikusi behar da.

*Gernikako Arbola da bedeinkatua
euskaldun nai geranon Ostiral Santua
ta il ala pizten gaitun Aberri Pazkua.
Adoratzen zaitugu, Arbola Santua,
batzuk iraindu ala guk laztanagua,
adoratzen zaitugu Arbola Santua.*

Alderdi bat, bada, hori dugu: zein ideologiatan dabilen Auto-rea. Eta ideologia hori, zer duda, oso problematiko iruditzen zaigu iadanik. Hortxe dago, orriz orri, egon beharra daukanez: Salbatoreren obra osoa betetzen du. Irakurleak, beste eritzitakoa bada ere, naturaltasunez hartu behar duena, obra literaria, ideologiagatik, polemizatu gabe: Salvatore ez da inoren eta ezeren «ideologorik» izan, hau ez da ideologiaren polemikatarako lekua. Literatoa da. Bere obrarekin, ideologia hari ere desarroilo literari distiratsuen eman dio: obrak, tresna bera desarroilatu du.

... de genu pugnāt

Hona Salbatoreren obra guztiaren lehen karaktere arrunta: derrota ondoko borroka obra da.

1949-an agertu zen *Arantzazu euskal poema* —horrela azalean—, edo «Arantzazu euskal sinismenaren poema» —horrela azal barruan—, Eulateren apaingarriekin. 35 peseta prezioa. Benetan edizio apaina. Titulua ere arduratsuki asmatua. Denak holakoxeak ditu Salvatorek: *Ama Semeak, Erri bat Guruzbidean*, etab. «Poema» zeritzalako horrek, bat baina gehiago mindu omen zuen: «poema», Orixerenak bestek ez zeukan nonbait izaterik. Titulu anbiziotsuegia? Badakigu, poema haundi baten nolako esperantza zegoen orduan eta noizpait euskal poema haundi bat izateari —Mireioren antzera— nolako betekizunak ematen zitzaion. Euskadi birrinduen egoerak faxismoaren azpian, poema haundiaren aspalditiko itxaropenek, eskuizkribuaren odiseak, etab., betekizunak bat ematen zion denak Orixeren poema argitatezinarri, kasi sakratua, salbifikatua, konprenitzen bait da, Salvatore «euskal poema» titulu ausartaz agertzeak, jenderen batzuk xokatzea. Bazen, izan ere, hasi-berriaren mutur piska bat. Eta Salvatorek, harroskotsu, bere obra nola baloratzen zuen, ageri du apika. Hasieratik bertatik, Orixerekin asoziatuta agertzen zen mutikoa. Eta berak probokatzen zuen, nahita ala gabe, hurrengo urteetan, eztabaida zoro artean jendea nahastea, Orixeren poema ze-

la eta Salbatorerena zela, Orixe gehiago zela eta Salvatore zela jatorrago, ahari talkaren inguruan apustulariak bezala¹.

Mementu-mentuari zegokion poema, Salbatorerena zen. Orixerena baino beharbada poema gutiago, baina mementukoago eta, mementuak zeukan inportantziari bagagozkio, «euskal»-ago, *euskal poema* izateko: formaren bizitasunez eta edukinaren sentimentu kargaz.

Orixeren poema, gerrurrekoa zen bere konzepzio guztian. Derrotaren ondoko poema Salbatorerena duzu, oso-osorik.

Besteak beste, literatura martxan jartzen zuela aparte alegia, Salbatorek, politikoki ere, resistentzia zekarren: borroka, bizi nahia, esperantza. «Poema honetan —idatzi zuen Krutwigek, 28 urteko gaztea orduan— gure herriaren botzak eta naigabeak, nekheak eta lehiak sentitzen dira». Irrintzi bat mendi tontorrean zen poema, estaldura erlijiosoaren azpian. Holaxe ulertu zuen gazteriak, borrokan

¹ Oker ez banabil, Andima Ibinagabeitiak *Euzko Gogoan* (1951'ko Orilla/Garagarrilla) esandako harekin abiatuak izan daitezke eskatimaok: «Mokoroa Aitak Orixe'ren eineko iarri zidan noizbait olerkari gazte au». Mokoroa hori, ordea —Ibar— Orixeren goresle haundia bera zen *Genio y Lengua*-n. Gero, Bordariren ateraldi hau bezalako batek ere, jende askori ez zion grazia haundirik egingo: «*Arantzazu, euskal poema* es la obra cumbre en su género. Hasta ahora no hay nada que se le aproxime y mucho costará reunir en el vergel poético vasco, poema (!) que llegue a la altura de este trabajo» (Diario Vasco). (Erremisiorik gabe Leizaola gogazten duena: «El poema *Euskaldunak* de Orixe será para siempre un hito, una cumbre, en el desarrollo de la poesía euskérica», etab.). Are okerrago, Lekuonak, beste batzuek (Ibarrrek bereziki, eta Zaitegik etab.ek ere) Orixetaz, eta Orixe berak poemaren hitzaurrean, esandakoak, ia hitzez-hitz Mitxeleneri bihurtzen zizkion, aspaldi itxarondako poema haundia beste hau bihurtu balitz bezala: «Con todo, hay una cosa, en que el trabajo del P. Michelena se distingue de sus similares (!). Estos, ordinariamente, están concebidos como un canto que el Poeta entona al pueblo, narrándonos las gestas de éste. El P. Michelena, no parece que es él quien canta. Ha puesto más bien cantando al propio Pueblo Vasco... El Poeta, en su obra, deja hablar al pueblo. Y no sólo porque ha volcado en el poema todo el cancionero popular arantzazutarra, sino también y tanto más, por la entonación que ha puesto en todo él, que no es precisamente de relación histórica ni de cantar de gesta al uso, sino más bien de coplas «alusivas» e «insinuantes» sobre el tema, con un gran sabor de romancero popular». (Orduko kezka literariaren azalpen sintomatikoak bait dira). Holakoak ezin izan zitezkeen intentzio gabe esanak; eta are gutiago izan zitezkeen intentzio gabe esana, Mitxelena berarena hitzaurrean: «Ez da nerea. Zure Erriarena baizik. Gizaldiz-gizaldi zure babesean eta zuri kantari bizi izandako Euskalerri zarrak abestu izan dizun poema dezu, nik orain andik eta emendik osatua...» (Orixeren poema hitzaurreaz konpara). Azkenean, obligaziozkoa edo bihurtu zen, Orixe eta Mitxelena alderatzea eta hala egin zigun Basarrik ere: «Orixe marca una dirección culturalista, señera y rectilínea, mientras Michelena, como apóstol franciscano que es, enriquece el vascuence sin abandonar un momento el sentido popular»...

sartzen ari zenak orduantxe. Gero, Donostian, Txillardegik eta, Salvatore baitan lagun bat eta laguntzaile bat, aurkituko zuten; baina, batez ere, abertzaleatasunaren radikalpen konsekuente bat eta borroka mina.

Agertu ere, Mitxelenaren poema, mementu gurutzal batetan agertu da eta signifikazio literaria adina, politikoa dagokio. Euskal historiaren filosofia bat burutzen zuen. Interpretazio eredu dramatiko, dinamiko bat, funtsean oraindik ere balioa galdu ez duena. Gero batetan, hainbeste aipatu dugu —eta, beharbada, oraindik ere beharko dugu aipatu eta kritikatu— «nazional-katolizismo» delako hura, ezen ez bait du sinesgarri emango, lore gortesiazkoa baino, orain, baliorik ez duela halare oraino galdu, esaten badugu. Puntu honi serioskiago begiratu beharko diogu gero, axala eta barrena ez nahasteko. Baina aurretik esan genezake: «nazional-katolizismo» hura resistenzia ideologia gogor bat zen. Krutwigek ongi ohartu zuen filosofia hori: «Gurutz-bide Euskalherriaren historia izan da, gurutz-bide bat gure literaturaren bidea»¹. Euskal Herriaren konzientzia, autokonpreniera berri bat, poema batetan zekarren Salvatorek. Identitate berria.

Hasia da, iadanik, «abertzalearen» kritika (gero Mirandek radikalduko duena), halako zenbaiten folklorismoa, integrismoa eta pulamentu falta, salatzen delarik. Salvatorek «euskal arima» erreklamatu du, politikan eta politikoetan mesfidatuz, axalean geratzen direlakoan. Gorroto du axalkeria. «Gagozkion zintasanari, - hotsegingo du: Ori egungo mandamentu bakarra. Itxura, itxura. Ez dago itxura bezelako irabazpiderik». Abertzale klasikoa, gerraurrekoa, maizegitxo behintzat, Euskal Herriarekin satisfetxo bat izan da: gure historia demokratiko paregabea, hizkuntza zoragarria, etab. Salvatorekin, abertzale Euskal Herriarekin radikalki deskontentua hasi

¹ Ez dakit Krutwigen testuok inon argitaratuak izan ziren: Mitxelenak berak zeukan kopia makinazko batetaz baliatzen naiz. Krutwigen testuan azaltzen den beste zenbait alderdiri, hemen ez diogu jaramonik egingo, orduko interesak ezagutzeko jakingarririk asko izan arren, adb. euskararen gaitasun eta dotoreziaren proba bezala ikusten duenean poema: «Anhitzek asko-askotan gure hizkuntza aphala ta moldegaitza dela diote; bainan hunelako arbuiaztaileai neuk erranen neraukie: irakhurr zazue Aita Mitxelenaren poema ta zein eder, zein zalhoin, zein goxo gure hizkuntza den ikhusiren duzue. Antxinatik gure hizkuntzaren arbuiaztaileak euskaratuz gaizki mintzaten ohi dira, halarik ere eztzaguzkite euskararen posibilidateak... Mitxelenaren poesia aurrephai honen khentzeko dathorrku». Hau, puntu hau, inportantea garai hartan, garairi bagagozkio (ik. *Zer dugu Orixeren kontra*, 1976, 160 eta hurr.), alde batera utziko dugu hemen, ez delako Mitxelenari bereziki doakion gorabehera. Preokupazio horiek, bazituen Salvatorek berak ere: ik. *Unamuno ta Abendats*, «23. Euskera ez gai?», in *Idazlan Guztiak* I, 1977, 377 eta hurr.

da. Horrela helduko bait gara, Euskadi askatu ezezik, radikalki barrutik irauli beharra dagoela, esatera.

Hausiabantzaren erdian, poemak, historia zenbat borroka den, zenbat lan, odol, Konte Jaunen engainu eta maltzurkeria, erreketak, berregintza, gainbehera eta gaingora, eroriko, jaikialdi, bide urratze, gurutzebide, gau bijilia, gogoratzen dio euskal herriari: bataila galdu bat ez da bataila bat besterik. Historian halako mila dago; historia zaila da; historia ez da festa bat. Ez etsi. Poemak bere egoera kontraespilatzen dio euskaldunari eta bere mementuko larriak historia luze batetan situatzen dizkio, sentido batekin agertaraziz.

Desanimoaren erdian, poemak, euskal herriari bere gloriatzko egunak oroitaratzen dizkio: Elkano eta Okendotarrak, etab. (Lehen Aldia, 10.-IX. *Euskal Garaipena*, adbz.); santuak, herri honen ohore, Inigo Loiola bereziki...; herriari uste on eman diezaiona bere buruan. Pobre, baina noble, dela, esango dio euskaldunari. Haundiena bezain haundi, prestu, odolgarbiko aitunen seme: «zaldunak gaituk gu ere». Galdu egin dugu, bai, baina horregatik ez gaituk gutiago.

Poemaren dimentsio politikoa —erlijiosoa eta, lehenago daude, noski— ezin gutietsenezake: hain zuzen gerra ondo giroa esprestatzen duena; eta bere egoerari sentido bat aurkitzen, laguntzen diena euskaldunari.

Obra honetan euskal herria ari bada, euskal herriak, harmak galdurik, borrokan jarraitzen duela, ikusten da. *Si succiderit*, - esaten zuen Senekak, belauniko egiten du borroka: *de genu pugnāt*. Errezoan ari dela, kantuan, erromes bidean Arantzazura: resistentzian ari da beti Euskal Herria. Kolpaturik, belaunen gainera erorita, zutik egoteko ez gauza, belauniko jarraitzen du borroka.

Salbatorek su isil bat zekarren. Tenperamentuz ere borrokaria bera, borroka berri bat abiatzen zuen. Eta gazteak «poesía ardiente y reivindicativa de Salvatore Mitxelena»¹ hartan bero-berotuko ziren: Salbatoreren sutatik, hain zuzen goiko Krutwig horrexek eta, biztu edo biztarazi dituzten geroko suetara, bidea xuxe-xuxen doa. Poesiatik gudura. Baina prozesuak, bere denbora eta bere desarri-
lo bidegintza neketsua beharko du.

Salvatore prozesu historikuan ikusi

Gero gertatu denaren argitara ikusten dugu Salvatore: biderdian bezala geratu zela, iruditzen zaigu. Bidegabekeria litzateke, ordea, gero gertatu dena, ez dela Salvatore bat aurretik izan gabe gertatu, ahaztea.

¹ J. M. Torrealdai, *Euskal Idazleak Gaur*, 1977, 381.

Salbatore prozesuan ikusi nahi genuke. Gero izan denarekin, aurretik zuenarekin; prozesuan Salbatorek berak egin eta eragin duenarekin, eta berari eragin zionarekin. Eta honek, besteren artean, esan nahi du, gauza bat esan zuen Autoreak, beste bederlatzi, esan zitzakeen eta esango zituzkeenak, esan gabe utzi behar izan zituela. Mementuak, etab., zirkunstantziak, aukera bat behartu zioten. Beraz, Autore bat bere garaia da; eta are, Autore bat, Salbatore bezalakoaren kasuan batik-bat, bere garaiaren larria asumitzen duenean, bere garai osoa da, agian obrak ageri duen baino zabalago eta sakonago. Eta, une berean, testua, Autorea baino gutiago da, bere zatitasunean gehiagotara leihoratzen gaituena: gauzatu gabe utzi diren mila posibilitateetara ¹.

Salbatorez gero «terrorismoa» heldu da, esate baterako. Aztertu beharra legoke, horretaraino nola heldu garen, - lekua hau ez da. Baina ez dago ez ikusterik, gau beltza luzatu ala, poematik, *Erri bat Guruzbidean* zehar, *Unamuno ta Abendats*-en azken kapitulue-

¹ Metodo kontua ere apika bada. Beldur edo naiz, literaturaren soziologiarik batik-bat (eta ez literatoena bakarrik) oso zaila egingo ligukeen formalismo joera bat ez ote duen zenbait Autorek —hobe, prezeptibistak— gure artean aukeratu, obra testuari begira. Patri Urkizu gogor enpeinatu zen: «Ez da idazlea epaitu behar, idaztia baizik», etab., ik. *Literatura eta kritika*, 1970. Zuzena deritzat hori dena esan beharrari, gure artean, eta konprenitzen dut inork, esan ere, esatea, daukaguna ez dela Autorearen asmoak eta intentzioak, obra baizik; baina esandakoari ez derizkiot derrigor zuzen denik, kondizio batzuetan egoki esana izanik ere. Orain J. A. Mujikak alde beretik jotzen digu berriro, ik. *Testuak aztertzen*, 1978: «Testu azterketa ez da»..., «ez da»..., bost aldiz (or. 12-23; baina, gero, ikusi, «Testua bere kontestuan situatzea», or. 32). Beharbada, testuaren konzeptuan dago diferentzia, eta irakurtzea zer den konzeptuan: niretzat, irakurri, sekula ez da «testu hutsa» irakurtzen eta testua bera indikatibu bat da, «testuaz» gain garamatzana. Beraz, testu bat, hots, obra bat, ez da fosile bezala hartu behar, gauza hertsia eta bere baitan aski eta oso den adinakotzat, baina irekitzat eta egin den aukeratzat (bestea ere, metodikoki, zilegi dela, ukatu gabe, xede batzuetarako). Obra bat, espresio bat den heinean, Autorearen —eta mementu historikuaren, soziologikoaren— posibilitate bat da, gehiagoren artean, besteok ere, gauzatu ez arren, inplikatu. H.d., testua, testu baino gehiago da. Jakina, hemendik aurrera erraza da edozein arbitrakeria. Baina arriskuak ez beza posibilitatea uka. Denbora, Autorearen psikologia, etab., aztertzea, «lagungarri» dela, esatea, gutiegi zait niri. Testua bera, hori dena ere bada; hori dena testuan dagoena da, ez da inguru soil; egia bada ere, orain oraingoz hobeto landurik dauzkagula metodoak «testutasun» hutsaren azterketarako, testuan bertan beste haik ere «irakurtzeko» baino. Orain artean, literaturaren soziologiak, azterketa psikologikoak, etab., ikus-kizun gutiago dizute jeneralean testuarekin berarekin baino, Mujikak esaten duen kritikoaren «erudizioarekin» edo irudimenarekin. Esan nahi du, bakarrik, testu literariaren soziologia, edo azterketa psikologikoa, ez dabiltzala oso aurreraturik: horretan ez enplegatzeo adina bait da hori, horretan are gehiago enplegatzeo arrazoa, uste dudanez.

taraino, Salvatorek nolako eboluzioa egin duen eta zergatik (une bereko herri batena erakus bait lezake):

- borrokaren konzeptua geroz eta gogortzenago doa: poeman, borroka, batez ere lana eta enpeinua da, egonarriz eta eroapenez; bakea hospatuko da. *Unamuno ta Abendats*-en, borroka, «sumin santua» da eta ia biolentziatara heldu samar da.
- borroka konzeptuaz batera, herritasun konzeptuak eboluzioatzen du: herri baketsu eta demokrata garelako hori dena aspergarri bihurtzen da. *Unamuno ta Abendats*-en, «Uzkudundar eta Loiolatar» deritza euskaldunari eta haren «indar adore basatiar menderakaitza» aipatuko da, ez demokratismoa eta ez bakezaletasuna. Aitzitik, «aiurri ori jotzen eztinguten etnologuek, Erri paketsu alai patxaradun zorionsua omen generala diñoten ezgutxi oiek danek, urgaña ta olatu aparra besterik etzigitetek begiztatzen...». Poemak, «damu negarretan» azaltzen digu euskalduna, *Gau bijilian* otoika; *Unamuno ta Abendats*-en, «eztiagu emekiro egin behar negar». Abendats «gizon» da, ez emakume. «Gurea bezalako Erri zail latz nekaitz gizartsu batek eztu negu eriotza sekula etsi [eritzi, epaitu] bear galazi ezina; ez arerioa, geratu baño gallengo».

Borrokara hotsegiten da («Luchar! Luchar!»): «kollonduta egon? Balinbaite lotsagarri, lotsik ba. Areago euskaldunontzat». Honek ez dirudi, iadanik, Joanes Artzainik. Lope de Agirreago. Honez gero ez da eroapen kristau eta egonarririk predikatuko:

«Kristau eramapenak orrela bear dula diñoten oiei galdetu ea eurena ere orrela ote dan, ea eurak ere orrela nai diran, ea zertarako nai gaituzten orren asto nozitu ixil, eurek gu gogorako makilkatzen jarraitzeko baizik.

Azkeneko puntu horrekin, erlijioaren kritika marxista bera ukitzen bait da.

- aldatuz doa, beraz, kristautasuna zer den, konzeptua bera: poemako «euskal kristautasunaren oinaze zalea, ... arrigarrria bezin izugarria», honez gero oinazez ase da; kristautasun borrokari militante bat bilakatzen hasi da, liberatzaile.

Eta oso sinplea da eboluzio guztion arrazoia: «Baldin gerok enetxuok ezpadugu burua defenditzen, nork egingo digu ori bi milloi ez geran abenda naiko pobre oni?». Bizi nahi badugu, bideak egin behar.

Alderdi guztiok —Miranderen eragintzaz iharduterakoan berriro aipatuko ditugu batzuk— aztertu beharra dago xehekiago. Hemen ez dugu puntu horik seinalatu besterik egiten. Begira dezagun: ETA sortzera doan mementuan, ari da Salvatore gauzaok idazten.

Zuzenean biolentziari onerizteraino ez da Salvatore inoiz ailegatu. Azkenean, frantziskotarra zen, otsoari anaia esan zionaren seme, eta Andre Mariaren galai eta trobatore, bertso gozo-gozoak ontzen zizkiona zeruko erreginari (*thus conscience does make cowards of us all*, etab.). Horregatixe da, nik uste, hainbat seinalagarriago, *Erribat Guruzbidean* eta *Unamuno ta Abendats*-en zenbait «gogortu» den Salvatore. Hemen, Unamuno borrokaria hartu du lagun. Leon Bloy zakarra aipatzen da. Papini. Fariseoak zigortzen zituen Jesus. Santa Kruz apaiza gogoratzen da... Urruti gabilta honez gero poetik.

Biolentzia, egitera oraindik ez, baina bai esatera, ari gatzazkizu sartzten... Badago, eguna ilundu eta gero hegan abiatzen den Minervaren ontzik; baina baita hegoak, argitu baino lehen, goizabarreko lano zuritan, jasotzen dituenik ere, eguna antzizpatuz: Mirande hura eta Salvatore hau, esate baterako. Abangoardia moralak. «Profetak».

1950-1960: bidagurutze

Euskal Herriaren historia modernuko mementu gurutzeal batetan situatzen da Mitxelenaren obra. Lehen idazkietan oraindik optimismoa dabil nagusi; alegia, obraok, beren barne-barneko etxuran, Francok berehala erori behar zuela, edo «demokraziak» lagunduko zigitela, itxaroten zen garaietako konzepzioak erakusten dituzte (ik. aitorten espresoak in *Aberriak min dit* eta *Guruzbidea*, 1943, «Euskal Herriaren itxaro urte ontan» idatzia), optimismo ezin hautsi bat, Euskal Herriaren konfiantza osoa bere buruan, gerra galdu izan arren.

Esperantza horien hondamendiak, sarri asko aipatu denez, bidagurutze batetan jartzen ditu, euskal politika ezezik letrak ere. 1950. gnean, hots, frankismoaren garaitzape moral eta diplomatikoa aseguratzen denean, antikomunismoaren gorarekin, hauxe dakusgu, ikusi: Orixek Euskadi abandonatzen du, Euskal Herriaren zortea ere Jainkoaren eskuetan utziz, bere meditazioen barne emigrazioa ezkutatzeko eta kontsolatzeko; itzali den esperantza bat inkarnatzen du, itxaropena itxaroten egote bihurtzen da. Miranderen atakeak hasten dira demokraziari, pazifismoari, etab.; desesperaziotik itxaropen berri bat sortzen da, borroka bihurtuko dena. Salvatore —1954.gnean

Euskaditik aldegin beharko duena—, bien erdian bezala, gogortuz doa, joan, baina —Hamleten konzientziak ekintza paralizatzen du —soluzio bat ez du ikusten inondik. Resistentzia gogor, baina bake-tsu baten bidetik jotzen du lehenengo. Salvatorek, mugimendu erlijioso radikalduen bidez borroka politikora helduko diren gerokoak antzizpatzen ditu.

50-60 bitartea, krisi eta berregituratze aro bat da, bai Diktaturarentzat —bere garaitza politiko internazionala ospatzen bait du—, bai oposizioarentzat. 1951.ean, oposizioak oraindik behin hortzak erakusten ditu greba mugimendu bortitza batetan; oposizio indarren indarberritze bat dirudi, baina, izan, lehertu aurreko azken ekinaldi desesperatua da. Beste aldetik, ordea, 1952.an sortzen da *Ekin*, 1959.an ETA bilakatu dena, hamarrurtealdi honekin aldi berri bat hasi dela adieraziz. Bidagurutze bat da, egiaz.

Ohartxo pare bat, giro kultural eta erlijiosoari buruz, Salvatoreren obra guztia hamarraldi honetan sartzen denez gero:

- Espainol Estatuan orain nagusitzen den ideologia, errejimenaren *intelligentsia* berriaren laguntza apartaz —Opus Dei—, era guztizko nazional-katolizismo triunfalista da. Euskadin ere —Diozesi berriak sortu dira, etc.— katolizismo frankista inposatzen da. Euskal Elizak, ahal duentxo egiten du. Hamarraldiaren mutur bietan, euskal elizaren resistentziako bi ekintza aurkitzen ditugu, mugargi gisa: hasieran, 1950, Diozesi eta Gotzain berrien aurkako apaizen protestak eta *Egiz* aldizkari klandestinoaren sorrera, Font i Andreuk deskomeku eta maldizioz inkisitorialki zanpatua. Eta 1960.an, hamarraldiaren bukaeran, lau Diozesietako «339»-en Gutun irekia.
- Euskal kultura ere mugitzen hasten den seinale gisa, hona hemen, aldizkariak urteotan nola hasi diren:

1950: *Euzko Gogo*

1952: *Kuliska Sorta* (kolekzio bat)

1953: *Anaitasuna*

1954: *Othoilari* (Beloken)

Egan euskara hutsean

Zeruko Argia (hamaboskari)

1956: *Euskera*

Jakin

1959: *Olerti*

1960: *Goiz Argi*

Orain hartu diren deliberoak, ez dira, agian, 60.gn urteak baino lehenago ailegatu, meta inportanterik iristera (62, *Vasconia*; 64, *Harri eta Herri*; 65, *Huntaz eta Hartaz...*). Bideak orain abiatu dira. Fruituak bildu, udazkenean biltzen dira. 50-60 bitartea udaberri da. Neguondo, behintzat.

«Gure trajedi latza»:

Salbatoreren dilemak

52.an hasi den bezala, 59.an, hamaika gorabeheraz, azkenean ETA bilakatu den prozesua, Salbatoreren obra osoak —49 eta 59 artekoa— krisi aldi hau dokumentatzen du, azkenean, *Unamuno ta Abendats-en*, bere mugak jotzeraino.

Alegia, *Unamuno ta Abendats-en*, Salvatore, bere ikuspideek eman zezaketen azkeneraino ailegatu da: aurrera segitzekotan bere eskema teologikoak abandonatu beharraren atari-atariraino, Arantzazu, Gurutzebide eta bere beste paradigma guztiekin. Adbz., biolentziaren dilemaraino. Salbatoreren ikusmugetan, Camilo Torres bat ezin kabi daiteke (arras bestelako teologia beharko zukeen horretarako). *Unamuno ta Abendats-en*, galdua honez gero «demokraten» laguntza itxaropena, bizi ala hil dilema, biolentziaren alternatibaraino herstutu duenean, Salvatore, «kasik biolentzia» den punturaino aurreratzen da eta gero, inhibiturik, atzera «mirariaren» soluzio teologikora itzuliko da, h.d., soluziorik ezera. Funtsean, itxaropenik ez dago; *spero quia absurdum* bat dago, etsi ezin bat. Poeman eta Gurutzebideetan, itxaropena bizirik dago oraindik; *Unamuno ta Abendats-en*, bizi nahiak bakarrik dirudi bizirik.

Honez gero, bada, herri baten agonia ezezik, esperantza baten agonia sentitzen da Salbatoreren obran («etsipenean Itxaro!... Argibiderik ez sumatuagatik»). Ezerk baino gehiago, «demokraten» eta Elizaren abandonoak mintzen du Salvatore: «Iltamuon etsipen larriena auxe dugu: munduak gu ez ulertua! sekulan gu ezin ulertu al izangoa!», - «Agoni onentzat kanpotarrek eztute jaramonik, ez kupirarik». Hor bukatu dira, kanpotik inork lagunduko zigun esperantza guztiak.

Ezpaitakite gure trajedi latzaren berri! Ez gaituzte ulertzen! Ulertu ezina!... Bakarrik bizi eta bakarrik il bearra!, aztarrenik uzteke...

«Delenda est» ankerraren urolde zirimolak arrapaladan garamazkinontzat a ze bestelako pozkario izpi litzaken auxe ba-

dare: naufraguok alkarri besoa ta maitasuna luzatzea, edota ulertuko ta maitatuko ginduzken mundu zorikidearen besoetan, edo beintzat begirapean, beintzat kupirapean, azkena ematea... (*Unamuno ta Abendats*, «32. Ez jaramon ez ulertza»).

Batez ere, Elizak ez gaitu ulertzen. Horixe mingarriena. Salbatorek, «gure katoliku fede itxuaren erokeria» aitortzen du saminki. «Katoliku Elizaren justizia eta atariko aizea berdin duk-eta».

Euskadik ez du lagunik. Bakarrik dago. Kanpotik itxaron dezakeen guztia, badakizu: Estatu arrazoiaren edo komunismo arriskua- ren edo ez dakit zeren izenean, isil-isilik bere kondena ametitu.

Antzinako azteka, inka, guarani, txarru doakabe aietxena, indiu zirala-ta beste gabe erremata oi zituzten aietxena, izan bear du nunbait gure jokabideak eta arrengak: bizirik edo erdi-bizirik uzten gaituztenen esku «zabala» munkatu, munkatu ta miazkatu zakurkiro, ta eskerronez jarraitu gere biziko otoi- tzean atertzeke: «Barka guri euskaldun izana».

Salbatorek ez du izan nahi, zigorka ari zaion eskua munkatzen duen zakurrik. Hor sortzen dira Salbatoreren dilemak: Euskadik, biziko bada, borroka egin beharra dauka guztien kontra: borroka ez da Gurutzebidea; biolentzia ez da kristaua...

Gurutzebidea, euskal egoera interpretatzeko eskema baliagarria zen, azken finean, Bizkundera eragin behar zuten «jainkoak», konkreto, Aliatuak zirela, espero zen artean. Gero, itxaropen hori suntsitu ala, Bizkundera, inork egitekotan, Euskal Herriak berak egin beharko duenean, berriz ere —Gurutzebideetan baino poeman gehiago erabili dituen— ikuspide prometeikoak gaineratuko dira.

Dilemari, azkenean, Gurutzebide ala borroka, deritzaiola, kontu egiten badugu, Salbatoreren Gurutzebideak ez dirudi simulatua baino askoz gehiago. Salbatorek ez du gurutzerik inon nahi zinez eta egiaz. Salbatorek bizi egin nahi du (alegia, Euskal Herri bezala). Abertzalea eta kristaua, benetako dileman aurkitu dira. Baina —horixe bait da komeria— nahi al du, zinez eta egiaz, borrokarik?

Esperantzaren kantaria:
nola bukatzen diren Salbatoreren obrak

Hona hemen nola bukatzen diren Salbatoreren obrak, azkene- ko fraseak:

1. **Aberriak min dit, 1943:**

Beñola, Erri sinestunaren illobi aurrean, nola nai dezu Jainko gizonak, beste bein Lazarori bezela, Euskalerra gaixoari ez agintzea: «Irten ortik eta zabiltza»; eta, beste bein ura lotuta zeukatenei bezela, gaurko buruzagieri ez akartzea: «Aska zazute eta joaten utzi...!» ...?

Ingalaterrak eta garaipidea artu dutenetik, baietz uste degu. Ala biz. Jaungoikoak nai baidu —zion A. Kardaberaz benegarriak—, Jaungoikoak nai du Euskalerra burua jasotzea!

2. **Guruzbidea, 1943:**

Surrexit: *Piztu zaigu
Jesus bat-batean!
Praecedit vos...: orra non
doakun aurrean
Erriaren gidari,
Pizkunde bidean...!
—Jeiki ta abil, Euskadi,
Jesukin batean,
gurutz bidaroz letxe
Gurenda igandean!*

3. **Euskal Saminaren Guruzbidea, 1940-55: berdin.**4. **Erri bat Guruzbidean, 1940-55-58:**

*Kristokin bizi ta illok
arizgurutzean,
onatx Berpiztu ere
Geutasun Betean.*

5. **Confixus, 1960-62: berdin.**6. **Arantzazu euskal poema, 1949:**

*Goraipa Jauna. Geran guzia
Jainkoari zor diogu.
Gurekin, oro dezakeanak
gauza aundiak egin ditu.
Et exultavit... Amaren poza
semeen pozak geitzen du.
Zorioneko Erririk ba'da,
ecce enim... Amarekin gu!
... Ta, Amarekin bat, euskal Fedeak
MAGNIFICAT jarraitzen du.*

7. Ama-Semeak, 1951:

«Eta bost eun urteko garaipena kantatuz jarraituko degu...
Ama-semeak Arantzazuko kondairan.

*Orra Eliza jasoa,
amaika aldiz eraso,
zenbat leien arazoa!
Biotz bakoitzan begira zazu
ermitatxo eroso.
Begira, Ama gozoa,
zure esanera jasoa
euskal kondaira osoa!*

Salbatorek, drama izugarri bat edonon muntatzen dizu: baina gero, kristorenak gurutzebidean ikusi, edo infernuarekin eta deabru guztiekin borrokan ibili eta gero, klisk, drama denak bukatu dira, Euskal Herriak burua goititzen dizu, beti garaile, *happy end*, - *Magnificat*, *Resurrexit*.

Soluzio gabeko urteak

Nondik ateratzen du Salbatorek bere esperantza? Garaiko literatura gehienarekin biziki kontrastatzen bait du.

Aliatuak edo demokratik gorabehera, Salbatoreren esperantza, bere gogoak ematen diona da, ez gehiago. Edo: herriari animo eman nahiak berari ematen dion animoa.

Salbatoreren obra guztiaren barnean —euskal literatura osoarenean— oinarritzko presupostu bat dago: Euskadik bizi egin behar duela.

Baina, nola? Salbatore ez da politikorik, ez abertzaletasunaren teorikorik, eta ez dauka zergatik zuzenean esatera sartu, zer egin behar den, Euskadi bizi dadin.

Konforme. Baina bere obra guztian horixe besterik ez bait zaigu ari esaten, azkenean ia eskandalo bat da, beti esperantza kantatzea, soluzioa, ordea, inon aipatu ere ez egitea, nondik irten behar dugun infernutik (Aliatuen laguntza izan ezik, laster abandonatu beharra egon dena).

Salbatore, bere esperantzaren egiazko azken sustrai hutsera bihurturik, *Unamuno ta Abendats*-en aurkitu da. Hemen, *magnificat* barik, *miserere* hutsa eta gorria daukagu, - eta, *miserere* bat, hain

zuzen, bizi nahiaren espresio sakonena duguna. Ohargarri da, beraz, liburuaren bukaera, besteen aldean (Salbatoreren beste obrak «triumfoaren» proklamazio nagusiarekin bukatzen direnez gero):

Ez, eztugu il nai! Eztugu, nai izaterik ere nai! Beti ta beti bizi nai dugu! Beti bizi ta gu bizi! Gu auxe! Gerauxe!... Orain eta emen geran eta sentitzen geran genau gaixo auxe! Orregatik gauzka ain larriminez Animaren iraunkizunak, gure Anima onetxen, onetxen!, betiraun goseak, Min eta Min...

Urte tristeak dira urteok. Egin duela, ematen du, Euskal Herriarenak, betiko. Ez da erraza esplikatzea, zergatik, itxaropen denak hautsi eta, halare, itxaroten jarraitzen den, lanean, resistantzian, es-toikoki. Soluziorik ez da ikusten inondik.

«Ni zearo desengañatuta niok nere erriakin, - idazten zion Arretxek Salbatoreri, agian ez bait zen bakarra hola sentitzen—. Ez diat sinisten nere erriagan... Ala ere, esperantzarik gabe, alegindu egiten nauk. *Exta alperrik izango zuen odola*. Egia ote?... Barkatu akiok, fedea, nere erriaganako fedea, ziara galdu diat»...

Testutxo honek asko errebelatzen du Salbatoreri buruz ere. Salbatorek ez du itxaroten, soluzioren bat dakielako, baina itxaron *nahi* duelako, ez duelako etsi nahi, kito. *Spero quia absurdum*. Edo, hobeki, responsabilitate moral bat sentitzen duelako.

Negar tradizioan

Holako zerbaitekin euskalduna bere historiak kargatu du apika, aspaldi honetan behintzat, - Salbatorek badu nahiko arrazoï bere «euskal arimaren» teoriaz: alegia, ez dakit optimismo fatal batekin, ala pesimismo erremedio gabe aktibu batekin; ehun urte eta gehiago etengabe negarrez eta etengabeko borrokan, hain zuzen negarrez eta borrokan batera, iharduteko grazia berezi horrekin. Herri zahar hau, zaharregi da, beharbada, optimismo beroetarako, eta nahiko zahar, ezbeharretan berehala bigunki etsi eta amor emateko. Negarrez eta borrokan dihardu. Negarretatik ateratzen dizula indarra, esango litzateke. Pesimismo radikal batek joago eta tinkoago dirudi, gotorago.

Aspaldian ari da negarrez euskal literatura. Eta Mitxelena bera galdezka zebilen, zer seinale ote den, gero, «Erri oso baten literatura beti negar leloan jardutea»¹. Halare, 50.gn urteotako negarrak, atentzio berezia merezi du, nik uste.

¹ Ik. *Unamuno ta Abendats*, in S. Mitxelena, *Idazlan Guztiak I*, 1977, 319-321 eta 406 hur.

Ikus bedi Luis Mitxelenaren *Euskal literaturaren etorkizunak* ere nolako izpiritua errebelatzen duen. 1951-ekoa da¹.

Ikus gerra ondoko poesia¹; edo Txillardegiren lehen nobelak. Alegia, ohargarriena ez da, ikuspide pesimistak zabaltzen direla Euskal Herriaren etorkizunaz; baina, iluntasun hori bizitzarekiko jarrera orokar bihurtzen dela: absurduaren, sentidurik ezaren, esperentziak, esperentzia esistentzial oinarriko eta unibertuala dirudi, euskal arazoaren problematika berezia gaindiaturik («gauzek barruan gezurra baitaukate», Krutwigek badio, euskal arazoa guztiz tranzenditzen du esperentzia molde horrek; *Leturiaren egunkari ezkutu*-ko problematikak, berez ez dauka zerikusirik euskal egoerarekin). Eta, halare, nik uste dut, muga batzuen barruan (esistentzialismoa, uhin Budhazalea, ez dira Euskal Herriko eskusibuak), pentsa eta sentibide horiek oso erlazioan daudela mementuko egoera sozial eta politikoa-rekin.

Eta «pesimismo» hori, geroxeagoko erreazio biolentoarekin erlazioan ikusi behar dela, orobat. Gauzaok estudiatu gabe dauzkagu oraindik.

Txillardegi eta, munduak sentidurik ez zeukala eta, esaten zuen filosofia batekin zebiltzan, bestetik borroka radikalena biztu nahi zuten une berean. Esistentzialismotik ETA-ra, itxuraz bideak ez dira logikoak. Gutiago, Miranderen izpiritualismotik «Sortherriaren etsaiak/denak eho ditzagün» hartara; edo, are, Krutwigen «gezurra bai-ta gure Asturua» eta «gauzen izaita Ezerezean dago»-tik gerrilaren teoriara. Baina, hemen, horixe izan da bide logikoa. Esplikazioa, nik ez dakit. Edo: badakigu denok. «Terrorismoa», edo ETA, esplika nahi ditzanak, ikus beza lehenengo haien absurdu prehistoria.

Beraz, aztertu beharko genukeen gauza bat, 50.gn urteetako «pesimismoa» litzateke. Funtsean ezer berririk ez da (lehenagotik dator negar tradizioa), baina bai nahiko berria, orain hartzen duen funtzioan. Argigarri, alde askotatik genuke, 50.gn urteetako biraketa argitzeko; gure kasuan, Salbatoreren itxaropena hobeto situatzeko, eta konprenitzeko, negar hori eta «optimismo» hura elkarrekin nola datozen.

1955-ean publikatu zen *Euzko Gogo*-n Salbatoreren *Eusko Negarra*:

ADIO

Euskalerrriak dario, etab.,

¹ L. Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, ETOR 1972, 15 hurr.

¹ I. Sarasola, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia (1945-1964)*, LUR 1973. Ik., adbz., Otsalar (San Martin)-en *Ezer ezaren Samina* guztiz sintomatikoa, or. 125.

herio negar bat. «Adio baten tristura somatzen zaio Euskalerrinari, bere erritasunaren udazkenean. Amaika gauza eder bait badoazkio biluzten, erabat suntsitzen! - Mundu arrotzean arrotz, bere burua aldeztu ezinik, espetxe batean bezela topatzen duzu gaixoa, katigu ta ilzori; urkamendikoaren antzo daukazu, bizia zintzilika duela zenbaitzuen eskutik..., Jaungoikoaren borondateari belauniko».

Alegia, *Eusko Negarra* publikatzen zuen une berean *Unamuno ta Abendats* bukatzen ari zitzaigun: Salvatore radikalduenik ageri diguna. «Zinez pertsona badanak —idatzi zigun orduan— ezтик etsi bear il arte. Ez uka ezergatik norgeretasuna. Eutsi betire norgera izateari. Eutsi bizitzari. Bizi Nai! deadar santuagorik etzegok. Deadar ori izan duk, eta izango ere duk, gizadi osoaren, eta enderri guzien, eta bizidun bakoitzaren, espa ta arnas ta joran ta elburu ta eragingarri ta lege. Norbera izan bakoitza! Beti ni izan. Beti nerau. Nerau auxe. Nerau gaixo auxe».

Euskal historiaren bi filosofia (eta bien artean Salvatore)

Bi esaten dut eta berdín esan nezakeen hiru, edo lau; edo bakarra besterik ez dagoela ere, euskal historiaren filosofia. Eskemak ez dizu beste baliorik. Eta gutien-gutiena, baloraziorik aurreratu nahi luke.

Halare bi dagoela esango dut, kontraste bat eginez, Salvatore, nolabait, bion arteko transizio moduan azaltzeko. Bere baitan, noski, Salvatore, bera da, ez transiziorik beste biren artean. Baina bai bere euskara, bai forma literariak, historian begiratzen baditugu, bere historiaren filosofia bera, pentsabideez badihardugu, transizio aldi batetako tipikoak iruditzen zaizkigu. Garai honetan somatzen diren ikus eta sentibide inportanteenak, Salvatorek ondo samar bildu eta artikulatu dizkigu, nire ustez, Salvatorek horixe egiteko asmorik inoiz propio erabili ez arren (h.d., bere abertzaletasuna «arrazonatzeko» asmoa). Baina, hori dela edo hura dela, zuzen-zuzen ala zeharka, Salvatorek eta beste askok ageri du, euskal literaturan, bere posturaren «filosofia» bat eta hau ez da, azken finean, bere abertzaletasunaren filosofia besterik.

Erraztasunaren amorez (eta pittin bat zehaztasunaren kaltetan doa orain erraztasuna), bi izenen inguruan erakutsiko dut kontrastea: Orixe, Mirande. Duda gabe, gai honek estudio sakonagoa behar du.

ORIXE-rena histori filosofia defentsiboa da. Guztiz ikuspide tradizionalista da. Eta ikuspide moralista da. Tradizionalista bada, ez da esan nahi beti aspaldidaniko bera denik —berrien berriena ere izan liteke filosofia tradizionalista—, baina tradizioan ikusten zuela zer salbatu, defendatu. Moralistak esan nahi du, euskal historian, gizartean, balio moralak estimatzen direla gehiena (euskaraz biraorik egotea baino euskara hiltzea nahiago izate harek erakusbidatzen diguna, horrek sarri eskandalizatu bait gaitu). Orixek, Arana Goiriren antzera euskal antzinatea goratzen du. Baserritarrari deritza euskaldun jatorra. Euskal historia, funtsean —historia oro, seguru asko— gainbehera da; orainaldia ilunabar da: galduz doaz ohitura zaharrak, etab.

Mitxelenarena, orobat, funtsean histori filosofia erlijioso eta moralista izango da. Baina, Orixek apenas aipatu du antzinako euskaldun hura demokrata omen zela, esate baterako; Salbatorek jauntxopetik askatutako hiriei gorazarre bat kantatu die (ik. Poeman, *Pakea*), etab. Diferentziak nabarmenak dira. Batez ere, Salbatorek, «inularrea» eta Euskal Herriaren agonia sarri kantatu arren, ez du historia gainbehera moduan ulertu nahiko, guztiz dinamikoki baizik. Historia gurutzebide da. Historia, antzinatearen gailurretik behera amilduaz barik, erori eta jaiki, erori eta jaiki, doa, eta azkenean berbizkunderak itxaroten du. Beraz, Orixek «hontan *iraun* dezan» kantatu duen artean, Salbatorek indar berritze bat agintzen du: Berbizkundera. Orixeri ere geratzen zaio itxaropen apur bat golkoan. Baina ondo apala da haren itxaropen espresioa, Salbatoreren aldean: «Azkenetan dagon Euskalerrri ontaz / oraindik nork daki zer ein dezakegun?». Orixeren aldean dinamiko eta agresibu ageri da Salbatore.

MIRANDE-rena, Orixeren beste muturrean, euskal historiaren interpretazio guztiz agresibua da. Espansionista dela, esan liteke. Gutierrez, Euskal Herriaren berriztapen radikal bat eskatzen eta iragartzen duena¹. Antikristau eta antimoralista. Antidemokrata, oro-

¹ «Nundik etorri zaiku dekadentzia? Gure ahalmen politikoaren bildur zeuden hauzoez, hots, Frantziako Errege Guztiz Kristauak eta Espainiako Errege Katolikoak, ohartuki eragin zeraukutela ezagun da. Deitura horietan, hain zuzen ere, euskaldungoaren etsai handienak nabari zaizkigu: Europa Sartaldeko bi estatu latin-berriok eta Erromako Eliza». — «Nere ele ahuk entzun-eta, hipokritak edo ergelak jauntziak urra eta beharriak tapa ariko direla badakit, blasfematu dudala hotsez. Engoitik ahatik, Euskaldunik anitz —gizaldi gazteetan batik bat— nik hemen garbian izkiriatu ditudanak ahapetik erraiten hasiak dira. Ai genitza bildur eta ahalge zozoak betikotz utz gure ona eta onura non dauden ikus dezaguntzaz, behinik behin. Agian eguna etorriko zaiku, uste

bat (hori ere azkenean moralismo hutsa iruditzen bait zaio). Orixek bezain ongi dakus, zein hondamenditan dagoen, egon, Euskal Herria. Nola doan gainbehera. Baina, historian, behera joan ala gora joan, indar kontua dela, esango digu. Eta ikuspide moralistak dira, hain zuzen, Miranderen ustez, indargabetzen gaituztenak eta gainbehera amilarazten gaituztenak: azken finean kristautasuna da, hondatzen gaituena. Mirandek, gurutzean dagoena, bere kulpaz dagoela, esango du. Eta Euskal Herriak, gurutzean jarraitu eta hil nahi ez badu, badaki, zer egin behar duen: «Sortherriaren etsaiak / denak eho ditzagün».

Orixeren poema 1950-ean argitara zenez gero (49-an Salbatorena) eta Miranderen ideioak 1953-an zabaldu, 50.gn hamarraldiaren hasieran gutienez hiru filosofia badauzkagula elkarren lehian, esan genezake.

Historiaren problema, funtsean, zer egin problema da. Baina galdera horrek —zer egin— bi modu har dezake: 1. zer egiteko obligazioa da nirea, eta 2. zer egin behar da, esitorik izateko. H.d., *nola* jokatu, nolazkoaren adiera bietan: moralean eta tekniko-pragmatikoan. Bi galderaok ez dute bata bestea lekoratzen, eskluditzen (alderantziz, bata ez dabil bestea gabe), baina zein lehenago joan, planteamendu desberdina ematen dute.

Literaturan, Miranderekin hasten da, uste dut, esito izateko zer egin, galderaren lehentasun absolutua, arazo moralaren esklusiorainokoa. Zer egin, euskal arazoak behin eta betiko soluzio bat izan dezan. Hau da, moraltasun galderaren gainetik efikaziarena. Hau dena, noski, pentsabideen kanbiamendu orokarrago baten barruan gertatzen da eta inguruko beste mila arazotan ere nabari duzu. Adbz., euskara «eder» eta «garbia» baino efikaza eta bizia nahiago izatean: urteotan etengabe errepikatuko bait da, hizkuntza ez dela tresna bat besterik, etc. Planteamenduon oinarri eta kriterio efikazia da.

Faxismo peko baldinkizun larrietan, halare, abertzale izatea eta aberriaren alde jokatzea «erokeria» den garaiotan (Salbatorek sarri agertu dizu hori), Hegoa Euskadin behintzat, maiz beste puntu bate-tatik abiatu da reflexioa: egoera honetan zein da nire obligazioa? Ikusi mundu hau eta nola jokatu behar dut? *Duda gabe, efikaziaren kezkarik ez da falta; baina planteamenduotan responsabilitate pertsonalaren galderak domeinatzen du. 50.gn urteetan borroka be-

baino lasterrago, gure gizeli-jainkoen aldareak hartzara lorez estaliko baitira gure oihanetan, edo gure bihotzetan bederen; eta Zazpi Eskualdetako seme-alabak, latinkeriak arbuiaurik eta euskal endaren genioari itzulirik, harzara herri azkar, sendo eta handi-nahi bat formatuko baitute, geroaldi zabal bati buruz joaile», in *Euskaldungoaren etsaiak*.

rri bat, edo borrokaren fase berri bat, abiatu da. Baina ez borroka ideologia berria (Hegoaz ari gara beti ere). Funtsean borroka berria ideologia zaharrarekin hasten da, berrasten da. Eta radikalpena bera izanen da, zaharretik berritasuna berehalaxe sortuko duena.

Planteamendu honek, *oharkabeki ala ohartuki*, «zergatik eta zertarako abertzale jokatu?», galdekizuna darama barruan (alegia, abantailarik batere ez dakarrela, etab., baina, batez ere: Euskal Herriak bizirik irtengo ote duen, ikusten ez denean). Abertzale banaiz, ez da hortik neure abantailarik atera nezakeelako. Zergatik, orduan? Gerra galdu da: zertarako borrokan jarraitu?

Galdera hau, gero planteamendua erabakitzen duena, ez da inoren kaskoan kasketaz sortzen. Egoerak inposatzen du. Eta inposatzen du, hain zuzen, euskal konzientziaren krisia bene-benetakoa delako (51-ean hasi da Luis Mitxelena «kaletarrak ere euskaldun gara» ho-tsegiten), - eta borrokaren esitoa oso-oso dudagarri ageri delako (L. Mitxelena: euskara «hildako ala bizitako ote dugun zalantzan gaudenean»); h.d., erabakizunaren oinarrian esitoaren segurantzia jartzetik ez dagoelako. Bestela es legoke problemarik. 50.gn haietan borrokari lotzen zitzaionak, ordea, esito segurantzia guti zuen. Holako egoeran, alegia, oso posible denean, gure ahalegin guztiek ez dutela ezertarako balioko, orduan konzientzian erabaki beharra dago zein postura hartu, konzientzian ez bait dago sentidurik gabeko lan batetan enplegatzerik, seta hutsez. «Nahitaezkoa dugu, beraz —idatzi zuen orduan beste Mitxelena honek, Luisek— euskal literaturari geure esku lanez edo geure gogo onez bederen lagundu nahi geniokeenok geure burua aztertzea, (1) ea zertan garen, *itxaropidean ala etsibidean*; (2) ea zein den gure *eginkizuna* eta (3) batez ere, gure lagundu-nahia zenbaterainokoa den¹. Egoera honetan erabaki zaila da abertzale jokatzea, konzientziak legitimatu eta agindu beharra daukana. Hots, ez da, konzientzia erraz deskargatu ohi duen ohizko «ebidentziarik», beste mila lekutan edo kasutan izan litekeen bezala. Abertzaletasunak «ebidentzia» dena galdu du. Asko ziren orduan, Salbatoreren obrak dokumentatzen duenez, borroka abertzalean jarraitzeari erokeria zeritzatenak.

Planteamendu honi —holakorik egotea bera bada egoeraren la-tza adierazteko adina— morala esango diogu. Morala, hitzaren egiazko adieran. Responsabilitatean oin hartzen duela eta finkatzen dela, adierazteko; erantzukizunean. Hola ezpada ez dugu inoiz konprenituko, nola belaunaldi batentzat —apaiz eta fraile askorentzat bere-

¹ L. Mitxelena, aip. lib., 30. Nireak dira azpim. eta zenbakiak parentesi artean.

berki— abertzale izateak «konzientzi problema» bat planteatu zezakeen. Konzientzi problemak ez dira sortzen, Gotzainak frankista edo karlista direlako eta menpeko apaizak edo fraileak PNV-ista. Barrenagotik sortzen dira problemak. Eginkizunaren beraren aldetik sortzen dira.

Beraz, Hegoa Euskadi krisi latzean dabil. Krisian dabil kristautasuna, pentsaera tradizional guztiaren ardatz izana (Miranderen atakeak eta Txillardegiren interpretazioak erakusten dutena, ik. azkenekoaren *Kristautasuna eta mundutar garaitzapena*); krisian euskal konzientzia klasikoa, baserrian oin hartzen zuena; krisian konzientzia abertzalea, Elizak eta demokraziek saldu egin dutena... Euskalduna, «bihotz euskalduna eta buru erdaldunaren arteko borroka amaigabea»-n ari da; bere sinesmen kristau eta konbikzio demokratikoak eta Euskadi askatzeko biolentzia beharrezko artean borrokan ari da; Euskadi askatu nahia eta dena alferrik izango den inpresio—edo depresio—aren artean borrokan ari da. Urratuta dena. Egoera honetan, guztiz zorrotz-zorrotzen da responsabilitatearen galdera. Badago abertzale izaterik? Zergatik, zertarako?... *Huntaz eta Hartaz*-en Txillardegik ondo borobil eta garbi planteatu zuela, aurkitzen dizut orain, istiluak geroago sortuko bazituen ere galdera horrek: «abertzale izateko eskubiderik ba ahal dugu? Galdera larria; galdera harrigarria beharbada, irakurle hori. Baina galdera beharrezkoa»...¹.

Beraz, iruditzen zait, 50.gn urteetan, Hegoan batik-bat, planteamolde moral derizkioguna zebilela nagusi. Eta ezinbestean halaxe behar zuela, esango nuke. Aurrera baino lehen argi dezadan, planteamolde honek ez duela esitoaren (efikaziaren) galdera zeharo baztertzen. Absurdua litzateke. Honez gero dexente urrundu gara Orixearen postura hartatik. Baina esito kontua hemen bigarrendarra bihurtzen da, Miranderen kontsiderazioetan ez bezala. Ez da begien aurrean lehenengo dagoena. Oraindik defentsa ideologia da nolarebait. Horregatik, postura honetan halako heroismo tragiko bat, fatalismoa edo, somatzen da, Arana Goirik uste dut «il naiago dot ikusi baino aberriaren amaia» harekin espresatu duena, eta etorri lehenagotik datorrena Euskal Herrian, negar artean ari baita borrokan, gureari eusten «naiz anka bana autsi». Hilgo bagara ere, guk gure obligazioa. Kanpionek esango duena: resistentia.

Hein honetan, Hegoaldeko baldinkizunen aldetik, Miranderenak ordua baino lehenagoko ikuspegiak iruditzen zaizkigu. De fakto Mirandek frakasatu egingo du lehenengo; hamar urte eta gehiago pasa beharko da, haren ideiak eta ikuspideak Hegoaldean errotzeko eta

¹ Txillardegi, *Huntaz eta hartaz*, 1965, 74-75.

indartzeko. Are, ideiak hemen finkatu dituen, Krutwig, lehenengo herbestera irten da, etxeko itolarritik liberatuz (liberazio intelektual batez ari naiz) eta ideiak inkonbentzionalki, libreki eta ahalkegabe, ez bakarrik jaulki, baina azkeneraino pentsatu ere, egin ahal izateko. Mirandek azkenerako etsi egingo du (beste modu batetan Orixek lehenago etsi duen bezala eta, susmo dudanez, Salvatore ere geroago etsi samartu den bezala: horregatik esaten dut, urteok soluzio gabekoak zirela). 53-ean itxaropen haundiekin ekin dio Mirandek («Agian eguna etorriko zaiku, uste baino lasterrago...», etab.). Ez dio luzaro itxaropenak iraun: 1960-an, «Nihaurk ez dizut aspaldi huntan ilusimendurik haboro batere Uskalherriaz eta Uskaldunetz», aitortzen djo adiskideari. Baina Mirandek, Pariseko libertate intelektuala gozartzen duenak, ez ote du subestimatzten Hegoaldeko mementu politikoa, batez ere mementu psikologikoa? Hegoaldea derrotaturik dago: *militarki, ideologikoki (eskuinetik nahiz ezkerretik, politikaren nahiz erlijioaren izenean, ridikulizatu egiten da «natzionalismoa»)*, moralki (Elizak eta demokraziek saldu egin dute: bere sostengu moral izan zitezkeenak) eta derrota psikologia horretan ari da, buruari ur gainean eusten nahiko lan duela, heriotze psikosi batekin. Miranderen planteamenduek, ordea, bere buruan konfiantza haundi bat suposatzen dute: Euskal Herriak memento honetan ez daukana. «Enda sentho eta azkarra», idazten du Mirandek, ahulagoaren bizkarretik hedatzen eta aberasten da. Ongi da. Baina Euskal Herria ez da oraintxe sendo eta azkarra sentitzen, ez horixe. Zintzo eta biktima sentitzea ez da guti..., inor zanpatzea pentsatu gabe. Miranderenak garaitzarre gogoetak dira: Euskal Herria derrotaren azpian dago. Mirande gustora burlatu da euskaldunen «zintzotasunaz». Baina ez du ulertu, nire ustez, zintzoaren autokonzientziak mementu psikologiko honetan zuen resistentzia balioa.

Trantzte honetako abertzaleak bere responsabilitatean pentsatzen du, esitoan edo garaitian baino lehenago. Agian oso guti akordatzen da esitoaz, borrokan ari denean, begien aurrean eta eskuak betean daukana mementuko desastrearen beltza denez gero. Euskaldunak herstura honetan pentsatzen duena, resistentzia da. Miranderen pentsa eta sentierak oraindik ez ziren posible banaka batzuentzat baino.

Beharbada gaur ez zaie pentsa eta planteamolde moraloi miresle asko gelditzen Euskal Herrietan, esitoa gehiago estimatzen bait da. Nik ez nuke zindotasun moral horren miresmen osoa hemen aitortu gabe aurrera jarraitu nahi.

Planteamolde honi ikusten zaion lehenengo ezaugarria, karaktere tragiko hori da. Artikulu guztiz egokia Luis Mitxelenaen *Euskal*

*Literaturaren etorkizuna*¹ iruditzen zait, planteamolde honen tankera ikusteko, zuzenean beste zerbaitez ari dela erakusten duen guztiagatik. Artikulu hori 1951-ekoa da eta, Patxi Altunak dionez, horrekin presentatu omen zuen errederiarrak euskal letren plazan bere burua¹.

Artikulu hau, tituluak berak dioenez, ez da ari abertzaletasunaz, euskaltzaletasunaz ere ez propioki, euskal literaturaren etorkizunaz baino; eta gero famatua egin da, euskara kaletartu egin behar dela proklamazioagatik. Hara, bada: Erdi Aroko kronika eta kronikoiak Adan eta Evarekin hasten duten bezala edozein xokotako historia —Lope Gartzia Salazarkorena, esate baterako—, Luis Mitxelena, «gizona zer den» galdera harrigarriarekin hasten da. Non hasi gara? Horrek zer ikusi behar ote du euskal literaturaren etorkizunarekin?, galde lezake txundituta irakurleak. Baina oraingo irakurlearentzat ez bada, 1951-ean euskal literaturaren etorkizunaz idatzi behar zuenarentzat bai, asko ikusi behar zuten batak eta besteak. Ohargarria horixe da: euskal literaturaren etorkizunaz artikulu bat, 1951-ean, normal-normal hasi ahal izatea, gizona zer den galdera urrunarekin. Mitxelena hasieratik hasi da: egoera hartan derrigorrezko hasieratik. Artikulu baten estrukturak ere testuinguru soziologiko, psikologiko, etab. batzuk errebelatzen ditu.

Inportante da «gure zinezko izatea, gure nortasuna» nola ulertzen dugun: holaxe ulertuko bait dugu, gure jokabideak, gizalegeak, nolakoa izan behar duen. (Mitxelenak ez digu kasualitatez gogoratzen artikulu honetan bertan, Etxepare aipatu duenean, «ezbeharretan gizontasunez betea» izan zela...). Lehenengo responsabilitatearen arazoa dago. Dago, eta dagoela sentitzen da, sentitu ere: «aberria iltzen dijoanean eta aren bearrik ez dugunean, ordun agertzen da ederkien zintasuna» (*Aberriak min dit*).

Gure zinezko izatearen edo nortasunaren azalpenean, Luis Mitxelenak eta *Abendats*-en asmatzaileak biziki koinziditzen dutela, ikusten dugu (gero Luis Mitxelena eskeptiko izan arren «euskal arima» baten esistentziari buruz). Biok esistenzialismoak kutsaturik agertzea, agian ez da harrigarririk: «Gizonak bere burua munduan aurkitzen du —idazten du Luis Mitxelenak (Salbatoreren «esistenzialismoak» ez du aipaketa beharrik) —hemen suertatzen, gure artean esaten den bezala— nola eta zergatik ez dakiela». Esistenzialismoa responsabilitate filosofia bat izan zela, gogoratu beharrik ez dago

¹ L. Mitxelena, aip. lib., 15-42.

² Baina ik., aip. lib., or. 370 («idazten ez nintzen *Egan*-en hasi...»). Hala lehenagoko idazlanek oso zabalkunde guti izan zutela, ematen du.

apika. Baina esistentzialismoa filosofia indibidualista bat izan zela, osteratuko duzu. Izan ere, horixe da: suertatu, kolektibitate batetan suertatzen gara munduan; eta izan, «baldinkizun sozialen bilduma» gara, esaten zuen Marxek. Hona nola dioen Mitxelenak, haren filosofiak gabe eta, mementu honetan gogoangarriago dena, kolektibitate horri batere zaputz egin gabe, esistentzialismoak ohi zuenaz arras bestela (Txillardegiren nobeletako gizona, esate baterako, kolektibitatearen ihesi dabil):

Bere baitan eta beretzat adina besterengan eta besterentzat bizi behar du gizonak eta besteengandik, hurkoengandik ere, bereizten duen hosin zabal hondargabea begien aurrean ez daukanean, bere baitan somatzen du garbiro besteren bizia eta izatea. Hezur, mami, odol, ohitura, isuri, joera, sinesmen, izaera, pentsabide, besteri zor dizkiot eta bestetan txertatzeko ahalmena badut. Ongi aztertuz gero, ez naiz bitartekoa besterik. Eta nere nortasun hutsa jazten duten «zer» hauek ez dira nere buruari erantsi dizkiotan gauzak, nolana ere erantz ditzakedan jazkiak. Gerekoikeriak maitasun hori maiz lainotzen badu ere, maiteago ditut —neureago, alegia— neure nortasun berezia baino eta, hala behar bada, geure bizi bakar ezin-berrituzkoa galbidean jarri ez ezik, galdu ere egingo dugu ezinbestean zori gaiztoa onarturik [elementu tragikoa], aurrekoengandik ondorengoengana doan «lokarri zaharra» eten ez dedin.

Beraz, «gure izatearen zatirik barrenena» hori da, horixe gaituzu. Eta «eginahalak egin arren, ezin inork bere burua bestetan bihurtu, ez eta zeharo besterik beregana». Luis Mitxelenak bestetan ere sarri agertu duen ideia hau, *Unamuno ta Abendats*-en ardatza bera da: gu, gu geu gara, gu geu izan nahi dugu («gu auxe! gerauxe!»), ez dugu nahi beste inoren nortasuna, hori gu geu hiltzea litzateke eta, gudan beste bat bizitzeko. Eta gure gu haxe garelako eta beste ezer ez, gu haxe izan nahi dugu - h.d., soil eta simple, izan, nahi dugu: izan. Gauza bat eta bera bait da geu izan ala soil izan; besteren bat izan eta gu geu hil. Eta horregatik, hiltzeko ere pronto geundeke «aurrekoengandik ondorengoengana doan *lokarri zaharra* eten ez dedin»... «Il naiago dot» erromantikoaren bersio arrazional, behintzat arrazonatu, bat; «lokarri zaharra»-k aberria zer den definizio moduan balio lizeaigukeen eran¹. Begira, bada, euskal literaturaren etorkizunaz hasi eta nondik norako bideak daramatzagun... Izan ere, garai bakoitzak bere bideak.

¹ Aipaturiko ebidentzia moralen mailan badago hemen puntu seinagarri bat. Zergatik abertzale, edo zertarako euskaldun, hauzietan, arrazoi-pide hori sarri aurkitzen da: euskaldunak garelako eta, garenak garenaz, garena izateko.

L. Mitxelenak espreski destakatzen du responsabilitate alderdia, oinarritzkoa planteamoldie honetan, esan dugunez:

Paulo Apostoluaren hitzak datoz gogora: «Haur nintze-nean, haurrari dagokionez hitz egin, haurrari dagokionez uste, haurrari dagokionez asmatzen nuen. Gizondu orduko, berriz, haurkeriak utzi ditut». Haur ginelarik, geuron bizitza bestek zuzentzen zuen; etxea jasotzeko kezkakizunik ez genduen. Zama astun hori gurasoek zeramaten bizkarrean. Gero, berriz, gure gain hartu behar izan dugu. Euskal literaturari eta euskararen biziari buruz horixe ikas dezagun eta, ikastea nahikoa ez delarik, buru-bihotzetan josi: lan nekagarri hori, ia ezin jaso ahaleko zama astun hori gure gain dagoela, ez duela bestek egingo, ez digula inork eramango. Eta aski murriztua eta erdi-agorturik gureganaino heldu den hizkuntza aurrera ere biziko bada, gure eskuan dagoela ahalegitea, orain arte inoiz ez bezala. Eta horretarako nahi hutsa, ondore gabeko nahia, eragin-indarririk gabekoa, ez dela aski izango.

Baina itzul gaitezen elementu estoiko edo fatalista hartara, inportantea iruditzen bait zait, responsabilitatea zein radikal hartzen den, erakusteko. Ez da hori fatalismo sentimentalik. Aitzitik, konpromezu moralaren radikaltasunaz dago loturik. *Amor fati* eta *gizontasun*, elkarrekikoak dira. Berriz ere Luis Mitxelenak berak agertzen digu:

Jakin dezagun, bada, egiteko hau hartzen badugu, geure bizirako lana hartzen dugula. Aurrekoen ondarea, oinordeko garenez, dagoen dagoenean, gogo onez eta inork behartu gabe, geurez hartu behar. Negar alferrik eta errenkurarik gabe lanean iharduteko, urteek zarpildu-itzalia... lehengora ekarriko ez bagendu ere, halabehar gogorrak menderatuko bagintu ere [goragoko pasartean: *hala behar bada, ezinbestean, zori gaiz-*

Duda gabe, arrazoi *logikoa* azkenean horixe izango da. Baina arrazoi *soziologiko* bezala balio izateko (eta, beraz, *psikologikoki* halaber), aurretik gu zinez geu garena eta geu garen kontzientzia dugula eta geu izatea euskaldun izate bezala ulertzen dugula, ebidentzia moduan suposatzen da. Ni beti harritu nau suposamen horrek, hain zuzen euskal kontzientzia birrintzen eta iluntzen hainbeste enpeinatzen zen gizarte batetarako. Gutako askok, behintzat, «ebidentzia» hori ere bilatuz hasi behar izan du, 50.gn azken urteetan. Alegia, euskaldunak garena «deskubrituz» eta euskalduna izatea ikaragarri gauza lotsagarririk ez dela, etab.; eta espainol izatea ikaragarritzko beste munduko gloriarik ez, etab., berdin. Askoren «deskubrimenduok» egin beharrik eza, esplikagarri da; baina ez zait zaila iruditzen esplikatzea, beste ez gutiagok deskubrimendu horietzek egin behar izana, garai hartan, beste ezeren aurretik.

toa onartu, irakurtzen genituen]. Antzinakoen «amor fati» hura —kristauentzat Jaunaren borondatearen onartze humila— aldez aurretik ongi ikas dezagun.

Amor fati hori, Luis Mitxelena-aren lumari behin eta berriro darrion konzeptua da: horretara itzultzen da *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri sarreran (1957), berriro *Peru Leartzako*-ren iruzkinean (1960), berriro *Pro domo* sonatuan (1970) eta, espresio latinoa erabiliz ala gabe, edonontsu, euskal arazoaz diharduela. Gure eginbidea Mitxelena nola konzebitzen duen, ongienik berak adierazten du apika («...bere gizontasunari eustea duela gizonak lehen eginbidea») (Salbatorek *zintasuna* esango zukeen). Jakina, hori, gizontasunari eutsi beharra oso sentitu den garaikoa da. Eta hori, gizontasunari eutsi beharra, 40.gn eta 50.gn urteek aski esijitzen zioten euskaldunari. Garaian garaiko «seme jatorren» ahotik, garai bat mintzo da: hola edo hala, bakoitzak bere garaia eta bere esperentzia moldea berproduzitzen dizu.

Luis Mitxelena beti ere gure Ni-aren gutasunarekin josirik ikusten du *amor fati* hori. «Eta gurekin jaiotzen da —idazten du beste leku batetan—, gure aldiko seme jatorrak bagara, harako antzinakoen *amor fati* hura, gure denbora —gure sorterrria bezalaxe— beste edozein baino maiteago bihurtzen diguna. Gurea delako nonbait, guretarrekin itsatsirik gaudelako». Salbatorek, aldiz, ez du hain «gurekin jai» eta natural aurkitu. Salbatoreri «aberriak *min* dio». Haren baitan, *amor fati* hori, estoikoa baino, tragikoa da: «Milla bider lasaiago biziko ginan; ez ginan ain aguro gazteztartuko; erriz erri gabiltzala euskeraren atzerapenak aztertzean, ez genuen naigabea naigabearen gain pillatuko, baldin, biotzari beingoan tiro bat emanda, euskaltzaletasun ori utzi izan bagendu, zenbaitzuk, euskaltzale izenekoan artean bertan ere, egin duten bezela».

Luis Mitxelena-aren planteamoldean, badirudi, euskaldun naizenez gero, munduko gauzarik normalena euskaltzale eta abertzale izatea dela; anormala, ez izatea litzatekeela; eta abertzaleatasunak beste esplikaziorik ez daukala.

Salbatorek ez zuen ikusten, euskaldun izatetik euskaltzale eta abertzale izatera, hariak hain xuxen daramanik. Aitzitik, bere buruan ezagutzen zuen, dena utzi eta bakean bizi nahi izateko tentazioa (Luis Mitxelena sarri aipatzen duen ezin konprenituzko «tentazioa»). Are, tentazioan erorita ikusten du Euskal Herria: itxurakeria eta axalkeriatan galdurik¹. Euskaldunek ez dutela Euskal He-

¹ Ik. S. Mitxelena, *Idazlan Guztiak* I, 1977, XLIX, «Euskal arimaren etxeko etsaiak».

rria behar adina maite, iruditzen zaio. Euskal Herriak martiriak behar dituela, eta martiri gogorik ez dagoela (bere burua, ordea, martiri bezala edo, sentitzen zuen agian)... Horregatik, zer egin galderari, h.d., nola jokatu, agian ez bestelako arrazoipiderekin, baina bestelakoxe dramatismoarekin helduko dio Salvatorek.

Luis Mitxelenaren artikulu ezagun baten testu gainean ihardun gara, egungo irakurleak hor hobeto atzemango dituelakoan planteamolde honen karaktere nagusiak, Salvatoreren, erraz sinbolo huts bihur genitzakeen, burutapen eta irudipen erlijioso-teologikoetan baino. Halare planteamolde moral horixe berbera dago Salvatoreren obra guztiaren barnean, Gurutzebideetan radikalena.

Salvatorek —frailea ere bazen— historia *bokazio* bezala interpretatzen zuen, horrela ageri digu responsabilitatearen bere konzepzioa. Poeman zerua bera ari da deika Arantzazuko «zeru deiaren kanpaian»:

*Talan... talan...
Aloinaren maldan.
Zerua bera ari zan
deika kanpai artan.*

.....
*Talan... talan...
Aloinaren maldan.
Badaki Euskalerrik
ze eginkizun daukan.*

Gurutzebideetan Jesusek deitzen dio Euskal Herriari. Eta Euskal Herria, Jesusen deiari jarraiki:

*Gurutza lorrean, odola jarioz,
gizaldiz gizaldi zure lagun gatoz,
zure Nekaldia osatzeko gogoz.*

Salvatore, Luis Mitxelena bezala eta, nik uste, 50.gn urteotan arrunt gehienak bezala, euskarri moraletako planteamendu batetan oinarritzen da. *Gizontasunetik* partitzen da; erantzukizunetik. Nik neuk inportantetzat daukat puntu hau, azken finean bera iruditzen zait puntu erabakiorra, geroagokoekin diferentzia seinalatzekotan: responsabilitatearen arazorik ez dutela esan gabe, geroagokoen planteamoldeetan askoz gutiago azpimarkatu da behintzat alderdi hori, Krutwig, Txillardegia, etab., zer esanik ez Ortzi, Beltza, etab.-en idazkietan. Beste «ebidentzia» eta beste galdera batzuetatik partitu dira besteok. Borrokaren jarraipena teorizatzen dute; ez, hasiera oinarri-

tzen. Bestela esan: historiaren filosofia egiten dute lehenengo; ez, pertsonak historian dauzkan egitekoen edo patuaren filosofia.

Alabaina, planteamolde hau ez dago Orixerenaz berdintzerik eta ez nioke esango moralista, baina soil moral. Hain zuzen, planteamolde honen alderdi positibua derizat radikaltasun moral horri. Besteak beste —berriz gogoratu nahi dugu, Salvatore literatoa dela, ez filosofo— haren obrari erantsi dion dramatismoagatik. Gurutzebidea hor tinkatzen da. Bokazio bat da. Fatalismo tragiko batetarainoko radikaltasun moral horretan dago Joanes Nazarenao, San Agustinen *et ideo victor quia victima* haren antzera. Bestela, ez Salvatore eta ez Luis Mitxelena baitan daukagu Orixegan bezalako Euskal Herriaren erredukziorik baliogo moral soiletara (moralismo). Eta ekin-tza, gure obligazioak, non situatu jakin behar denez gero: historia —Galileiz gero, eman dezagun— gainbehera datorren ustea, ez da Mitxelenatarrontzat.

Aipatu ditugun Autoreok ez dira sistima konstruktoreak eta ez historiaren filosofiarik egiten inoiz espreski aritu izan direnak. Oharrok, bada, Autoreon posturetatik, pentsabide arrunt batzu nahi zizutzen argitara atera, ez haien sistima egin eta borobilik asmatu. Sistima itxura edo ematen badiegu, eskema beharrez izan da (eta, gainera, horien pentsabideak, konstrukzio sistimatikoak ez izan arren, sistima gabekoak ere ez dira). Eskema honetan, Salvatore, Orixe eta Mirande artean sartzen da. Hori ondo ikusten da nola jokatu arazoan («biolentziaren» arazoan, adbz.; edo hirurek azkeneko gerra nola epaitzen duten, etab.). Edo nola juzkatzen duten *antzinatea*: «Jentil Aroa».

Jentil Aroa

Orixek eta Mirandek elkarri buruz-buru egiten duten bi estremo horien artean dago Mitxelena, Salvatore, iragapide baten antzean. Bihotz torturatu hau, beti kezkatu, duda arantzetan beti federekin, ez abertzaletasunean eta ez fedean alderdi definitu garbi bat frontean artean hartzera ailegatu zena, postura definitibu bat segur aski ezin hartu zuena, kontserbakioa konprenitzen eta progresistarekin sentitzen zena, sinesgabea maite zuena eta sinesten setatzan zena, bai Orixerekin eta bai Miranderekin lot liteke (Salvatoreren postura, izan ere, ez da besteak eskluditzen dituen, beste edozein posturatara urbiltzen dena baino), biongandik da halare nahiko bestelakoa.

Orixeren pentsamentuan eta obran —logiko da— Jentil Aroak ez du aurkitzen beste lekurik, arras lekutu izanean ikusten duzuna baino.

Miranderenean, alderantziz, Jentil Aroaren inportantzia, nagusia da. Jentil aroa izan zen euskaldun jatorraren garaia: harrez gero gainbehera doa. Kristautasunak ez digu euskaldunaren izpiritu jatorra hondatu besterik egin: «euskaldun zaharren gogo basa, bortitz eta handia apaldu, ahuldu, hobeki erran irendu, zuen haren doktrinak; otso ginelarik, bildots egin gaitu...». Miranderentzat, sorginak, euskal fede jator dunak ziren; Basajauna, Mari, etab., euskal fede jatorraren hondarrak dira¹. Euskalduna berriz ere jentil bihurtuko dela, espero du Mirandek: hori, libre izateko ezezik, euskaldun izateko ere, behar-beharrezko omen bait dugu.

Salbatorerentzat, Jentil Aroa —eta, hau, Arantzazuko Ama Birjina 1469-an aurkitu arte luzatzen da— denbora beltza zen. Sorginak eta, kalamitate bat gehiago. «Ba al ziteken bizimodu negargarriagorik uaxe baino? Jaungoikoak bere eskutik utzita ote zeukan, ba, gure lurra?»¹. Baina Salbatorek eman dion tratamendua Jentil Aroari, interesgarri da, haren histori konzepzioa ezagutzeko. Jentil Aroa, Salbatorerentzat, ilunbe aro da, baina argitara doana, errores. Historia ibiltzea da. Miranderentzat Jentil Aroa gailur historiko garbi bat baldin bada, gero behera jausteko, Mitxelenarentzat justu aldrebek da: beheko zulo, XVI.gn mendetik aurrera gorantz joateko gailurreraino (eta XIX.gn mendean berriro gainbehera sartzeko).

Dinamikoa da, galanta, Poeman Salbatorek ageri digun ikusmira historikoa: «Jentil Aro gaixoa» bidazti dator, ilunpetan intziriz, aldapa gora, «norabaita irtetzeko antsi-ametsetan». Jentil Aroa «erromesbide luzea» da, adbentu (abendu). Eta iluntasunaren barruenetik kanpai bat entzuten da:

*Talan... talan...
Aloinaren maldan,
antzina zaararen
altzo-altzotikan.*

Zeru deia da. Kanpaiak «aro berri argi bat / albistatzen zuan». (Eta bere obra guztian, holako kanpai bat edo izan nahi luke Salbatorek). Mitxelenarentzat, Ama Birjinaren agerpena «gure kondairaren egunsentia» izango da. Garai argi honen kontrastean azalduko da Jentil Aroa, azaldu ere:

¹ Ik., adbz., *Sanguis Martyrum* poesia, in *Orhoituz*, 1976, 101.

¹ S. Mitxelena, *Ama Semeak*, 1951, 38.

*Jentil Aroko atzea,
erromesbide luzea.
Erromesbide luzean gora
bidazti, euskal Fedea.
Jentilletako artikeritan
utzi zizun ibarbea.*

.....
*Oi Abenduko intziria,
intziri penagarria!
Grina ezikaitzok menderatzera
eldu zaitea Mesia!
Anaitzarako Mesia eta
amatarako Maria.*

Historia: drama bat

Agian, historiaren filosofiarik baino gehiago, Mitxelenarena, interpretazio poetikoa da eta, zehazkiago, iruditapen prometeiko, dramatikoa. Jaiki-erori, jaiki-erori, doa historia; edo, hobe, historian Euskal Herria. Nazional-katolizismorik edo baino sakonkiago, Mitxelenaren histori burutaeran horixe dago: esistentzialismo agustin-dar dramatiko, borrokari bat, etsi ezin duena, norabait irten nahita, ez ikusi arren nora (ikusi ere, urteotan ez bait da ikusten irtenbiderik, derrotaren azpian):

*Arbidearen luzea!
Jun bearraren nekea!
Gaitzena, alare, joan ta joan
ta azkena ez ikustea.*

Horrelaxe ikusten zuen 40.gn eta 50.gn urteotan Salbatorek Euskal Herria. «Jentil aro» ilunbetsu batetan bezala, argiaren (Amaren) bila... Eta Salbatorek, «badator zure Garaia» kantatzen zion, indarrik emateko.

Irudi bikainetan azaldu digu Salbatorek bere ikuspidea. Haren obrarik inportanteenek ez dute horixe besterik egiten: mila eratan ikuspide hau jantzi, alegia; esan dezagun, alegoria diferenteekin bildu oinarrizko pentsamentua. Horrela, Salbatorek, irudi guztiz dinamikoetan espresatu du euskal historia, gurutzebide bezala; edo bide urratze bezala mendia gora, edo elizaren behin eta berriro erretze eta berreraikitze bezala... Haren obra guztiek horixe dute funtsa.

Eta, esan beharrik apenas dagoke, joatearen jomuga bezala beti askatasuna ikusten da, hitz batekin ala besterekin esan. Haren baitan, egia, santutasuna, bizkundera, argia, bizitza, Ama Birjina, etab., etab., konzeptu multzo bat dira, guztiok Mitxelenak nola erlazionatzen eta elkarrekikopetzen dituen, ikusten badugu, azkenean denak ez direla askatasuna, edo Euskal Herriaren bizitza, besterik, esan bait genezake. Sinonimotsu. Hau, eta holakoak, Autore euskaldunetan, uste dut beste inongoetan ez bezala nabaritzen dugula. Zaila ez da esplikatzeari zergatik. Baina beti ere ohargarriak dira konzeptuek hartzen dituzten kontestuak eta lagunak. Hala sortzen diren multzoak. XIX.gn mendeaz gero gutienez, holako multzo batzu badauzkagu tingo gure literaturan, hain zuzen askatasun konzeptuaren inguru.

Mitxelenaren joerarekin gauzak prozesuan, borrokan, ikusteko eta gaiari balio eta adiera sinbolikoak itsasteko, baina, batez ere, denean eta beti bere kezka nagusiak isurtzeko, ez da harritzekoa. Jentil aroaren egin digun azalpena edo poemaren lehen atala euskal historiaren somario modukoa bada. Paradigma bat. Mitxelenaren histori konzepzio formala betetzen dizuten funtsean terminu denak aurkitzen dituzu hor: ilunpe / izar, aldapa gora / gailur, kate, menpetasan / askatasun, lehorte / euri¹, erretze / ermitagintza...

Baina poemak, Intxaustik seinatu zuen bezala, Arantzazu behin eta berriro erre eta berreginaren elizagintza moduan azaltzen du batez ere euskal historia:

*Bost gizaldiko euskal egintza...
lau aldiz erre-ala eliza
berriz ereikiz ostera.
Berriz ta berriz jasoko ere
baldin lengoak bagera¹.*

*Etengabeko ermitagintzan
euskal Eliza ari degu.
Bizi artean, ondo dakigu,
orrek bukatzerik ez du.*

.....
*Elizagintza
gure Edestiak elburu.*

¹ Salbatoreren poeman ere bada lehorte/euri kapitulu bat, errogatiba, mirarizko euri eta guzti, Orixeren poeman bezalaxe. Bion konparazio batek erakusten du, zein, bai konzepzio eta bai modu, diferenteak daramatzaten Orixek eta Salbatorek.

¹ Nork bere balioa baloratzeko modu tradizionalista tipikoa —lehenagokoak neurri direla—, Salbatorek, halare, erromantzerotik daukana.

Konzeptzio honen alderdi politikoa, hots, abertzalea —ez da bakarra noski, badaude gainera teologikoa, poetikoa, etab.— *Pakea* 9.gn kantan nabaritzen da ederki. Kanta honen gaia, Oinatiko herriak, Ama Birjinen irudiak Arantzazu mendian ala Oinatiko kalean egon behar zuen, Jaun Kontearekin izandako gorabeherak, dira. Baina «jauntxopetik askatutako beste uri askoren jabetasunari gorazarre bat izan nai dizu» halaber, Salvatorek espreski dioenez. Erdia bakarrik dugu hori, halare. Borroka hau, hemen azaltzen zaiguna, funtsean XX.gn mendeko euskaldunon borroka bait da XV.gn mendean: herriaren askatasun borroka da, bere buruaz jabe eta nagusitzeko («orainarteko kateak austen!»); etsaia, Oinatiko Jaun Konte Inigo Velez Gebarakoa, kuriosoki, «*erbeste-otso maltzurra*» bezala kalifikaturik dator... Abertzaleen ideologia aristo-demokratikoa («zaldunok gaituk gu ere... Euskalerriko odolgarbiko aitunen seme»), nazio konzientziatzko «Zazpiak bat» mugimendua («Zazpi aizpatxo» kantatik beste hartaraino: «Zazpi erkiok anai gerantentz, ez galde beste ezeri: Arantzazuko bideak daki, erri bat dala Euskalerrri»), euskal batasunaren preokupazioa, Mitxelenaren etengabekoa («Ez Gangoarrik, ez Oinaztarrik, zugar danok BAT gaituzu»)..., oraingo problemak eta kezkek eta ikuspideak biltzen dira, XV.gn mendera proiektaturik.

Mitxelena, izan ere, ez da kondairagile bat, epiko bat ere apenas, baina poeta dramatikoa. Haren obran, euskaldunak, espilu batetan bezala aurkitzen du bere burua historian, oraingoxe bere arazo gutiekin. Mitxelenak ez du iraganaldia kantatzen; oraina kantatzen du. Oraingo euskaldunari nahi dio bere egoera argitu. Eta, euskaldun hori, XV.gn mendeko borroka batetan, edo gurutzebidean, edo bide urratzen, edo gau bijilian, edo ermitagintzan..., ipiten dizu: beti bera da, pertsonaia berbera. Mitxelenaren pertsonaiak eta situazioak ez dira holako pertsonaiarik eta zituaziorik. «Euskal Herriaren patua» direla, esango genuke. Butron, Muxika, Loiola, Aiala, Abendaño..., Ahaide Nagusi dira; baina dira, karlista eta liberal ere bai, eta gudari eta reketek ere bai. Eta Inigo Velez Gebarakoa, Oinatar Konte da, baina Espartero da orobat, eta Franco da. Funtsean, erreberitzen doan historia bera. Euskal Herria eta bere etsaia, Salvatorek daukan dena horixe da.

Bakarrik, fraile honek, etsaia beltzago pintatu ezinik, bel-beltz, Euskal Herriaren patua pintatu duela. Etsaia, Mitxelenaren obran, beti presente dagoen ausente bat da, atentzio ematen du. Nik ez dut uste, hori zentsuragatik bakarrik zenik.

«Nazional-katolizismo» omen delakoaz

«Nazional-katolizismo» delako horren problema, 36-ko gerraren inguruan planteatzen zaigu batez ere, nahiz eta, egon, berdintsu dagoen lehenago ere, karlistadetan edo Arana Goiri baitan esate baterako. Hemen Salbatoregana mugatzen gara.

Erljioa, 50.gn urteotan, euskaldunak beren historia eta ataka konprenitzera ailegatzeko ezinbestezko erreferentzia bezala ageri zaigu. Beraz, goiko hiru filosofien arabera, euskaltasun/kristautasun gorabeheran hiru postura berez genezake berriro: kristautasunari zeharo eta erabat eta bere horretantxe baitesten dion Orixeren buruzburu (1), euskaltasunarekin elkartzenezkotzat jotzen duen eta zeharo zapuzten duen Mirande daukagu (2): lehenengoak zeharo baitesten, bigarrenak zeharo ezesten dizute kristautasuna. Mitxelena, hein honetan, bion artean baino gehiago —erlijioari baitetsiz bada ere— beste majla batetan ageri zaigu: Salbatore ez dabil erlijioari baitetsi/ezetsi alternatibaren planteamailan (orain, guretzat, erlijioari ezestea ala baitestea euskal historiaren filosofiako kapitulurik ez den bezala).

Beraz, beti erremisio gabeko alternatiba batetara doazkigu lehenengo bi postura kontrarioen soluzioak:

- euskaldun jator izaterik ez dago, kristau izan gabe («euskaldun fededun»)
- euskaldun jator izaterik ez dago, kristau izanez gero (Mirande, etab.).

Salbatorek ez du onartzen alternatiba hori (espreski deklaratuko du, gaurko Euskal Herria «katolikuek eta bestelakoek» osatzen dutela: «zuri ta gorri ta beltzok». Deklarazio horrekin hasten da eta bukatzen da *Unamuno ta Abendats*).

Euskalduntasun/kristautasun binomioa era bitan atera daiteke planteamolde alternatibu horretatik:

- era bat Txillardegirena da: biak banatzea. Euskalduntasunari planteamolde «errealista» bat egingo zaio, soil politikoa; ez, morala edo etikoa. Kristautasuna, esango da bestalde, «munduarekiko hutsegitea» da; «mundutarren ktramillez eta nahikundeez ez zipitzik ere axolatzea»¹. Beraz,

¹ Ik. «Kristautasuna eta mundutar garaitzapena», in *Huntaz eta Hartaz*, 1965, 7-16. Txillardegi, bere perspektibatik, radikalki ukakor da kristautasunaren aplikagarritasunaz politikan edo sozial arazoan (honek berdintsu balio du, kristau tankerako idealak —askatasun, justizia, anaitasun, maitasun— obratu nahi lituzketen asmo erlijioso nahiz iraultzaile guztiez, ik. *Elsa Scheelen*, KRISELU 1969, kap. XVII eta XVIII. gnak. «Munduak ez du soluziorik!»). «Estrukturak, legeak, kristautu behar dira, esan dute beti eskuindar kristauak: Cesareako Eusebiogandik hasi, eta Constantinok, Charlemagnek, Felipe II

mundugintzan kristautasuna alde bat uzten da. Gero joera hau oso zabaldu da (diferentzia inportante batekin, halaxe: Txillardegik, oraindik, kezka betetik aurkitzen dugu, zer den kristautasuna, gizona, tranzendentzia, etab.; gero problematika horrek denak ahaztua dirudi). Eta gaur, planteamolde politiko edo sozialetan —kristauek berek egine-

Espainiakoak, Ottavianik eta Opus Deikoek. Halere, Jesukristok ez zuen bere aroan ezertxo ere egin erromatarren gobernu *kristautzeko*, edo esklabogoa kentzeko... Kristautasuna lege billakutzen danean, Erlijioa Politika billakutzen da ere; eta pekatua ez da Ifernuan ordaintzen, erresumako gartzelan baizik» (in *Huntaz eta Hartaz*, or. 14). «Munduan garaitu nahi ez izatea: horra hor, beraz, kristau modura pentsatuz, nahitazeko bidea, nik uste» (or. 15). «Egiazko kristauak ezaxola izan behar du munduarekiko, antsigabeki begiratu behar ditu munduko itxaropenak» (id.). «Esan ditekete, beraz, kristautasuna, jatorriz eta pentsaeraz, Asiako dala. Munduan sinistu, ala mundua ukatu: horra hor benetako banaketa eta benetako muga» (or. 16). Artikulu honetako zenbait pasarte, zuzenean *Unamuno ta Abendats*-eko 29 eta 30.gn kapituluena kontra idatziak izan zitezkeen. Bestetan ere azaldu izan ditu Txillardegik bere ikuspideok, ik J. Azurmendi, *Leturia ta Txillardegik Jainkoaren bila*, JAKIN 20 (1965) 38-46; *Erlijioa Hauzipean*, JAKIN Sorta 5 (1971) 207 eta hur.; *Marx eta Jesus European*, JAKIN Sorta 10 (1975) 16-17. Txillardegik, agi denean, antitesian edo antinomiatan pentsatzen du, dualismo arriskutsu batetan konstante, sintesiak bilatzeko preokupaziorik batere gabe. Fedea eta politika bezala, antinomiatan ikusten ditu orobat intelektualak eta ekintza-gizonak (ik. titulu horretako saioa, aip. lib., or. 41-48), artistak eta zientifikoak (or. 85-90), zibilizazioa eta sagaratuaren sena (or. 105-106), etab. Funtsean gizaki norbanakoa, bere problema pertsonal larriekin eta gizaki publikoa, bere responsabilitate sozial eta politikoarekin, ebaki eta banatu egiten dituela, ematen du, alde banatara: hor gizabanakoa: barneko bere tranzendentzi problema, absolutu egarri, kristautasun edo budismo etab. guztiekin, —horren heinean munduak ez bait dirudi «gaitz» bat besterik («Ni behintzat, gure arteko munduan garaitu-nahiak eta teknikeriaren izarritak biguindurik...», aip. lib. or. 16; «gure zibilizazio hunen alde jokatzeari, esate baterako, eskuindartasun-seinale iruditzen zait neri», or. 41, etc. etc); hemen gizaki publikoa: responsable, aspergabe justziaren eta askatasunaren alde borrokan, —heine honetan mundua gizonak landu beharrezko barrutia da. (Badirudi Txillardegik bere bizitzan alderdi honi, bere obra literarian lehenengoari, darraikiola!). Duda gabe, gizonak bere historia guztian erakusten digun barne teinka larri hori, ederki dokumentatu du Txillardegik; teinka hori bezain konstante ageri da, ordea, gizonaren historia guztian, sintesia bilatzeko enpeina ere, azken sintesi definitibu, behin betikorik, ezin asmatu arren. Kristaua da, Txillardegiri gizonaren barneko teinka eta zarrasta ukatuko dion azkena. Baina zer egiten du Txillardegik? Ez bakarrik kristautasuna bitzita publikotik —barnetasunera edo— desterratu; baina, azkenean, teinka hura bera eliminatzen du gizonaren bihotzetik: teinkarik ez bait dago iadanik, ez mundutasunari arras uko egitea lortu duenaren «nirwanan» eta ez gorabeheraon kezka batere gabe politika «errealista» soil dagienaren positibismo garbian. Teinkada, mundu bien artean nolabait konpondu beharrak sortzen du hain zuzen. Beraz, nire ustez, Txillardegiren soluzioa ez datza problema soluzionatzean, eliminatzean baino, «bi munduak» elkarrekin ikuskizunik ez balute bezala planteatuz.

tan ere— apenas aurkitzen da inon kontsideramendu kristaurik.

- bestelakoa da Salbatoreren bidea: Salbatorek ez du esango euskaldunak derrigor kristau behar dizunik. Baina aberzale eta kristau bezala, euskal historia eta Euskal Herriaren egoera kristaui konprenitzen eta adierazten saiatuko da. Bere abertzaletasunaren eta kristautasunaren artean sintesi bat bilatzen du.

Bilatu —eta aurkitu. Orain, Salbatorek aurkitu eta guri eman diguna —esan dugu, propioki filosoforik ez dela— sintesi poetiko bat da: poeman edo *Erri bat Guruzbidean*-en daukagun horixe hain zuzen. Kristautasun responsable bat historian, politikan: hori da sintesiaren ardatza. Ez dugu esango, bide problematikoa ez dela. Beti ere jokoan dabilta, batetik nola politika ulertu eta bestetik nola kristautasuna ulertu, biotan ere posibilitate eta aldakortasun asko kabitzen bait da. Baina, problematikotasuna, Salbatoreren garaian baino hobeto, gero ikusi da. 1967-an Rikardo Arregik *Euskaltzaileen Jainkoa hil bear dugu* hotsegin zuenean, esate baterako. Edo gero ikusi dugunean, mugimendu katoliko gehienek eman duten resultadua —HOAC, JOC, Herri Gaztedi, etab.— kristautasun sozialki eta politikoki responsable bat praksira zinez eramaten ahalak egin eta lehert egin ondoren.

Argitasuntxo batzuk, hemen biderdian: duda gabe, poematik (1949) *Unamuno ta Abendats*-era (1955), eboluziorik nabari da. Poemak, obraren karaktereagatik ere apika, euskaldunaren haunditasuna fedean ikusten du: oraindik ez da ikusten, «euskaldun fededun» binomioa problematizatu denik.

Bigarren. Autoreen artean —aldi historikoen artean berdin—, ideien aurrerabidea ez da izan ohi antinomia sinplezkoa edo bata besteren desarroilo hutsezkoa, nahasi eta txit konplesoa baino. Hemen antinomia moduan presentatzen ditugunak, hortakoz (Orixe - Mirande, etab.), ez dira antinomia hutsak. Konparatzen baditugu orain Txillardegiren eta Salbatoreren moduak, biok beren aurreko alternatibarekin (Orixe/Mirande, alegia) erlazionatuz, bi eskema ezberdin atera genezake, segun zein perspektiba hautatu:

- Orixeren eta Mirandèren aldean, bai Salbatore eta bai Txillardegi, alternatiba hartatik kanpora irtenda ikusten ditugu iadanik. Perspektiba honetan, alde batetan Orixe eta Mirande elkarrekin ezar genitzake, bestean Salbatore eta Txillardegi elkarrekin.

- Beste perspektiba batetan, ordea, Txillardegik, agian ez Mirandek bezala-*koa*, alegia, ez printzipiozkoa, baina praktisako eta de fakto, Mirandek beza-*laxe*, antitesi bat sortzen digu kristautasun eta borroka abertzale artean: euskalduna izan daiteke kristau, baina kristau den aldetik ez dauka «mundutar garaitzapena» bilatzerik. Eta Salvatorek, ez Orixek bezalakoa, baina harek bezalaxe, euskalduntasunaren eta kristautasunaren sintesi bat bilatzen du praktisian.

Beraz, perspektibak gurutzatu egiten dira. Haustura/jarraitasun erlaziokera konplexo batetan ikusten ditugu ondokoak aurrekoekin. Eten *nabi* izanda ere ez bait da hain erraz etetzen, kultur desarroiloan, ideien desarroiloan orain, «aurrekoengandik ondorengoengana doan *lokarri zaharra*». Salvatorek, bada, de fakto fededun den euskaldunaren histori konzepzio bat desarroilatu digu, bere responsabilitatea, euskaldunarena bezala kristauarena, sintesi batetan bilduz.

Eskua erre izan duen umea, kontuz inguratzen da labe ondora, esan ohi da. Eta guk eskua ondotoxo erre dugu, euskaldunaren eta kristauaren responsabilitateak elkartze asmo horietan. Beraz, harritu, ez gaitu harritzen, honez gero, kristauak berek ere, politikan dabilzanean, beren kristautasunarekin ez kontatzea ezertarako (ez bait dakite nola harekin kontaktu) eta beren kristautasunaz isil-siltzea. Bi mundu bezala dira, kristautasuna eta politika, bata besterekin zerikusirik ez balute bezala gure barruan. Konprenigarri da gure esperentziarekin. Baina soluziorik ez da. Halare, ez gara orain hasiko gauzaok eztabaidatzen, edo Liberazio Teologia eta, gogoratzen... Bakarrik, garbi utzi beharra dago hori, bere fedea eta bere konpromezu sozialak eta politikoak hola edo hala konzertatzea, beti ere eginkizun eta eginbehar itzuri ezina dela eta izango dela kristauarentzat: erlazioren bat egon behar du giza historiaren eta «salbazio historiarren» artean, eskizofrenikoak ez bagara.

Nolakoa, ordea? Koxka hor zegok... Holakoetan, eta aspaldidantik, eta ez Euskal Herrian bakarrik, berriz ere bi joera berez genezake - eta pentsamentuaren historian dualismoa benetakoa dela, egizatzen dugu: gerra ondoko eztabaida teologikoetan erabiltzen zen terminologiara itzuliz, joera tranzendentalista eta inkarnazionista deituko ditugu. Orduan, historiaren teologia zeritzana abiatu zenean hain zuzen, bi joera horik agertu bait ziren elkarren lehian.

- Joera tranzendentalista (eskatologiko ere deitua), Barth protestantearen eta Bouyer, J. Daniélou eta von Balthasar katolikoen segimenean desarroilatua, Rikardo Arregiren *Eus-*

kaltzaleen Jainkoa hil behar dugu (1967) artikulua sonatzen aurkitzen dugu Euskal Herrian, esate baterako: mundu eta Jainkoaren erreinu artean ez dago kontinuitaterik. Mundua «kondenaturik» dago; Jainkoaren erreinua «arras bestelakoa» da. Hori da joera honek etengabe markatuko eta azpimarkatuko eta erremarkatuko duena. Rikardo zenaren artikulua, azken finean, Jainkoaren tranzendentziaren defentsa «esasperatu» bat da. Euskaltzaleen Jainkoa, salatu du Rikardok, «Jainko domestikatu bat» da: «gure joeraren defentsarako Jainkoa», «gure asmoetarako egokia zen Jainko bat», etc. «Jainkoa domestikatu egin dugu. Tranzendentzi dena bertakotu. Gure situazioa lotu». Hori, Jainko hori, «zulotapatzaile» bat eta «idolo» bat dela, insistatuko du Rikardok. Baina «Bibliako Jainkoa esker hutsa da, grazi hutsa, debaldekoa. Ez du ezertarako balio. Bere utilidadea ez da neur daitekeena. Ez du utilidaderik. Ez da mundua esplikatzeke tresna bat. Jainkoagatik bakarrik sinsten da Jainkoa. Ez da moralaren sustrai bat emateko, inestigazioak aurkitu ez dituztenak esplikatzekeoa. Hone-lako fedea gizonaren kontrakoa litzateke eta biraoa: mythologia, magia, etab.»¹.

¹ Ik. *Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu*, in *Rikardo Arregi*, JAKIN Sorta 3 (1971) 127. Gogora dezagun, artikulua hau, inkarnazionismoaren aurka ez —Txillardegik halaxe egingo bait du: ik. Larresoro, *Zalantzan dagoen apaiz horri*, in *Erlifjoa Hauzipean*, JAKIN Sorta 5 (1971) 209-215— baina tradizioa eta lehena Jainkoarekin identifikatzen dituen fede moduaren aurka zihoala: h.d., dagoena, Jainkoak bere goian horrelaxe nahita, ondo dagoela, irakasten zuen beste tranzendentalismo (kontserbakoi) baten aurka. Alegia, «euskaldun fededun» ideologiako Jainko kontserbatzailearen aurka. «Euskaldunak geran galdetzerakoan —holaxe laburbiltzen du Rikardok teologia edo-euskal historiaren filosofia teologiko hura—, Jainkoak horrela nahi izandu duelako, erantzungo da. Ta Jainkoaren nahi hori betetzea besterik ez zaigu tokatzen. Munduan ordena bat jarria dago. Ordena hori Jainkoak jarri du. Ordena horren barruan jarria dago euskaldunak eta euskaldun gizartea diren bezalakoak izatea» (or. 121-122). Beraz, Rikardok, tranzendentalismo hertsia, tradizional, «situazioa lotu» bati, tranzendentalismo bibliko ireki, «erreboltatu» bat kontrajartzen dio, «euskal gizonaren alde, bere liberazioaren alde». Hemengo bi polo kontrarioak, hortakoz, kontserbakoi/liberatazile dira; ez, tranzendentzia/inkarnazio. Aitzitik, Rikardoren gogoeta guztiak, inkarnazionistek bezalaxe, kristautasunaren konpromezu sozial liberatazile bat esijitzera jotzen dute. Txillardegirenak, aldiz, mundua bere zorteari abandonatzera eta sagaratuaren munduan «isiltzera» jotzen du: «ala konkordismoak utz eta uztazu dena». Esan nahi bait da, tranzendentalisten artean ere bi joera berez genezakeela (dualismo bat gehiago!); hemen tranzendentalista bezala hartzen ditugunen artean, badaudela oso joera diferenteak. Eskema guztiak bezala, tranzendentalista/inkarnazionista-k bereziten dituen hori, eskema bat da, askoz konpluesuago den errealitatea, desfiguratu samar jasotzen duena.

Harritzeko samarrik bada, baina Rikardok ageri duen joera tranzendentalistak, bere aurretik, euskal letra modernuetako Autore inportanteenetako bi har dezake aitzindari edo lagun gisa: alegia, Mirande eta Txillardegi, garai honetako Autore ez-kristau destakatuena, halafede! Biok, oso guti bezala enplegatu bait dira, tranzendentziaren defentsan (biona tranzendentzia diferentea izan arren) eta giza esperentzia arruntetako mundu ikuskizun hutsarekin konformatu nahi luketenen aurka... Gero biziki indartu da joera hori Euskal Herriko teologo «berrien» artean (Eusebio Osa? Joseba Arregi?, etab., aipa litezke, agian), teologia protestantearen —bereziki barthianoaren— eragintzaz (Bonhoeffer, von Balthasar, etc.), mugimendu bibliazalearen arrakastaz, Eliz estudio historikoen indarberritzez, etab. Baina: fededunek desarroilatzen duten tranzendentismo honen, hain zuzen konpromezu sozial radikal bat bilatzen du (beraz, praksian, «inkarnazioa»); eta, bigarren, Jaungoikoa *status quo*-aren legitimazio bihurtzen zuen tranzendentismoaren aurka, amorru guztiarekin eraso dio.

Joera honen merezimendu haundia, Jainkoaren eta munduaren nahasketa salatzea izan da, nahasketa hori beti munduaren zegoen zegoenean kontserbatzeko aprobetxatzen zen garai batetan. «Nazional-katolizismoan» dagoen erlijio eta politika nahasketa zorrozki salatu du hortakoz.

Ezin esan genezake, halare, joera honek abantaila denak dituenik eta abantailak besterik ez. Hasteko, desabantaila ez ttipi bat, praktikoa lehenik, Euskal Herrian eta katolizismoan (eskola mistikoetan izan ezik) oinarririk eta tradizioz gabe tradizio batetan oin hartzea, iruditzen zait: printzipio protestanteetan (nahiz eta, kasuren batetan, beharbada Eusebio Osarenean esate baterako, kontinuitaterik hauteman daitekeen, San Agustinen tradizioz tranzendentismo barthiano-bonhoefferianora): esaldi xokante bat izatea aparte, euskal irakurleriarentzat zein esanahi har ote dezake, kristautasuna ez dela erlijiorik, baina fedea, esateak, etc?; eta, gero, hau printzipiozkoa, salbazio historia eta giza historia artean erlaziorik seinaltatzeko zailtasuna: Jaungoikoa eta mundua, errebelazioa eta arrazoi-mena, grazia eta natura, historia eta Jainkoaren erreinu, etab., betiko bi poloak, batak besterekin zerikusirik ez izateraino urruntzen dira lehenengo (*solus Deus, sola gratia, sola scriptura*, printzipio protestanteak), gero ez bait da ikusten, nondik nora sortzen den «lortura», holakorik baldin badago. Arrazoi guztiarekin, Jaungoikoa «grazia huts» dela, azpimarkatuko da; naturaz gaindikoa eta historiaz gaindikoa, etc. Baina arriskua dago, fededuna, fededun aldetik, arrazoimenarekin, historiarekin eta munduarekin zer eginik batere gabe

uzteko, zerura begira. Horrela, Jaungoikoa, graziazkoa ez, baino alfer-alferrikakoa bihurtzen bait da. Esan ere, holaxe esango digute barthianoek. Jaungoikoak «ez du utilidaderik», esan digu Rikardok.

Gizonak, ordea, erabili egiten du Jainkoa, «utilidaderik ez du»-ela esateko erabiltzen duenean ere. Hori da komeria. Jainkoaz mintzo diren guztiak, arras bestelakoa dela esateko mintzo izan direnak ere, giza moduan mintzo izan dira, beste erremediorik ez dago eta gizonarentzat. Nahi badu eta ez, Jaungoikoaz ari dela, gizonak idolo bat egiten du, irudizkoa ala gabekoa; onenean ere, idoloa ukatu egiten du: idolo batekin enplegatzen da orduan ere. Gizonak ez du horixe besterik egiten: idoloak. Politago ala itsusiagoak, baina beti «gure situaziora lotuak». Beraz, ni neu behintzat, aitortzen dut, nahiko pagano sentitzen naiz behar ez dudan Jainkorik behar ez izateko eta nahi ez dudan Jainkorik nahi ez izateko, h.d. «utilidaderik ez duen» Jainkoa inutila dela esateko. Batak bezain ongi —edo gaizki— adierazten du besteak, zer dugun Jaungoikoa. Horregatik, joera tranzendentalista bezain legitimoa da inkarnazionista. Eta biak ez dira aprosimazio saioak besterik. Azkenean, bada, eskandalagarria badirudi ere, idoloak desegitea bezain legitimo da egitea.

- Joera inkarnazionistan, Y. Congar, G. Thils, Montuclard, batez ere Teilhard de Chardin eta Rahner, Humanismo Integraleko Maritain eta Mounier pertsonalista, etc. aurkitzen ditugu: Jainkoaren parean naturari, gaitzeritiz ez, baino Jainkoaren obra eta grazia eritiz, kreazioaren eta salbazioaren arteko «hausturan jarraitasuna» aurkitzen du giza historia eta salbazio historia artean (hots, kultura eta fede artean, etab., dualismoaren kate guztian). Historia da, non gertatzen den errebelazioa: ez haren leku soil, baizik eta errebelazioaren mamia bera bilakatzen da horrela historia, fededunarentzat historiak sentido hori hartzen duenez gero. Mundu guztia Israel da.

Orain, berriro, euskal egoerari teologia bat atera nahi lioketenek —eta guti dira horiek, gehienak beldur edo bait dira— bide inkarnazionista hori entseiatzen dutela, ikusten dut. Adbz., Paulo Agirrebaltategik; ik. haren *Configuración eclesial de las culturas* bikaina eta azken urteotan euskal teologia batetaz publikatzen ari den artikulu saila.

Salvatore —esan beharra dago berriro— ez zen pentsatzaile sistimatiko bat eta, horrela, justu-justu ez du errepresentatzen «eskola»-rik. Haren pentsamendua sistema batetara itzultzeak —Miran-derekin berdintsu gertatzen da; agian literako guztiekin— badu fan-

tasma ideologiko bat asmatze itxura zerbait. Halare, inon ezartzekotan, inkarnazionista artean ezarri behar.

Mitxelenarentzat, erlijioa ez da euskal historian edo haren bidez baitestera edo ezestera goazen tesirik, Euskal Herriaren «gainetik», aparte; historia ez da *ancilla theologiae*-ren bat. Euskalduntasuna ez da derrigor kristautasunarekin edo ezarekin batera planteatzen eta erabakitzen.

Baina Mitxelenarentzat, fededuna bait da euskaldun hau, euskal historia eta fede historia, gauza berbera da. Alegia, *da*, de fakto: historia zer den, galdera, galdegilearen posiziotik bait dago (sentidoaren maila honetan), kasu honetan fededun galdegilearen posiziotik. Salbatorek sentido bat bilatzen dio euskal historiari: euskaldun bezala eta fededun bezala. Eta biok, euskalduna eta fededuna, ez bait dira bi, baina bat, euskal historia eta fede historia ere bat bilakatzen dira, sentidoaren mailan, harentzat. Ez, sinbolismoetan bakarrik (baina bai horretarainoxe: «zazpi aizpatxo dira euskaldun birjinak»...), historiaren funts prometeikoan bertan baizik. Mitxelenarentzat, izan ere, Orixerentzat ez bezala, erlijioa ere historia da; eta historia bera, ez da, Miranderentzat bezala, indar borroka bate-tako barruti soil, moralki neutral bezalakoa, moralarekin ikuskizunik gabe, baizik eta helburu batzuetara erromesbidea, historia oro teologiko. Historia oro erlijioso da eta erlijioa historia. Beraz, hein batetan, Salbatorek, «nazional-katolizismo» karlista/aranatarraren jarraipen eta radikalpen dirudi, bera, lehenengo bistazoan, inor baino «nazional-katolikoago» ageri bait da. Bestetik, ordea, funtsean ez du postura harekin zerikusirik, artean oso bestela ulertzen bait da erlijioa (fedea). Alegia, erlijioa ez bait da egia bat, edo doktrina batzuk, edo moral printzipio batzuk, hor aidean, gure gainean, historiatik aparte, baina ekintza bat eta bilakatze bat, drama bat: gu garena, izan, eta ari garena, ari, beti borrokan.

Neuri, behintzat, Mitxelena bere sakontasunean konprenitzeko —eta konprenitzeko, guzti horretan ez duela bere garaia espresatu besterik egiten— inportante iruditzen zait honetan insistatzea, franco abstrakto geratzen bada ere. Bestela erraz faltsutu genezake Mitxelena. Bi eratan egin bait liteke hori: edo haren mintzamolde erlijioso guztia sinbolismo eta «jantzi» literari huts bezala hartuz, edo «nazional-katolizismo» klasikotara bihurtuz. Salbatorek, ordea, ez du errepresentatzen Orixe esistentzialago eta dudak tormentatuago bat bakarrik, h.d., erlijiokera klasikoa, tranzendentalista-objetibista; baizik eta erlijiokera berri bat, bere kontsiderazioen abiapuntuan eta erdian gizonaren drama ipiten hasi dena, edo, kritikoez esan ohi dutenez, Jaungoikoa «antropologizatu» duena. Hobeto, historikotu

egin duela, esan beharko genuke. Fedea, hemen, historia bat bezala desarroilatzen da: gurutzean, ermitagintzan, etab.; eta herritasuna ere, Euskal Herria, hortxe desarroilatzen da: gurutzean, ermitagintzan, etab. Biak bat. Orixeren adi-eskemetan —hots, erlijiojera klasikoarenetan— alde batetan Jaungoikoa dago, fedea, mugikaitz, seguru eta oso, eta beste alde batetatik doa giza historia gora eta behera: azken finean biak eginda daude (historia ere funtsean aurretik eginda dago, bukatuta, harentzako «plana» egina dagoenez), ezer ez da mugitzen, eta bakoitzak bere barrutia betetzen du. Gero, lehenengoaren argitara, bigarrena juzkatzen da, «Jaungoikoaren plana» betetzen duen ala ez. Betetzen du, jatorra da; ez du betetzen, ez da historia autentikoa. Itsasturua bezala, zeruko izarren bidez tintzen da. Bidea egina dago: izarretan.

Mitxelenaren ikuspidean, aldiz, bilakatuz ari dira biak: biak batera, biak bat. Mitxelenaren historia, berak asmatzen eta egiten duena, da. Salbatorek, begirutzen dio historiari eta amorfo ikusten du, ez du eginda aurkitzen, ezpada berak «egiten» du, hots, berak taxutzen du, moldatzen, sentido baten arabera. Noski, berak aitortzen duen sentido kristauaren arabera. Baina jakinez, sentido hori berak bizten duela, ez dela gauzek berek ebidentziatzen dutena. Eta, beraz, sentido hori, gauzek, sentido horren alde borrokatuz gero bakarrik daukatela.

Honez gero, Salbatorek, maila historikoaren eta —haren gaine-tiko, neurri bezalako— metafisikoaren maila bikoiztasuna, abandonatu du, drama historikoaren maila bakarrari atxekitzeko.

Hau dena beharbada harrigarri irudi dakioke irakurleari -Salbatorek berak hori beti erreparatu ez zuela eta oso garbi ez zeukala, neuk ere aitortuko nuke: batzuetan, erlijiojera ahistoriko batetara irristatuz, eskema dualistara erortzen dela ere bai, oraindik transizioan dabilelarik. Halare, irakurraldi arretatsu batek horixe egizatzen duelakoan nago.

Beharbada hau ez doakio Mitxelenari bakarrik. 36-an euskal Elizak postura bat hartu du, kristauak mundu guztian txunditu dituen. Kristau progresistenek ere nekez egin zezaketan bezala jokatu bait du, hierarkiari buru eginez eta are, Erromari berari buruz beregaintasun frankorekin. Badakigu, ordea, Eliza hura, ideologikoki, ez zela bereziki progresista; psikologikoki, errebelde ez beste edozer gauza zela. Aitzitik, oso kontserbakoi eta otzan zen. Orduan, euskal Elizaren jokabideak, sozial eta politikoki konprenigarri bada ere, ideologikoki ezin konprenituzkoa dirudi. Jokabide batek, aktoreek ohar-tuz ala gabe, pentsatzeko modu bat inplikatzeko bait du. Eta euskal Elizaren jokabide hura, haren ideologia moldeari bagagozki, premi-

sa okerretatik irten eta, mirari batez, ondorio zuzenetan sartzeko odisea bitxia iruditzen zaigu... Nolanahi ere, 36-ko konfliktu ideologikoan, teoriaren batek baino gehiago, senak argiturik eraman den praktiak, ondorioak berehala ekarri ditu pentsatzeko moduan ere, h.d., praktiak bere teoria inposatu du eta aldakuntzaren lehen fruitu bat Mitxelena-ren obran daukagu.

Bukatzeko, bada, atal hau: egiazko «nazional-katolizismo» batetara, agian Orixeren (edo Aranaren) pentsabideek eraman lezakete¹ (Miranderenek «nazional-antikatlizismo» batetara bezala), ez Mitxelena-renek. Izan ere, «nazional-katolizismora» ailegatzeko, kristautasunaren eta euskalduntasunaren burutaera jakin batzuk behar dira: alegia, euskaldun jator izaterik ez dagoela, kristau izan gabe; bigarren, kristau-*tasunak* eskubiderik baduela, eta berak bakarrik duela eskusibuki («Egiak» eskubiderik omen duelako), erakundeak «kristautzeko», hots, kristaudi edo kristandade bat sortzeko, era teokratikoan, Erdi Aroan bezala... Aro Modernuan, ideologia hori «Kristo Erregeren» ideologia bihurtu izan da¹. Salbatoreren Jesus, ordea,

¹ *Lezakete*, esaten dut, ez gehiago, ez bait dut uste puntu hau aski aztertua daukagunik, aski berriketa-lardaskatua baino: resultadu garbirik iristeko, euskalduntasuna eta kristautasuna ulertzeko moduz gainera, jokoan dauden beste alde guztietatik begiratu beharko genioke gorabehera honi (batez ere inplikaturik dauden aginpide, gizarte eta Estatu konzepzioak, etab.); eta orduan agertuko litzazigukeena, uste dudanez, postura askoren anbiguotasun benetan arriskugarria izango litzateke, baina ez nazional-katolizismorik. Arana Goirik, esate baterako, naturaltasun guztiarekin alde batetik «la subordinación de lo civil a lo religioso» proklamatu du, bestetik «la independencia entre la Iglesia y el Estado» aginduz, ametsetan ere pentsatu gabe, noski, bere burua kontraditzen ari daitekeenik. Anbiguitate gehiago badu; aldeak eta kontraldeak pisatu beharko lirateke. Bestalde, aranatar guztiak edo gehienak demokrata sentitu dira eta aginte, gizarte, Estatu konzepzio demokratikoetan ez dirudi «nazional-katolizismoa» kabitzen denik (Orixek, ostera, ez dirudi demokrata sentitzen zenik!). «Euskaldun fededun» tradizioari «nazional-katolizismo» eriztea, batez ere polemikoa da, esaktasun gutikoa. Nazional-katolizismoa ezaugarzaten duena, besteak beste, Estatu konzepzio erlijioso integrista bat bait da, Estatuk esan nahi duen guztiarekin (Botere sakralismo, etab.). Euskaldunek, ordea, onerako ala txarrerako, horixe ez dute, edo oso-oso eskas: Estatu konzepzioa, beren pentsabideen oinarrian. Gizarte kategorietan pentsatzen da (euskal gizartean, azken finean), ez Estatu kategorietan. Txit sozialki, baina dimensio politiko oso murriztez, beraz. Nazional-katolizismoa teoria politikoa bait da.

¹ Ikus Orixek: «Kristo gu bakoitzaren Errege ez ezen, gizarte osoarena da: sukalde bakoitzean, erri bakoitzean eta mundu guzian Errege, Jainko gabeko gizonak ori ukatu arren. Eskoletan eta legeetan Kristo baztatu nai dute erriek, eta bide ortatik beren ondamendira doaz. Gure aldiko ereji aundia au da, ta orren aurka Aita Santuak [Kristo Erregeren] jai au asmatu zun. Jai au antolatzarekin beste edozelako agirirekin baino gorago aitortu ditu Jesukristoren eskubideak, bai gizon bakoitzarengana, bai gizarte osoarengana, bai ta agintariengana», ik. *Meza Beperak*, 1949, 1170.

gurutzean da Errege: Salvatorek *gurutzean* eta *deika* ikusten du Jesus; ez *tronoan* eta *agintzen*; h.d., ez da Jesukristo Botere publikoarekin identifikatzen. Salvatore ez da nazional-katoliko edo nazional-katolizistarik.

Euskadi, «kristau errepublika jatorrentxo bat». Kristau demokratismo bidetik

Salbatoreren pentsabideak bere denboran eta lekuan situatu nahi badira, lehenik etsaiarekiko, bigarren beste euskaldun kristau ala ez kristauen pentsabideekiko beren erlazioetan, begiratu beharko gedituzke.

Lehenengo puntuan, h.d., katolizismo ofizial faxistari buruz, Salbatorerenak orduko beste euskaldun kristau eta batez ere apaiz askorenak dira, 40. eta 50.gn urteotan ohizkoak.

Berdin bigarren puntuan: Salvatorek, urteotan euskal Elizak hartuta zeuzkan posizioak defendatzen ditu (horretan aportazio orijinal haundirik ekarri gabe), baina, batez ere, posizio honetatik sortu du bere obra literaria. Problematikoago, hau dena —Salvatore nahiz bere garaikideen posizioak— ondorengoan senti eta pentsabideen aldean ageri dira. Bere garairako, aski garai-garaikoak ageri bait dira, bestela.

Gogora dezagun, lehenengo, urteotan polemikoki «euskal klero», «euskal katolizismo», etc. konzeptuekin adieraziko den konplexoak, nolako aurrerakada signifikatzen duen euskal kontestuan. Kristautasun honek, bere sostengu klasikuak zeharo galdu ditu kolpe batetik: Hierarkia eta tradizioa. Oin berrien ganean jaikiko da, jaikitzearen zutitze eta errebelatze adiera bikoitzean jaiki ere: ebanjeliora, Giza Eskubideetara, etc. errekorritu beharko bait du, Hierarkiaren obedientziara edo tradizioa errekurtsua oker datorkionez gero. Kristo-faxistek inbokatzen dituzte orain argumentuok. Lehenik, tematika aldakuntza dago. Ohituren garbitasuna eta euskara galtzen bada zabalitzen diren biraokeria, likiskeria, etab., gai kuttunak gerra aurrean, bai, aurkituko dira oraindik, aurkitu, inerziak eutsita, baina beste preokupazio larriagoek menderatzen dute honez gero belaunaldi hau. Hain zuzen horietxek: Giza Eskubideek (kasik ebanjelio berria bihurtuko dira, Giza Eskubideen Eliza esan bait dakioko honi), libertateak, politikak, etab. Euskal Elizari, karlistadetatik 36 artera ez bezalako problemei tokatu zaio buru egitea. Egia, jarrai zezakeen, printzipialki behintzat, problema berriei ere medio zaharrekin buru egiten: Hierarkiari hotseginez eta tradizioa inbokatuz, ohitura zaha-

rrak, etab. begiraturuz. Baina ez du hori egin. Oinarri berriak hartu ditu.

Lehen, mundua bi partetan partitu —Eliza eta mundua—, eta okerra eta gaiztakeria eta nahaspila eta miseria Elizatik kanpora bakarrik erreparatzen zen, «munduan». Eliza bera, ordenuaren eta harmoniaren eta zuzentasunaren parabisutxo bat bezala ikusten zen, mundu aldrebes eta gaiztoaren aldean bake oasi bat. Orain, ordea, Elizan bertan ikusi da Okerra. Inkisizioak erlijio gerretatik libratu zuen Erdiuharte iberikoan, badirudi orain ezagutu dela benetan Eliz Amaren «mundutartasuna»; alegia, mundutartasunik okerrera: bere burua eta interesak harmaz eta gerra txikizioz kupida gabe defendatzen dituen Eliz Ama basatia¹. Beraz, Eliza aingeruarterik ez dela, berez esaldi sotil eta franko sinplea, betidanik ondo jakina, teorian, orain pisu haundiko egia bilakatuko da, esperentzia gogor batek sentidoz kargatua; kontua ez bait da, gizarte batek nolako egiak (printzipioak) dakizkien jakin, baina egiok situazio konkretuan eta bizitzan hartzen duten rangoa. Elizaren mundutartasuna, egia teoriko soiltatik esperentzia esistenzial bat izatera pasa da.

Gaiztakeria Elizaren barruan bertan aurkitze honek xok moral eta psikologiko bat bezala sortu dio belaunaldi honi, antza duenez. Behin eta berriro topatzen dugu, mila testuinguru diferentetan. «La Iglesia es una síntesis de profundos contrastes»¹. «Gizeleizaz» min-

¹ Zilegi genuke, nik uste, gorago aipaturiko Txillardegiren artikulua, *Kristautasuna eta mundutar garaitzapena*, xok horren emaitza bezala kontsideratzea, orain gogorapenotan aspaldiko Gurutzadak, Indietako ebanjelizapena, etab. ere jasotzen diren arren. Ez dirudi horrek denak hemen inor hainbeste eskandalizatzen zuenik lehen. Orain ikasiko da, Elizak «bi historia» diferente eta kontradiktorio duela.

¹ Ik. X. d'Iramuno, *El Clero Vasco*, 1946, 9. Eta esperentzia mingarri hau oinarrizkoa da garai honetako pentsabide inkarnazionistetan: «La Iglesia es comprensible tan sólo por la Encarnación, que es su modelo» (ibid.). Baina inkarnazionismoak beste iturbururik ere bazuen. Euskal Herriaren nortasun deskubrimenduak ere inspiratzen zuen hura, esate baterako: «La Iglesia es humana. Y porque es humana lleva en sí el sello de los pueblos en que se aclimató, adoptando su formulación doctrinal y su modo de gobierno en función de factores históricos y étnicos» (ibid.). Horrela euskal katolizismoaren dretxo defendatzen da orijinal izateko, hots, espainolak ez bezala jokatzeko: beste lurraldeetako katolikoek ulertzen ez badute ere, hemengo katolikoei holaxe jokatzea zegokien, hemengo bere inkarnazioak eskatzen zionez. Halako arrazoipideek bidea irekitzen dute Miranderen beste estremoira: Euskal Herria, katoliko ordez protestante balitz (h.d., bestelako erlijioa balu espainolek baino) berjabe litzatekeela. Euskaldunok, beren kristautasuna ere espainolarengandik diferentea sentitzen dute, edo sentitu nahi lukete. «La Iglesia es humana» esaldiak, hortakoz, baliagarritasun bikoitz anbiguo bat ageri du garai honetan: batetik, konsekuentzia guztiekin euskaldun izan nahi lukeen kristautasun baten espresio da; bestetik, faxismoarekin uztartu den Elizaren eskandaloa espresatzen du.

tzo da Salvatore. Euskal katolizismoa honez gero hartuz joango den posturretan, oinarri-oinarrian beti esperentzia hori susma genezake. Honez gero, euskal katolizismoaren desarroiloa «Eliz-kritikoa» izanen bait da, egunotako «Eliza pobre» eta «Eliza autentiko» eskakizunetaraino, nabari bait dago punta antihierarkiko, antiofizial zortz hori.

Eliza baitako miseriaz batera, Egiaren erlatibutasuna deskubritzen da urteotan. Elizan ere gauzak ez dira, uste bezain garbiak; munduan ez, uste bezain zikinak. Egia xuxenak ez du portaera zuzenik aseguratzen. Egiarekin, ebanjelioarekin berarekin, edozein krimen xuri liteke. Are, inor ez da egia osoaren jabe, ez gezur hutsaren morroin. «*Nik dut egi osoa* diñonak, gezurra diño» (Salvatore). Egia asko dabil Elizatik kanpora: Luterok, Freudek, etab., badute laudagarririk¹. Askotan kristaukiago jokaten dute ez kristauek, izen hortakoek baino... Hori dena orain korriente da. Baina ezin ahantz genezake, ikuspideok, normal bihurtu aurretik, nekez hasi beharra egon dela lehenengo.

Oro har, bide berriak hartu ditu euskal Elizak. Hau dena hobeto osatu beharko genuke, urteotan hasi den euskal kristautasunaren aldakuntza —eta harekin batera aldatuz doazen herritasunaren (edo euskalduntasunaren), politikaren, etc. konzepzioak ere—, biraketa erabakiorrak euskal historia modernuan, xeheki azaltzeko. Baina ikeritzeko dago dena oraindik. Seinala dezagun hemen lau puntu bakanrik, Salvatorerentzat inportantzia duenetara mugatuz.

Lehen planoan okupatzera datorren responsabilitate pertsonala. Tradizionalki —«euskaldun fededun»— tradizioa aduzitzea aski arrazoi zen. Gurasoek hola sinesten zuten, guk hola sinesten dugu. Tradizionalismoaren giltzarria leialtasuna da. Lehenagokoei, ohiturei, leial izatearren, mantentzen dira holako edo halako posturak. Salvatoreren gazte obran asko dago hori. Planteamenduetan sakondu ala, posturak ere aldatuz doazela, *zintasuna* joango da leialtasunaren tokia hartzen. «Sinesten duguna esatea, ez geiago ta ez gutxiago; geranak agertzea, osorik eta billotzik: zintasuna». Elizan, Hierarkian, zikina eta miseria ikusiago ala, eta etsaiak Estatu erlijio bezala inposatuz gero katolizismoa, Salvatore (eta haren belaunaldia) zintasuna gehiago estimatzera ailegatuko da leialtasuna baino. E.b., nork bere konzientziari, Hierarkiagandik independenteki, jarraitu beharra destakatuko da. Eta Hierarkiagandiko independentzia hori, hots, norbere responsabilitatearen lehentasuna, Hierarkiarekiko min-

¹ Ik. *Unamuno ta Abendats*, 3gn kap., «Gerau, izena jaten». Okerrik ere edozeinek duela, inor ez dela on huts, ik. 6gn kap., «Nornaigan aserre bide».

sor etengabe eta mesfida zorrotz batez, haragian daukagun arantza bat bezala, konstante bat bilakatu da euskal Elizaren harrez geroko desarroiloan. Joera bat indartuko da, Hierarkian, konzientziaren laguntzarik baino gehiago, eragozpena ikusteko. Hierarkia bera («Eliza», hots, erakunde, Erroma, Episkopatu), indar denboralekin itsuski nahasturik ikusiko da —samaritarraren parabolako lebita, edo Kaifas huts, Salbatoreren moldean esateko— interes zikin batzuenatik Euskal Herria saldu duena: euskaldunak, euskal autonomia, euskal herria, euskal apaizak berak, haien eskubideak eta izen ona. «Autoritate krisiak» badu euskal Elizan tankera espezifikoko bat, bere kausa espezifikoen arabera. Autoritate hierarkikoaren aldean, eta maiz kontra, euskal kleroa, Autoritate moral independente sentituko da. Harrez gero badirudi euskal Elizak ez dakiela Hierarkiarekin zer egin; hobe legokeela batere gabe; ezin duela Hierarkiarekin rekontziliatu.

Bigarren: konpromezu politikoaren arazoa eta Eliza «politikan ez nahasteko» printzipioa. Puntu inportantea da garai honetan. Horretan enpeinatzan bait dira alderdi biak: Elizak ez duela politikan sartu behar. Une berean, beti politikan sartuta ikusi uste dute batak bestea. Utz dezagun orain problema bera: azkenean, Elizak politikan sartu behar ez omen duelako printzipioak, baliagarritasun guztia, galduko du, behintzat sinesgarritasuna, beti bestearentzat erabiltzen bait da (Elizaren milaka urtetako praktiak absurdu bihurtzen duela aparte). Halare, garai honetako euskal katolizismoaren posturak ulertzeko, begiratu beharra dago printzipio horri. Oposizioko euskal Eliza, «egiazko Eliza» bera sentituz piska bat eta piska bat «antieliza» edo «ez-eliza» sentitzen hasirik, «insobornable ante las invitaciones de los unos, inquebrantable ante las persecuciones de los otros»¹, sentitzen da. Batez ere, egia hautsezin eta ezergatik atzeratzea ez dagoen mezu seguru baten kargudun sentitzen da, prest martiritarako, zori hauxe tokatu zaiolakoan (eta berdugoari Elizak berak entregatzen duelakoan). Alabaina, printzipio askok bezala, honek ere alde askotara erakusten ditu modu askotako aplikagarritasunak, anbigutasunak beraz: batetik, edozein Elizaren kilimusi eta zurikeria Boterearekin intoleranteki kondenatzen da; bestetik, tolerantzia haundi bat desarroilatzen da, modu inkarnazionistan, kultur mugimendu eta pentsabide ez eliztar baina «humanistei» buruz. «Munduak» daukan egia bilatuko eta goratuko da. Inoiz baino «errealitate lurtarrekin» identifikatuagorik dabil euskal Eliza, eta inoiz baino irmokiago ari da esan eta esan, ez dagoela errealitate lurtarrekin identifikatzerik. Batetik: «cuando las masas cristianas se incorporan a empre-

¹ Ik. X.d'Iramuno, aip. lib., 10.

sas impuras o se mezclan en luchas partidistas y se alían con cadáveres de civilizaciones muertas...»¹, etab. Bestetik, euskal kleroa Euskal Herriarekin, euskal kulturarekin, abertzaleekin, bat-bat egirik dabil.

Posizio teorikuon anbiguotasunak begien bistan daude. Salbatorrek Eliza «garbi» batetan amets egiten du, «bere» mezua oso-osorik eta nahasketa gabe eman dezan batetan, erdizka ibili gabe¹. Ez dela akordatzen, ematen du, inkarnatzea, definizioz berez, badela konpromezu bat, erdi miseria bihurtzea dela, nahasketa onartzea dela. Erdi zikinkeria (Salbatoreri berari orain edozeinek nabaritzen dion horixe)... Baina, posizio teorikoan ageri den nahi adina anbiguotasun gora behera, posturan, independentzia nahi positibu bat destakatu behar da, borondate bat, interes bat, ondorio gabe geratu ez dena. Ez da ahaztu, ez, inkarnazionismo guztiarekin ere, kristautasuna «tranzendente» dela. Salbatorrek, bada, Alderdien gainerik ibili ueste du; politika gainerik ibili nahi du, balio unibertsaleko humanismo kristau baten arabera eta egia tranzendentalaren mailan. Eta, izan ere, Salbatorrek duen euskaldun guztien batasunaren konzepzioa, esate baterako, teologikoa da, ez politikoa¹. Beraz, geroxeago hainbat indartuko den tranzendentalismoa —kristautasuna ezein kulturarekin, eskolarekin edo Alderdirekin berdintzearen kontra— ondo presente dago garai honetan ere¹.

Hirugarren —eta labur— labur esateko: lehen, kristautasuna defendatzeko defendatzen zen euskalduntasuna. Euskara galtzen bada, kristautasuna galtzen omen da, biraokeria zabaltzen, etab. Orain alderantziz: euskalduntasuna, oinarritzko Giza Eskubideen defentsa bezala defendatuko da eta Giza Eskubideon defentsa, ebanjelioaren ondorioz ez, baina aurretiazko bezala ikusiko da, kristautasunik predikatu edo proklamatu ahal izateko¹.

Eta laugarren: egiaren erlatibutasuna ezagutzeak, aldian aldikotasuna agertarazi du. Eliz egituren eboluzioa ezagutu da; kristautasu-

¹ Ibid.

¹ Euskal apaizak berak kritikatzeko ditu, aberrian gelditzearen, herbestearen beldurrez, «ebanjeli osoa predika bearrez, uzten zitzaizen laurdena besterik ez aipatzera uzkurto bearra izan zuten»-ak.

¹ Ik. puntu hau in S. Mitxelena, *Idazlan Guztiak*, 1977, or. LII eta hur.

¹ «Sólo sacerdote, siempre sacerdote, en todo sacerdote» esloganak adierazten zuena; ik. M.E. Lipúzcoa, *La Iglesia como problema en el País Vasco*, 1973, 53.

¹ Urteotako testuetan sarri aurkituko da Kardinale Saliègesen esaldi hau: «Subir l'injustice sans protester, sans lutter contre elle, accepter le désordre, ce n'est pas digne d'un homme, ni d'un chrétien». Salbatorerentzat, ik. *Unamuno ta Abendats-en* 29., 30. eta 31. kapit.

naren historikotasuna, aldi bakoitzeko arazo propioekin eta soluzio moldeekin, kondizionamenduekin¹. Salbatoreren poemak oinarri horixe dizu: euskal fedeak bere historia duela; are, historia dela. Oker ez banago, euskal literaturan hau da kristautasunaren ikusmolde historiko bat aurkitzen dugun lehenengo aldia. Horrexek oinarritzen ere du poemaren dramatismoa. Salbatorek, Aro bakoitzeko larri bereziak daudela, ikusten du. Aro bakoitzak bere bekatuak eta minak dituela, esate baterako («Ixilik egotea okerreana. Azken urteotan batez ere, euskaldunok orixe dugu gure pekatu ta kastigu»), eta bere egiteko partikularra duela. Beraz, Aro bakoitzean, Eliza, aldian aldikoa dela, aldiko giza egoerari dagokionez.

Mementu honetako Elizaren eginkizuna, ttipien eta bidegabeki zapalduen defentsa izan behar luke. «Interesez kerastutako mundu ontan, Erroma jeikitzen ezpada Egi garbiaren alde, nortxo jeikiko?».

Interesgarriago, halare, oharkizun guztiok beren kabura eramateko, Salbatoreren gogorapen sozial-politikoak dituzkegu testuinguru honetan:

Bi milla urteotako laterri sonatuen gobernuetan noiz eta nun katolikotasunak mamitu dizu gero, Jesus, irutasun orren dinezko anaitasunik, eredugarritzko kristau demokraziarik, goi ta bekoen naiz bertako ta erbestekoen arteko ongiartze tajuzkorik? Geurrera beintzat, erlijuuak gerraterik aski ekarri digu. Erlijuiua izan dugu euskaldunon gerrate danen edo beintzat ia danen suemalle ta luzarazle; ta baitare, gainera, euskotarron bitarazle. Ez ote da ba zurea kristautasuna? Ain bestelakoa ote da?

Zinezko katolikuok lotsa onetxek erretzen gaitu, Jesus: orañarteko katoliku naziotan eztugu sekula kristau demokrazi jator bat ukan. Ez ukan eta ezin etsaiei erakus, aien akarrak ixillarazteko.

Eta etsaiak eztagozkigu ixillik, ez geldirik. Bein leize-zuloratuazi ezker jo ta bertan akabatuko luteken basauntzari antzo erasoten digute lau aldetatik oska eta ozka: —«Orra guk, laikuok, sozialistok, Uruguayen naiz Eskandinabi-laterrietan,

¹ 1946-47 urteetan eztabaida haundi bat egon zen Eliza katolikoan, Franzian bereberki, «teologia berria» zeritzanaren inguruan, Pio XII.gnak berak interbenitu beharrean ikusi bait zuen bere burua, erlatibismo teologiko eta dogmatiko berri bat —modernismoa— berbizten ari zelakoan. «Cada época se fabrica su teología: esta era la substancia de las declaraciones más audaces de los teólogos denunciados», ik. J. Comblin, *Hacia una teología de la acción*, 1964, 53.

zenbait gobernu ta gizalege naiko polit. Beren aje ta guzi, ezin ukatuko diguzute zuenek baino justizi, gizartetan, kristautasun geiago, ondo geiago, badutenik. Zuek ordean nun duzute, nun, zuen anaitasuna ta atariko aizea bat ezterala probatzeko gobernurik?

Ta guk abestruzarena egitearekin eztugu estaltzen ez gure lotsa ta ez aien akarra¹.

Berez komentatzen da bera pasarte hori, urteotatik edo datorrigun sozialisten eta Estatu eskandinabiarraren inbidia tipiko horrekin. Horiek ere doinu berriak bait dira, sozialismoa heresia eta doktrina sozial guztiz kondenagarria zela, berak daukala egiazko doktrina sozial zuzena eta gaitz guztien erremedioa, historian inork baino onik eta lan sozialik gehiago egin duela, harropuztu ohi zen Eliza batetan. Salbatoreri ez zaio triunfalismo horren aztarrenik ere geratzen. Garraz ari da: katolikoan anaitasuna eta atariko haizea berdin; katolikoan justizia eta atariko haizea berdin...

Elizaren doktrina soziala, berez, egokia iruditzen zaio Salbatoreri. Baina hura praksira eramango duenik, ez du ikusten. Beraz, teoria huts eta prediku soil. Erromak berak ere ez bait du asko begiratzen, nonbait, doktrinaok praktika daitezen: predikatu bai, ongi predikatzun du; gero, «azpikeriak eta interesak» makurrarazirik, Franco bezalako «Buruzagi borobil», «gezurti ustel... , ustela ta freskoa» onartzen dizu¹.

Francok ez, baina euskal Gobernuak gauza zezakeen «kristau errepublika jatorrentxo bat», «Aita Santuen entziklikak itzik itz Erriño bakar batean badare zertuaraziz». Baina Elizak alferrikaltzen utzi du aukera bakar hori, beti ere arrazoi emanez «eta arrazoi oso, bentsutzailerei, agintedunei, indardutenei, geienei».

Euskaldunak hain Erromaren seme zintzo izan dira beti. Ondo bai ondo bete dituzte beti beren obligazio kristauak. «Benetako kristautasunari dagozkion zenbait gauzetan aitzindari, txapeldun, omen genun atzo-atzoko Euskalerrri: bere administrazioaren zuzentasunean, nagusi-langille arteko ongiartzean, alperkeriaren kontrako lanazalean, oituren zindoan, lurraldearen ederrean eta aberatsean, kristautasunaren latzean, legezarren gizaberran, jendearren elizkoiean, apaiz moja pralleen ugarian eta jatorrean, Elizarekiko diruemate ta beste sozoi nolanaikoetan...»

¹ Ik. *Unamuno ta Abendats*. «Agur Yaunak» epilogoan, in *Idazlan Guztiak* 1977, 443/4.

¹ Salbatorek Tedeschini Kardinalaren ateraldia dakar: «Si hubiera doce naciones como España, el mundo estaría a salvo... Así es como se gobierna en católico», ik. *Idazlan Guztiak*, 1977, 444.

Oiek ola, 1936.ez autonomi ori eman izan baligute, o ze erakus bitxi dizdiratsua izango zukeen zure ta gure Eliza katolikua gure Erri onetxengan, Jesus, beste guztien eredu garri ta etsaien ixilgarri!!

Orain Aroan, kristautasunaren egitekoa gizarte antolaera «kristau demokratiko» bat sortzea baldin bada, euskaldunek estraina zezaketen hori.

1936.an ordea autonomi ordez urkamendia egotsi ziguten eta Erromak, beste bein, naiago izan zun bentzutuontzat arlosa ta sasilarra, ta garailleentzat loreak eta loriak.

Orain, Salbatoreren usteok ustel diren ala errealismorik ba ote duten, alde batera utzirik¹, seinala dezagun, azkenik, pentsabide guztiotan aurkitzen dugun, kristau demokratisismoarentzat tipiko izan den, alderdi bat: gizarte konzeptu soziologiko edo politikoa ordez, teologikoa erabiltzea. Alegia, gizon guztien berdintasun, edo batasun, teologikoa, esate baterako, berdintasun eta batasun soziologikoez konfunditzea, konzeptu teologikuon gainean politika bat erakitzea balego bezala.

Elizaren doktrina sozialak —Arana Goirik berdintsu ziharduen, bestalde— kapitalismoa erdeinatu egiten zuen eta sozialismoa kondenatu, bere doktrinak bata zein bestea gaindiazten zituelakoan. Errealitatean, beste plano batetan zeuzkan bere esplikazioak eta programak.

Gizarte modernuari buruz, Elizak, jarrera, guztiz negatibua hartu du. Ezagunki, Aro Modernua Elizaren kontraka, erreazioan, desarroilatu —emanzipatu— da. Eta Elizak, mugimendu sekular edo laiko (laizista, agian) horretan ez du ikusi Jainkoaren kontrako bihurriketa bekatua besterik. Aro Modernua bekatuaren pean ikusten zuen beti Elizak; gaitz guztien kausak ere ordenu moralean aurkitzen zituen. Alderantziz berdin, gaitz guztien erremedioak ere, Elizak, plano moralean eta filosofikoan eskaintzen zituen. Honela ibili da Elizaren doktrina soziala.

Jakina, postura desberdinak kabitzen dira doktrina gorputz horren barnean. Ezin sar genitzake orain denak zaku batetan. Elizaren doktrina sozialean, maiz, ebanjelioaren edozein politika gagnetik ego-

¹ Salbatorek berak aitortzen du, eritziok eritzi adina sentimendu soil izan zitzakeen susmoa: «Eztaikit nire tristura samina danentz, Jesus, ala nire ezjakina ala nire zentzuna penaren penaz onako gogoetan galdetzen dagokidana: nola ordea, nola, Elizak urrutiratzen utzi du kristau errepublika jatorrentxo bat, bat badare, euskotarrenarekin erakus al izateko egokiera ori?».

te hura, edozein politika eta gobernukerari buruz indiferente eta neutral izate bezala, ulertu da. Horrela, eliztar asko, neutraltasun aitzakiaz, bera izan da indar kontserbatzaileen eta erreazionarien sostengu bortitzena. Bigarren postura bat, faxismoari atxeki zaion Elizan daukagu: kriterio legez «Elizaren defentsa» harturik, hots, azken finean politika oro, Estatua bera, Eliz defentsaritara erreduzituz, aktibuki frankismoaren alde enpeinatu da, «katolikoki gobernatzea» horixe zelakoan... Zer esanik ez, Salbatorek ez duela zerikusirik holakoekin. Lehen kriterioa, Salbatorerentzat, ebanjelioa da, ez Eliza denboralaren defentsa (Elizaren ondasunena, e.b.; edo Elizaren haurrak eskolatzeko eskubidearena, etab.). Halare, gogoangarri da, kriterioak nondik nora ateratzen eta nola finkatzen dituen, bere uszteko gizarte zuzena oinarritzeko.

Salbatorek Hirutasun hirutan santuraino luzatzen du eskua, gizarte bizitzaren oinarri bila; gertuago, San Agustinen arau hirukoitza aurkitzen du: «In necessariis unitas, in dubiis libertas, in omnibus charitas».

Aita Jainkoari Irutasun Santua betidanik sortzen ari zaionez, ordea, orra Agustin neurgeak nolako ederki ateratzen dun gure oñarriari berez dariokion benetako kristau demokrazi gurenaren irutasuna, irutasun santua auxe re: *Bearretan batasun, expaitan askatasun, zernaitan maitasun.*

Eta:

Iru pertsona edo Notin Jainko batetan —dirakasgu dotri-nak. Iru arauok nor bakoitzagan— daskaigu kristau anaitasunak, kristau demokraziak, gizalegeak... Iru arauok gizaki ta gizatalde ta gizataldi bakoitzagan.

Oinarri ederrok ematen dute, eman, esperantza ederrik: «mundu gutzia pamily bat izatera eltzeko» (internazionalismo kristauaren arabera). Ez lirateke esperantza txarrak, esperantza onik balira.

Hiru oinarriok, Euskal Herrian, honoko hau adieraziko lukete:

Unitas: euskaltasun
Libertas: bakoitztasun
Charitas: kristautasun

Ematen al dira oinarriok Euskal Herrian? Salbatoreren ustez, baditugu horretan «gure arketipuak» (mintzamolde hau berria da gure artean):

Unitas: Loyola¹
Libertas: Unamuno
Charitas: Xabier

«Irurok batean nork, ordea, nork?» eta orrialde eta erdi geroago berriro, «nork ordea lortu —galdetzen du Salbatorek—, nortxok bere baitaratu, irutasun gurena uztarri batean, norbera, bakoitzagan?»), etc.

Horixe: presupostua, politika «zuzenik» hasteko ere, santutasunerako (Loiola) edo kristautasunerako bezalaxe (Jentil Aro), beti da konbersioa, plano teologiko honetan. Konbersioarekin hasten da «errepublika jatorrentxo» hura. Honela muntaturiko teoria politikoa, azkenean, ez da erakunde politikoaren teoriarik, onenean ere egintza indibidualean konzentratzen den etikaren dimensio publikoa destakatzeari baino. Responsabilitatearen teoria morala, politikara hedatuta.

Ez berak uste zuen sentidoan, baina, zinez, Salbatore ez da politikoa: politikaren gainera baino gehiago, kanpotik dabil. Politikaren teoria bat —edo ikuspide batzuk— politikaren barrutik, ez du inon desarrolatu. Are, ia beti gaitzerizkorki epaitu du.

Jaungoikoen gerra: katolizismo espainol - euskal kristautasun

Garai hartako testuetan, guruztari faxistak beti «katolizismoaz» mintzo ohi direla, ikusten dugu; euskaldunak, gehienetan, «kristautasunaz». Diferentzia sakonagoak iragartzen dituen diferentziatxo terminologiko bat. Katolizismo kontra kristautasun: Jaungoikoaren gerra Jaungoikoaren kontra. Jaungoiko katolikoa Jaungoiko kristauaren kontra.

36-ak, erabateko oposizioan, Espainia eta Euskal Herria buruzburu kontrajarri ditu, pentsamentuz eta gogoz ez ezik, tiroka. Biok erlijio katoliko bera aitortzen bazuten ere, katolikoek han eta hemen hautatu dituzten fronte kontrarioen arabera, oposizio hau, borroka ideologikoak asumituko du, erlijioan bertan kontrasteak destakatzu.

¹ Ik. S. Mitxelena, *Idazlan Guztiak*, 1977, 441. Seinalagarri, zerak dirudi hemen: batasunaren arketipua Loiolari eriztea, ez Arantzazuri (persona bat nahi zuelako?), poeman euskal batasunaren etxe bezala kantatu zuen arren. *Unamuno ta Abendats-en*, Arantzazuk, Ama Birjinak, ez dute inportantziarik. Alderantziz, Xabierrek inportantzia gehiago hartzen du lehen obretan baino.

Euskal kristautasun espainol katolizismo, Espainia/Euskadi oposizioaren zati bihurtuko da.

Hemen ez dago luzatu beharrik, urteotako euskaldun fededunen eta, bereberki, kleroaren tragediaz: Hierarkiaren burlaz, Erromaren abandonoa... Mitxelenaren obran daukagu Getsemani hori. Ez da lehenengo aldia, Elizak horren paper tristea jokatzen duela euskal historian.

Gerra inguruan, euskaldunen jokabidearen apologistak daukagu lehenengo. Mitxelena ez da propioki apologista. Baina konfliktu horren erdian ibilia bai, bada; eta bere kristaukera, «nazional-katolizismo» edo katolizismo frankista ofizialaren propio kontra burutua da. Etengabe harekin borrokan ari delakoxe, sarri, haren traza berak hartzeraino agian. Baina ez dugu itxuragatik engainatu behar.

Berez dezagun. Mitxelenak, denbora hartako eran pentsatzen du. Erljioa «nazionalki» pentsatzen du, destino nazional baten funtzio-tan hartzen du, h.d., sentido nazional bat hartzen du, nazioaren zortea bait dago jokoan. Horrek ezinbestezkoa dirudi, ordurako batik-bat: polemikagatik; bestela ere karlistadak ezkerreko haren zegoen ondareagatik; eta, nolana ere, oraindik beste ideologiarik ez zegoelako euskal giroan, errealtate sozial eta politikoak autonomuki pentsatzeko eta argitzeko. Baina alderdi formal horretan bakarrik koinziditzen dute «nazional-katolizismo» espainol ofizialak eta Mitxelenarenak. Edukinaren aldetik arras bestelakoak dira; arras kontrarioak, betetzen duten funtzioaren aldetik.

Diferentziazio sentidua sakonena erakusten duten bi termino tipikoak, berek utzi dizkigute: kristofaxistek, *gurutzada* esaten dute; Salbatorek *gurutzebide*. Hitz bi horiek ageri dute diferentzia guztia. Euskal Herria ez da guruztaria, *gurutzatua* baino.

Guruztarien katolizismo espainol, islamiko eta nazional-sindikalista, arras da katolizismo triunfalista. Mitxelena, aldiz, kalbarioan dabil beti. Katolizismo espainola, garaileen ideologia da; Mitxelenaren kalbarioa galtzaileen, zapalduen, presoen, Euskal Herri doloretakoaren ideologia. Mitxelenaren «nazional-katolizismoa», Isaiaren edo Jeremiaren gurrekoa da.

Espainia frankistan, Franco teologoaren teologo irakasle bilakatu den garaia da eta teologoen Francori, Izpiritu Santuari bezalaxe, entzuten dioten garaia (1949-ko «Congreso Internacional de Apologética»-n, teologo eta Gotzai Biltzarrean, Francok, Espainiaren esentzia katolikoak disertatzen du, haik oso estimatu zuten eta Eliz prentsak oso goratu zuen zientzia teologikoz eta zuhurtziaz). Elizak lepo-

raino betetzen dira (lehentxeago, Errepublikan, hutsik zeudenak) eta jendeterien konbersio mirari hau Francori eskertzen dio Elizak. Beste inolako ideologiengatik konkurrentzia gabe, Estatuaren laguntza eskandaloso batez, batetan presioz (elizara ez doana «gorri» da!) eta bestean pribilegioz, katolizismo garaileak sekulako haizepuztaldira ezagutzen du urteotan: prozesio eta solemnitate, Aste Santuko folklore liturgiko eta Corpus Christiko parada; kongregazio, asoziazio eta ordena, fraile eta moja, Ekintza Katoliko eta Mariaren alaba... 1946-an HOAC sortzen da: ez bait dago beste langile erakunde posiblerik legalki. *España realidad suprema, España sacrosanta*. Umil-umil, Salvatore kalbarioan.

Salbatoreren «nazional-katolizismo» omen delakoa, zuzen-zuzen eta puntuz-puntu nazional-katolizismo ofizialaren kontra desarroitatu da. Ezin aski azpimarka daiteke hori. Detailtxoetaraino. Espainia, Pio XII.ginak esan duen legez, Jaungoikoaren «nazio hautatua» da¹. Salbatorek, zeruak —Ama Birjinak, etab.— hautatu duen herri, baldin baderitza Euskal Herriari, beste zentzu batetan izango da. Espainia nazio hautatu denez gero, zeru guztiak harmatu ditu Jaungoikoak Espainiaren alde: Gotzaiak predikatzen ari dira behintzat, Jesusen Bihotzak berak sortu zuela gerra; eta Jesusen Bihotzak harmatu zituela Francoren soldaduek; eta «guerra santa y bendita» hori dela «senda que conduce al reinado del Corazón de Jesús en España y en el mundo»... (Orixek ez du behin ere aipatuko Jesusen Bihotzik, jesuita ohia izan arren. Ezta Mitxelenak ere). Baina ez da Jesusen Bihotza bakarrik, «reinaré en España»-ko hura, gerran abiatu dena. Santiagok ere eginahalak egiten ditu. Eta Pilarko Ama Birjina, kapitaintsa, Aragoeko Reagustina bat bilakaturik dabil¹... Horiek ere ez dira Mitxelenaren deboziozkoak. Salbatorek, Jesusek Euskal Herria maite duela gogoratzean, Lazarorena aipatzen digu (*Aberriak min dit-en azken lerroetan nahiz Bizi Nai-en*):

—«Maite dezuna gaixorik dago»;
salba zaiozu bizia!
Ez utzi iltzen zure Erria!

¹ Pío XII, *Radiomensaje al pueblo español*, 16 de abril de 1938, in A. Montero, *Historia de la persecución religiosa en España*, 1961, 744-746.

¹ Erromesak Arantzazura eta Lurdera joatea, marianismo frankista honen kontrako erreazio bezala aipatuko du noizpait Salbatorek: «Aránzazu! Aránzazu! y por fin, para colmo, Lurdes! Trenes y trenes. Domingo tras domingo. Todo el mundo a Aránzazu. Que se abre la frontera y a Lurdes! a Lurdes! Y cuándo al Pilar? Nunca! Por qué nunca al Pilar?», esan arazten dio Komisariari, ik. *Idazlan Guztiak I*, 1977, 207.

Mitxelenak, behin, harako Unamunorena bereganatu du:

Los vascos y catalanes sienten aversión, y también la siento yo, hacia casi todo lo que pasa en España por castizo y genuino.

Okerrago dena, Salvatore, bere pentsa eta sentierarekin, Espainiako Eliza ofizialaren kontra ezezik, Eliz Hierarkia gorenaren kontra ere aurkitzen zen. Katolizismo triunfalista, militantearen gairaitia hori, izan ere, ez zen Espainiakoa bakarrik. Mundu guztian zebilen berdintsu. Pio XII.gnaren gustokoa zen, antikomunismo bolada hari zegokionaxe zen eta, besteak beste, USA-ren mementuko politikari aukera-aukeran zetorkiona. Foster-Dulles-eta-Pacelli-katolizismoa, mendebaleko zibilizazioaren gurutzaria. Hungaria eta Polonia, martiriek, «isiltasuneko Elizak», sentimenduak eta beldurrak politikoki kapitalizatzen laguntzen zuten. Batzuen gurutzebidea, besteen negozioa. CIA-k, propaganda antikomunistarako, ezin zezakeen Eliza huraxe baino laguntzaile hoberik bila. «Isiltasuneko Eliza», garrasika aprobeztatzen zuten, Elizak nahiz «demokrazia» amerikanoak. Euskal Herriaren eta Elizaren martirioa, ordea, ez zen inorentzat negoziarik. Salvatorek: hori isilpeko Eliza bada, euskal Elizari «isilenekoa» esan beharko zaiola, komentatuko du garrazki...

Bitartean, Erromak eta Francok, USA-k bedeinkaturik, Eliza berri bat eraiki zuten Euskadin. Diozesi berriak antolatzen dira. Gotzai berriak datoz. Seminari berriak egiten dira. Eliza berri ugari jasotzen da. Mons. Morcillo Gonzálezek, adbz., eliza mordoska eraikiarazi du Bilbo inguruetan: denak santu guztiz espainolen ize-nekin..., Mons. Morcillok espreski halaxe nahita. Sagarakoan himno nazionala jotzen da, etab. Francok berak pertsonalki interbenitzen du jesuiten probintzi banaketa berria egiten denean: Gipuzkoa eta Nafarroa Sortalde Gaztelako Probintzian sartzen dira, Soriarekin etab.; Araba eta Bizkaia, Burgosekin eta batera, Sartalde Gaztelako Probintzian... Probidentziaren begiak beti erne. Probidentziak erregalatu omen bait digu Franco. Dena espainolkaratzen da: liturgia (Aste Santu andaluzaireak Euskadin bertan), kirolak (pilota «un deporte español» da; estropadak. Generalisimoak saritzen ditu, bandera espainol batez)... Batez ere, berrikuntza teologiko guztiz modernu bat ikusten da lurrotan, Kontzilioa baino dextente lehenago. Holakoxea:

Diciendo España, digo la Iglesia... Amar a España es amar lo que hay de más grande y más sublime. Menospreciarla es

menospreciar lo que hay de más sagrado... Amad a España, y amaréis a Dios»¹.

Espainia eta Euskal Herria diferentziatzeko grina, haik eta gu erlijioan ere diferente gabela erakutsiz, Mirandek eraman du, esan bezala, azken ondorioetaraino. Katolizismo espainola eta euskal kristautasuna, euskaldunen Jainkoa eta espainolen Jainkoa, gerran ari baziren, euskal fede/espainol fede kontrastea, Mirandek espainol kristautasun/euskal paganismo formulara eraman du. Baina honez gero esan genezake: Mirandek, egon lehendik zegoen oposizioaren (espainol katolizismo/euskal kristautasun) harian ziharduen. Abertzale kristauok euskal kristautasunaren jatorragotasuna destakatuko dute; Mirandek paganismoa joko du jatorragotzat. Tradizioan egonez hautsi du Mirandek tradizioa.

«Victoria Católica España»

Honela hasten zen Pio XII.gnaren telegrama Francori: «Levantando nuestro corazón al Señor agradecemos sinceramente con V E deseada victoria Católica España...» Grazia egingo zion Salbatoreri!... Baina apenas grazia haundiagorik egin behar zion Pio XII horrexen mezuak Espainiari: «Con inmenso gozo», etab. «Los designios de la Providencia, amadísimos hijos, se han vuelto a manifestar, una vez más, sobre la heroica España, la nación elegida por Dios como principal instrumento de evangelización del nuevo mundo y como baluarte inexpugnable de la fe católica que acaba de dar a los prosélitos del ateísmo materialista y laicista de nuestro siglo, la prueba más excelsa de que, por encima de todo, están los valores de la religión y del espíritu»...

Salbatore Arantzazun bizi zen eta Arantzazun burutu zuen bere euskal historiaren filosofia. Askotan uste da, Arantzazu beti «abertzale» fin egon zela, urterik beltzenetan ere; eta Salbatorek erraza izan zuela, mendi goian eta gogaide artean, esperantzari eustea, bere mundu sinbolikoa sortzea, behean jendea itolarrian zebilen artean.

Salbatorek, hamaika penaren artean sortu zuen bere mundu sinboliko guztia. Salbatorek, ez dago zergatik ukatu, izan zituen giroa eta lagunartea, jokatu zuen bezala jokatzeko. Baina Salbatorek be-

¹ Ik. *Boletín Eclesiástico de Vitoria*, 1 de diciembre de 1937, or. 454. Ez gara puntu honetan gehiago luzatuko. Ik. X. d'Iramuno, *El clero vasco*, 1946; J. de Iturralde, *El Catolicismo y la Cruzada de Franco*, urte gabe; M. Ayerra, *No me avergoncé del Evangelio*, 1958; M. E. Lipúzcoa, *La Iglesia como problema en el País Vasco*, 1973.

zala pentsatzen zutenak, Arantzazun ere, nahiko larri zebiltzan orduantxe. «Etxe gudua» konbentu barruetaraino sartu zen. Eta konbentu barruko etxe guduan fronteak herstu-herstuak dira. Kanpoan garaitu zuenak, ordea, konbentu barruetan ere garaitarazi zuen.

Nolako izpiritua nagusitu zen, jakin nahi duenak, ez dauka orduko *Aránzazu* aldizkaria errepasatu besterik: adbz. 1939 ko martxo-apiriletako zenbakia, 204.gna (eta ez dut sartu nahi beste Ordena erlijisioen aldizkarietan). Hango poesiak eta himnoak, *Arriba España! Viva Cristo Rey!* eta *Viva Franco!*-ak... Oraindik bizi dira, holakoak idatzi zituzten San Frantziskoren semeak. Irakasle eta nagusi zituen Salbatorek.

«Gracias a Dios —idazten du *Aránzazu* horretan «El Abad de Valparaíso» zinatu ohi zuen batek, izen haundiko gizona bera fraile artean—, ha terminado la Cruzada Española que tuviera su audaz y gallardo principio hace tres años, y ha terminado con toda felicidad. Gracias a Dios otra vez. —Como no hay redención sin sangre del corazón y de las venas, tres años de angustias y dolores, tres años de lucha tenaz y sangrienta, ha costado a España su rescate y su vuelta a la propia vida libre. Algo no visto hasta ahora ha sido esta formidable contienda: un choque de ideas y de armas que representaban dos polos opuestos. —Aquí se dieron cita todas las abyecciones y vilezas y perversidades de la tierra a ver si podían arruinar y pisotear cuanto de grande hay, de noble y sagrado, entre los hombres. Aquí se dieron la gran batalla apocalíptica el Bien y el Mal. Aquí ha salido al fin victoriosa la Causa del Bien, y con la Causa del Bien, España, que ha sido el providencial instrumento de la victoria. —Así redimida y victoriosa España, apunta ya sobre ella la luz auroral de su futura grandeza, que luego será sol esplendoroso en su cielo, limpio por siempre de nubes tempestuosas y siniestras. Así sea».

Nos han contado —polemizatzen du Abateak bentzutuarekin— que el locutor de la *Hora Vasca*, en la que fue Radio roja de Barcelona, nos aludió en una ocasión protestando de que esta Revista hubiese dicho que esta guerra era guerra santa. Allá él con su modo de pensar. Para nosotros, y para cualquiera que mire lo ocurrido sin antiparras de color, sin mezquindades mentales y afectivas, la guerra de España, la que ha hecho la España auténtica y tradicional, ha sido guerra santa y santísima. No hacen falta textos y ejemplos para probarlo. Basta que no se eche en olvido la situación política, religiosa y social de España, en los días que precedieron al Movimiento,

para que éste quede plenamente justificado y haya podido llamarse glorioso y santo. Hombres sin Dios extraños, aliados con otros propios semejantes a ellos, trataban de interceptar y desviar a su antojo la vida de España. Gentes bárbaras y brutales, enemigas de su propia paz y de la paz del mundo entero, se habían lanzado con una violencia increíble contra los ciudadanos pacíficos que querían vivir vida humana y española, y ejercer sus derechos de ser cristianos, de ser libres, de gobernarse a sí mismos. Mataban, robaban, quemaban, atropellaban sin ley: era el plan, era el sistema. Y lo que tenían tramado, desde las esferas de Gobierno, para dentro de breves días, contra todo lo que algo valía en España, era algo infernal. Que no se eche en olvido aquello. Si aquello era vivir, fuéramos a habitar las selvas o los arenales de Africa, porque allí siquiera seríamos dueños de nuestra vida y libertad...

Bien se llamó Cruzada esta heroica empresa, porque si así se llamaron aquellas expediciones militares de Europa para libertar del dominio musulmán al sepulcro del Redentor en la Edad Media, ésta de ahora, la nuestra, ha tenido por fin libertar del dominio judío-masónico-marxista la España de Cristo y reconquistarla para Cristo, arrancar a la España grande y nobilísima de las garras extranjeras y extranjerizantes que la deshonraron, maltrataron y esclavizaron, y aun querían borrarla de su propio suelo... Por lo más sagrado y respetable que hay en la tierra, *pro aris et focis*, como suele decirse, se emprendió y se hizo esta guerra. Y no formularíamos ningún juicio aventurado si dijésemos que Dios la ha amparado y bendecido, y que gracias a su ayuda manifiesta se han conseguido tantas victorias, coronadas por la victoria final. *Eta abar, bai, eta abar.*

Salbatorek Arantzazuko historiaren (ermitagintza, erreketeta...) filosofia bat egin du eta euskal historiaren filosofia bihurtu. Baina Salbatorek, bere irudiak, iruzkinbideak eta sinbolismoak, ez ditu eginda aurkitu bere inguruan, Arantzazun (J. K. Gerraren segimenean ari zela, berak esan badigu ere). Salbatorek *Aránzazu* aldizkari hartan irakur zezakeen mariologian behintzat, Andre Mariaren kontestua «la inmortal Zaragoza» da, «la ciudad de los sitios»; Montserrat bera, Karlos V.gnak Tunezen konkista aurretik bisitatu omen zuena, laguntza eske; Covadonga eta Don Pelayo da; Guadalupe, konkistatzaileen eta Erregeena; El Cid-en eta San Fernandoren Ama Birjina babeslea da; Granadako mezkita atean bere puinalez *Ave Maria* josi duen Pérez de Pulgar da, etab. Mariologia inperial eta

inperialista, hemen, aldareko sakramentua, Jesusen Bihotza, San Inazio —«ideal del caballero cristiano»—, Errusiaren konbersioa ekarri behar zuen Fatima, Santa Teresa eta zeruaren errebelazioak berak, dena Inperioaren serbitzuan dago eta.

Arantzazu:

euskal historiaren eta fede historiaren bateratasuna

Salbatorek Euskaditik aldegin behar izan zuenean, nor-ageritxo espezial bat zeraman, superboa, Atzerri Ministergoak misiolarietara eman, munduan barrena ibiltzeko, izkribu gogoangarri honekin:

Recuerda que dondequiera que estés, ostentas —como religioso y español— una jerarquía espiritual que no tiene par.

Zer denbora Jainkoarenak! Gogora beharra, halare, honez gero ahaztutxoak eta konpreni ezintxoak bihurtu bait zaizkigu. Orduko giroa pittin bat azaldu besterik ez dugu egiten orain, Mitxelena bere lekurtzeko historikoki, hura, kontra bai, baina barrutik besterik ezinean, zein girotan mugitu zen ikus dadin. Katoliko izatea, eta are erlijioso izatea, espainolotasunaren lorea zenuen. Konbentu zokoan ere, eta kontzientzia barrenean bertan, zenbat tortura, abertzale kristauak! Eliz gidaritzan Pio XII.ginak eta Morcilloak, Kardinal Goma eta Lauzuricak —«un hombre que hablará de Dios hablando de España»— besterik ez zen ageri. Euskaldun izatea bera, are espainolago izatea zen, garaiak ziren. Jaun txit Estzelent eta Reberent Zacarias Vizcarra bat, gerra aurretik *Cristiñaubaren jakin bidia* baten egile, euskaraz, gerra ostean *Vasconia Españolisima*-rena, Ekintza Katolikoaren eta *Hispanidad*-earen kanpeoi bortitza beti. Hori zen Eliza, euskal Eliza ere, Eliza beti hierarkia izan bait da, lan egiteko eta sofritzeko eta pagatzeko orduan izan ezik. Fraile abertzaleak, koruan, salmoak errezatzen ditu eta, salmoetan, bere bihotz samina, bere herriaren Babilonia, ikusten du. Salbatorek —*super flumina Babylonis, cum recordaremur Sion*: zenbat frailek ezkutatu ditu malkoak salmuok koruan kantatzean?— Euskal Herriaren Arantzazuko salmudia konposatuko du.

Mitxelenaren poesian zenbat brebiari dagoen —antifona, salmu, himno, matuti, bezpera; koru kanbio, solo...— ikusi behar. Orixe-ren poesiak meditazio metodo ignazianotik irten duen bezala, Salbatorerenak brebiaririk irten du. Mitxelenaren poesia eta brebiaria: merezi luke azterketa bat. Poesia honen forma iturburuak, lehen-lehenengo, brebiarian bait daude. Eta koruan, liturgian, heldu dela

Salbatore, ematen du, euskal historiaren bere konzepziora ere, Israelen historia errezatuz.

Ideologiak, nolakoak izan kondizioak, zein bide bihurrietatik desarroilatzen diren, inoiz ikertu duenak, erraz konprenituko du, aber-tzaletasunak, gerra galdu eta gero, errezoan jarraitu duela erresistentzia ideologikoa, esaten badugu. Egoera honetan inportante bihurtzen da —geroixeago ridikulo dirudiena—, San Inazio santu euskaldun ala kapitain espainol zen¹ (orain, Nafarroaren arazoarekin, Frantzes Xabierren euskalduntasuna edo nafartasuna bezala). Sinboloez berez jabetu nahi du espainolismoak: h.d., konzientzia barrenak berak inbaditu nahi ditu, lur gaina menderatzeaz ez konforme. Bere pentsa eta sentieren zentsura gabeko beste espresio biderik ez duen herria, espresio sinbolikuek hartmatzen da. Errezoan babesten da. Errezatzea, izan ere, eta zenbait lekutan batez ere —Arantzazu—, edo egun jakinetan —Bazkoa, Aberri Egun— borroka ideologiko bihurtzen da, ezinaren ezinez afusilatu batengatik isilean negar egitea bezalaxe, edo poesia bat egitea, edo mendian kanta klandestino bat kantatzea, lagunartean, edo festa sala batetan «Carreroren dantza» dantzatzea bezalaxe... Borroka ideologikoa, harma bitxienak, zoroenak igoal, asmatzen ditu.

Mitxelenaren euskal histori konzepzioa, sinbolismoz kargatua, borroka ideologiko horretan kokatzen da. Eta Arantzazuk («lau aldiz erre eliza/, lau aldiz jaso ostera»); eta Euskadik: «eun urte laburretan galdu lau gudate»), Arantzazuk paradigma egokiena eskaini dio Salbatoreri, karlistadetan eta gero 36-ean kiskali den euskal herriaren histori filosofia bilbatzeko (euskal eliz erreketeta, euskal elizgintza: eginkizun sakratu bat bilakatzen da Euskadiren alde lana)¹. Ilunpetan gabiltzala, Jentil Aro beltz batetan? Salbatorek Euskal Herriari «badator zure Garaia!» kantatzen dio («Gaiztozuloko agintetik / guztiok libra gaitetzen»): gaiztozulo moral batetatik gaiztozulo politiko batetara traspasoa beti sujeriturik dagoela. Lehorte gogor batetan bizi garela? Aurki da euri («Euskalerriko soro ta animak / bizitz berrira xuxpertzen»): oraingo agoniaren ondoren bizitza berria aginduz. Jaun Konte zital batek —«erbeste-otso maltzurra», esan bezala— geure bidea egitea galerazten digula? Salbatorek ez du ahaztuko esatea, Konte Gebarakoak, maltzurki, arrazoi piadosoak ematen zituela, erromesak enganatzeko: Gotzaiek eta Go-

¹ Ik. in *Arantzazu, euskal poema*, 1949, or. 42-43 eta, batez ere, *Gau bijilian Iñigo* kanta osoa II.gn Aldian; in *Ama Semeak*, VII.gn kapitulua.

¹ In *Erri bat Guruzbidean* (ik. IX.gn Egonaldia) honela bariatuko den ideoa: «Jesusenak iru erori-jeikiak. Karlistetan iru guk ere jausiak».

bernariak, zangopean Euskal Herria zukutzeko, beti mila arrazoi dibino ematen duten moduan.

*Erromesentzat geiegi zala
arañoko ibillia:
jauntxokeria orraztutzeko
asmatu zun aitzakia.
Oñatiarrak igerri zuten
bein-berriz azpikeria.
Baita beñola, zer egin dute?
asma bertan Kofradia.*

*Kofraditarren asmoa, aitzitik:
urra bidea arañoxe.
Kondeagandik libra-bidean
saia erriaren alde.
Ez atsedenic, Aloña bertan
Eliza bat jaso arte.
Baldin arloa zertutzen bazan,
erria izango zan jabe!*

Giroak eta gainezka bete-betetzen zuen minak, sinbolismo nabar-nabarmeneko Salbatoreren poema erlijiosoan panfleto politiko bat bihurtzeko muga-mugan ipini dute.

Bi liburuak, *Euskal poema* eta *Ama Semeak*, biak manifestu politiko bat, anaiak dira, «ua kantari eta au kontari». Bigarren honetan, Salbatorrek, oso-osorik azaldu digu bere burutapideon oinarriko eitea:

Arantzazu ta Euskalerrri, biak bat-batera erori ziran ta aldare berean odolustu. Bear zuten bezelaxe, bizi izan ziran bezelaxe: biak batera. Orretzek damakio poz pixka bat kondairagileari, poz pixka ta arrotasun ez gutxi.

Alkarri esku emanda, bai, bizi izan ziran biak, ezagutu ziranetik. Arantzazu jaio zanean, orduntxe izan zun Euskalerrriak ere bere mundu zabalerako egunsentia. Arantzazuko eguzkia gorenetik ibilli zanean, iru mende aietantxe iraun zun euskal garaipenaren eguerdiak. Eta illunabarrak ere biak besarka batean arrapatu zitun, emeretziko mendean. Bata «beltzak» erre-ta, liberalak su emanda alegia, ondakinetan gelditu zan, ez Imajina eta ez eze. Bestea ere, arerio berak Bergaran salduta, aietxen zankapean malgotu zan, lege-zarrak eta jabetasuna galdu-rik, goseak eta il-zori.

Urkatzera eramandako bi senar-emazte errugabeko bai'li-ran, borrero berak ondatu zitun biak. Beti alkarrekin laguntasunezko uztarri goxo-sendoan bizi izanak, azken orduko oparia ere alaxe egin zuten: biak aldi ta aldare berean, etsai beraren mendean, asmo ta maitasun berdiñakin, laztan estuan bata-bes-teen negarra txukatuz¹.

«Arantzazu degu, beraz, Euskal-kalbario. Emen merezi izan zun Euskalerrriak, Ama-Semien Nekaldiarekin bat eginaz, Andre Maria-ren Seme izatea, Erdi-Aroko Andra-Mari bere *Ama Birjina* biurtzea, billakatzea¹. Ama Birjinaren Seme eta Jesusen anai egin zan Euskalerrri fedetsua Arantzazuko Kalbario mendian».

Gerratik irten berritan —Salbatorek, karlistada bat gehiago bezala kontsideratu du 36-koa— karlistadei begiratzen die arretaz Mitxelenak. Bere garaiaz zuzenki esaten ausartzen ez dena ere, karlistaden aitzakiaz esango du (*Bizi Nai!*). Karlistaden kapitulu azkenean azaldu digu bere mina eta kezka nagusia. Erretako Arantzazun, torrepunta bakarrik geratu da zutik. Ilunabarrean, kanpai gabeko torrepunta zaharra, zotinka ari da:

Bai aundia, ildako Arantzazu. Nolakoxea, piztuko dana?
Bai aundia, ildako Euskalerrri. Nolakoxea berpiztuko ote zaigu?

Historia: borroka bat Miranderen eragintza Salbatoreren gainean

Poemak, Euskal Herriak ez duela oraindik bere moralala galdu,

¹ Ik. *Ama Semeak Arantzazuko Kondairan*, 1951, 182-3. Arantzazuko historia eta Euskal Herriaren historia bateratzeko ideia, bere aurretik aurkitu du Salbatorek, hemen berak azaltzen digunez (ik. oin-oharra): «Ona emen, Juan Karlos Gerrak garai berari buruz 1881-an idatzitako itzak: 'Arantzazu! Arantzazu! Zu zera Euskal Erriaren iduri bizia. Suak eta garrak beltzitutako orma tantaiaik, euren sustraiak lurraren erraietan dituztela jasotzen dira estalpe gabe, galtzapenatuak, Ama Birjinaren inguruan. Ezin izan lezake jauregi egokia-gorik Euskal Erriko Erreginak, zeren euskal legeak, orma oiek bezin tantaiaik, eurak bezela lurraren erraietan sustrai artzen dutenak, dauden eurak bezela galtzapenatuak, Gaztelako su madarikatu batek erre dituzala'. (Ama Birjina Arantzazukoaren kondaira, On Juan Karlos Gerrakoak iskribatua). 33 orrialdean».

¹ Salbatorek, euskal herriaren eta euskal fedearen historia, Spenglerren modura (Mirande genuen beste Spenglerzale bat), kultur ziklo baten hiru aldietan banatu dizu: *Jentil Aro* edo sorrera, ilunpetan, eta gorada (XV.gn mendera arte); hedakundea eta gailurra (hurrengo hiru mendeak), *Urre Aro* gisa; *gainbehera* (karlistadak eta Arantzazuko erreketak ezker). Eta hirurok, Mari, Andra Mari eta Maria Birjina (Ama), irudiekien seinalatzen dira. Ik., adbz., *Euskal poema*, 1949, 22. Gainbehera aldian, Ama Birjina hori Dolorosa bilakatuko da. Begira nola Orixeren Ama Birjina ere Ama Doloretakoa den.

erakusten digu. Poemako Euskal Herria —hots, herri honen dohainak eta eginkizunak— erromesek, Errodrigotxok, Inigo Loiolakok, etab., ongi errepresentaturik dago. Ez da barrutik hautsitako herri tragiko bat. Gurutzebideetan bertan, Euskal Herria, egon egoera tragiko batetan dagoena, herri heroiko da batez ere. Herri tragiko bat *Unamuno ta Abendats*-en daukagu.

Eboluzio hau erraz egiazta liteke Salbatoreren obran, nik uste. Hemen ez gara horretan saiatuko. Beraz, *Aberriak min dit*-en esate baterako, «teologia politiko» abertzale tradizional simple bat plasmatu digu, «euskaldun fededun» tankera jatorrean, beste Autore askotatik ere ezagutzen duguna, orain, seinalatze llabur honekin, ez bait diogu gehiago jaramon egingo. Pentsabide zaharrak ez dira bat-batean eliminatu¹. Pentsabide zaharretatik sortu dira berriak.

Zergatik iruditzen zaigu, Mitxelena artxikristauarenak eta Mirande antikristauarenak, funtsean jarrera berdintsuak direla, frantziskotarra, biolentziari buruz eta, herabe eta lotsa izan arren eta Mirandek, alderantziz, «Ai genitza bildur eta ahalge zozoak betiko utz gure ona eta onura non dauden ikus dezaguntzat» dioen artean? Batik-bat, sentiera desesperatu berdina dituztelako, desesperazioaren biolentziak eta esperantzaz. Baina, pentsamentuaren aldetik ere: funtsean bienak direlako historiaren borroka konzepzio berdintsuak. Pentsabideon sustrai bila jotzen badugu ere, laster aurkitzen ditugu iturburu komunak: Miranderen histori filosofia nierzscheano-spenglerianoa eta Salbatoreren histori teologia unamunista-kierkegardianoa, XIX.gn mendeko iturri berbategen jarion ditu.

Salbatorek historia beti konzebitu du drama bezala; euskal historiaren kasuan, kalbario bezala:

A Euskalherri gaixoa! —irakurtzen dugu *Aberriak min dit*-en: ire edesti osoa neke bide bat duk zinez, pagano ta jentillen errekondo lañotsutik abiatuz, mendeak zear, kristautasun be-

¹ Jon San Martin «Otsalar»-ek, adb., Autore berrietakoa izanik, responsabilitatean oin hartzen zuen abertzaletasun sentiera heroiko-tragiko huraxe ageri digu beti ere *Bide mingotzak* 1956-ko poesian: «naiz zu uztarpetu / etzaitut lazotu /; zure menpeko, beti natzaizu / gertu. - Erbal eratzi bage / emango nuke / milla aldiz ene bizia zure gaizka (salbazio) / truke. - Zu iltzen ikusi / zertarako bizi? / Aberri bageko azkatasunak ez baitu / merezi. - Illeta zori?... / nik ezin etzi /. Il bear baduzu, ni zurekin / suntzi». ETA marxistako Etxebarrietaganaino eta geroago «Aberria ala hil»-eraino doan soka. Bestela ere, pesimismo ilunbe ezagun hura berbera («ene gaztaro mingotza / bene-benetan beltza / aterpe bage, noiz atertuko / ekaitza»), etab., «garra ta negarra». Ik. I. Sarasola, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia* (1945-1964), 1973, 98-99.

teenaren Eros-Mendi argitsura igo ta igo datorren neke bide eredugarria.

Baina historia, bereberki askatasunaren historia, propiokiago borroka bezala ulertzera, *Unamuno ta Abendats*-en azken kapituluetan ageri digun moduan, Miranderen eragintzaz ailegatu dela, ematen du. Diferentzia funtsezkoena, halare, beti hor geratzen da: Miranderen ustez, indarrak askatuko gaitu; Salbatorerentzat, egiak askatuko gaitu. Salbatoreren konstantea hor dago. Harako Joanena gogoraten du Salbatorek, - belaunaldi honek hainbeste aldiz aipatua: Egiak askatuko omen gaituela.

Baina egia, orain, borroka da. Egiaren borroka, egia esatea «entzun nai eztinginari, belarri ta buruz gor dagonari, gorrarena egiten diguten guzieri, esan eta berresan bear» diegun gure mina, borroka izugarri baten antzera presentatzen digu orain Salbatorek.

Ez ba bildurrik egi sumina noiznai eta nonai aldarrikatzeari. *Veritas liberabit vos*. Ostera, ezin uxatuko ditugu gure artetik merkatariak eta gurutzean jostea nai diguten Judas pa emalleak.

Berri, hau dena ez da guztiz berririk Salbatore baitan. Baina eboluziorik badago, hariari jarraituz, eten gabe alegia, *Arantzazu euskal poema*-ko «Pakea» kantatik *Unamuno ta Abendats*-eko «Sumin santu»-ra: ik. biak bata bestearen ondoren. Honez gero, bere kezkek ditu Salbatorek. Kristautasun ez dela berdin kristautasun, akklaratu beharrean sentitzen da, Unamunori ahoan hitza ezarriz:

Etzazutela nastu kristautasuna ta gizajokeria. Oso bi dira ta bata naiz bestea. Gizajokeriak ondatu gindun karlistetako gerrateetan, ta orobat azken Bizkai gudatean, neronek [alegia, Unamunok] aurretik gaztiatu nizutenez. Liberalon ezpaloitik begiratzuz konturatzen da bat, gizajokeri orrek zenbat ondamendi dakarkigun, nola egoak jaten dizkion gure gerezko joranari, aundi goseari, eroari, idealismuari, zernaitan zirt edo zart egin bearrari...

Gizajokeri ori astintzen eztugun bitartean, alperrik izango dira gure negar antziak, ez gera nik nai nuken bezela ezer «ikaragarririk» egitera elduko, ekintza ederrenak erdoituko dizkigu eta ez gera sekula mende t'erdi ontako giltzapetik jareingo.

Eta beti kristau leialtasuna predikatu duenak, ez du aski honez gero kristautasun konzeptu soil horretaz. Kristautasun eta kristautasun bereziko dizkigu, kristauki bai, baina gogor, jokatu behar omen bait dugu:

Gaurko Euskal Miñari —esan arazten dio Unamunori— alare aje bat nabari ziot, Abendats. «Pasivua» duk, pasibuegia, ta ez nik nai nuken bezin erasokorra, ortzakalaria. Bildotxegia jotzen diat otzanez; olloegi, kollonez; untxi edo, eramapenez. Kristau eramapenak orrela bear dula? Ez, jaunak, ez. Kristo ez uan orrela parisaitarrei ordañak eta bost arpegitatzean. Ezta Inigo ere, Alkalako Figuroatarrei ortzak erakustean.

Edota zuek, Jesukristo baino otzanago, Loiola baino santuago, zeratela uste ote dezute? Kristau eramapenak orrela bear dula diñoten oiei galdetu ea eurena ere orrela ote dan, ea eurak ere orrela nai diran, ea zertarako nai gaituzten orren asto nozitu ixil, eurek gu gogorako makilkatzen jarraitzeko baizik.

Txillardegiren kristautasun ulerpenarekin aldera daiteke guzti hau. Baina baita Salbatoreren beraren lehenagokoarekin ere. *Aberriak min dit*-en, sofrimentu isiletik eta gurutzetik espero da Euskal Herriaren salbazioa, - «Euskalherri gurgarria, katolikoetan katolikoen eta aitzindari izana degun Erri bakar, Israel donetsia». Orduan, konfiantzaz beterik, *in hoc signo vinces* hotsegiten da eta *nos gloriari oportet in cruce Domini nostri Jesu Christi*, aitortzen da fede beroberoz, *in quo est salus, vita et resurrectio nostra...*

1940-1955-eko J.E.L. poesian aipatzen da lehenengo aldiz Santa Kruz apaiza, Euskal Herriaren espilu edo eredu bezala. Baina hemen azaltzen zaiguna, Santa Kruz persegitu beti ihesi dabilen hura da, ez gerrilari gogor ausarta: «nunai iraitzia», «iltzen doakun enda zarraren» espilu antzera: «nunaiko bai ta inungo ez» den abendats hori, «munduz munduko judu landerra / baino re noa iges ta iges», «kaleak aiek», «bibotedunen itzuri», «izkutuka ta urduri» erreprezentatzen du Santa Kruz honek. Halaxe ikusten du Euskal Herria:

*Santa Kutz dama,
izkuta agertuz, an-emen.
Atzo Otxandion, gaur Aian, biar,
biar Jainkoak esanen.*

*Etxahun berri,
jo Erromara erromes;
ate ertsietan uste ez-eneko
«Vae victis!»... barkapen ordez.*

*Alare, munka
antzi dunaren itzala.
Gladiatzaillek erio aurrez
ala Kaiser-en aztala.*

Beraz, Santa Kruzek, Etxahunek, Euskal Herriaren herioa erre-presentatzen dute. *Unamuno ta Abendats*-en, alderantziz errebeldia-iren eta «aserrearen» errepresentazio bezala berraurkituko ditugu aipa-tuta horietxek berberak. Prototipoak gorde egin dira, baina signi-fikazioa zeharo aldatu egin dute.

Ikusten zen etortzen, kanbio hori. Lehendik ere, umiltasuna eta eroapena bera predikatzen, agresibo ageri da Salbatore. Gurutzebi-deetan, Euskal Herria biktima da: baina Salbatorek ez al digu aur-keztu biktima izateko modu biolento bat? Gero, Santa Kruz dela eta, biolentzia ezin onartuz bezala agertuko zaigu (agian «geiegikeria» duzu hori). Baina kontra ere ez dagoela, ematen du. *Unamuno ta Abendats*-en, hasieratik azkeneraino, azpi-azpian biolentziaren pro-blema planteatzen da; Espainia eta Euskadiren problema; Euskal Herriaren borroka. Benetan sinpleegi da, liburu honetan euskarari buruzko Unamunoren eritziak aztertzen direla, esatea. Tituluak ere Unamuno ta *Abendats* dio, ez Unamuno ta *Euskara*. Azkenean, Eus-kal Herriaren prozesu global batetan ikusten badugu behintzat, *Una-muno ta Abendats*-en, biolentziaren alderago ikusten dugu Salbatore, kontra baino. Jo du iadanik euskal kristautasunak bidagurutzea. Era-baki beharra dauka... Eta ez da erabaki. Salbatoreren kinka berean ikusiko bait dugu gerora guztian euskal eliza: biolentziari oneritzi nahi ezta, gaitzeritzi ere ezinez. Biolentziari higuin kristau haundi batez eta biolentziara jo dutenentzat sinpatia humano are haundia-goz... Garibayren arima. Euskal kristautasuna, alternatibarik asmatu ezinda, hor galdu da. Ez du gehiago gidaritzarik hartuko euskal bi-zitza publikoan: biderik ematen ez duen bide bat gertatu da.

Denborak berak, eta denborak ikusarazi dionak, eragin diote Sal-batoreri eboluzio hau. Radikalpen hau. Baina, justuago, Miranderen eragina ere nabari da, nik uste. Adbz., axal-axaletik puntu batzuk aipatzeko: 1. kristautasunak, otso ginanok, bildots egin gaituela, esan-go du Mirandek; eta Salbatorek «bildotxegi» jotzen du iadanik Aben-dats. 2. Mirandek, demokratismoa eta bakezaletasuna arrotzak di-rela, esango du: espainolek eta frantzesek, eta batez ere Eliza ka-tolikoak, irakatsi dizkigutenak, errazago zapaltzeko; eta Salbatorek, «gexamexa ori ezpaitugu gerezkoa, kanpotarrek beren onerako itsa-tsia baizik». Ikusi dugu goraxeagoko testuan ere, kristau eroapenez eta otzantasunaz: «...ea zertarako nai gaituzten orren asto nozitu

ixil, eurek gu gogorako makilkatzen jarraitzeko baizik». 3. Mirandek, euskaldunen jatorrizko gogo basatia goratu du, kristautasuna, demokratismoa eta sozialismoa, «eguzkialdetar» ahuleria bezala arbuiatuz; oso Miranderen antzera, Salbatore ere «gure gerezko joran, aundi gose, ero, idealismo, zernaitan zirt edo zart egin bear»-az mintzo da, izpiritu «kantauiarraz». Beraz, kristautasunari buruz ere, kristau sentitzen bait da bera, argitasunok egin beharrean aurkitu da: «Euskal Miñak samiña aina sumiña bear du, bada, bai jaunak bai, sumiña, sakerra, erasogillea, gallena, EZ INDUTARRENA, BAIZIK KANTAUARIARRA» (nire azpim.)...¹ Mirandek, berak uste ez bazuen ere, euskaldun asko bildu zuen bere usteetara: hori ere aztertzeke dago, alegia, Miranderen eragina Salbatore, Krutwig, Txillardegí, Aresti, etab. baitan, Euskadi berriaren hastapenataraino. Salbatoreri dagokiola, behintzat, nire ustez, Mirande asko ari da Salbatoreren ahotik:

Euskal Miñak samiña aña sumiña bear du, bada, bai jaunak bai, sumiña, sakerra, erasogillea, gallena, ez indutarrena, baizik kantauiarra, zemaí ta orro ta bisuts dariona, eztut esango apenkorra ere baietz, baino bai beintzat «zeru ta lur ta amiljan bearrekoa».

Gorantzi, gero: urkabarraren otzanki burua makurtzeak adoretzen du borreroa; jendearen kollonak, soraioak, ixillak, eramanpenak, arrotzen despota, kementzen etsai koldarrena. Txakur bildurtienak ere igesi doanari ortzaka dago.

Eztuzute ikusten zuen otzanak, zuen zipo ezak, zuen kotaritzeak, indarragotzen dula etsaia eta jauntxoagotzen? Zer ari zerate or, or ta emen, bazkari tarte bakoitzean, zeon artean txutxuputxuka, beti zeon artean, atso mutxurdin iduri, maxia ta marmarra, zer ari, plazara irten gabe, zuen arteko negar espak eta protestakizunak etsaiari arpegira ta kalera botatzen ausartu gabe?

¹ Noizpait aparte ikertu beharra dago, bolada gurutzeal honetan —esistentzialismoarena, bestalde— «hinduismoaren (hobeto, budismoaren) problemak izan duen papera. Harek eraginik, edo kutsaturik, Mirande, Krutwig, etab., ageri zaizkigu, Txillardegí batez ere. H.d., Autore berri inportanteenak. Ik., adbz., Txillardegiren garai hartako idazlanak, bereziki *Peru Leartzako* eta *Huntaz eta Hartaz*-en, aipaturiko «Kristautasuna eta...»-z beste, «Azken heriotza dala-ta». Krutwigen poesia batzuk ikus daitezke in I. Sarasola, *Gerraondoko euskal poesiaren antologia* (1945-1964), 1973, or. 26, 49, 57, 58, 59. Salbatorrek bezala, Luis Mitxelenak budismo edo asiatismo haizeon kontra polemizatuko du: ik. «Txillardegí. Peru Leartzako», in *Idazlan Hautatuak*, 1972, 338-340.

Irten plazara, joan tertulitara, ta esan eta zabaldu, zabaldu idatziz eta solasez, dan bezela dala, egiten zaizkizuten salkeri, pardelkeri, purtzilkeri ta kerien kerri sinistezin alak. Artaraxe baizik ez dituzute beingoz uxatuko labe zamorroak, ez kukilduko arerioak.

Salbatoreren «teologia politikoa» eta euskal teologia baten problema

Azken ohar labur batzuk bakarrik, Salbatore egungo problematika honetan txertatzeko.

Teologia Jaungoikoaren *logia* bada, euskal teologia bat, Jaungoikoaz hitzegiteko euskaldunari dagokion gisa besterik ezin izan daiteke: nola hitz egin lezake euskaldunak, bere esperentziatik, erreallismoz, Jaungoikoaz? Eta, guk uste dugunez behintzat, Jaungoikoaz hitzegitea, gizonak bere buruaz hitzegitea da beti: tranzendentziak ez du kontenidorik, edukinik, inmanentziatik baino; tranzendentziak ez dauka gizonak hitzegiterik, bere gizatasunetik baino. Zer Jaungoiko da, euskaldunak bere erreallitatean atzeman —edo «asma», edo igarri— lezakeen hori? Erreallitatea, noski, ez da inoiz, Jaungoiko tipo bat, beste edozein eliminatuz, ebidentziak erakusteko adina uniboko. Euskaldunaren erreallitatean ere Jaungoikoa —Absolutua— bururatzeko modu bat baino gehiago sortzen da.

Gogora dezagun, zer gabiltzan: Rikardo Arregiren ondotik, tranzentalismo joera somatzen da gure artean. Zergatik? Garai bat, kultur molde batzuk (ohitura, tradizio, jaiera, debozio forma), Jainkoarekin identifikatu zirela, uste zelako. Jainkoa —esan zen orduan— besterik da. Hori zen protestaren arrazoiak: «Jainkoa garai jakin batean osatu den kultura bateko elementu bat gehiago bihurtu delako» (Joseba Arregi)¹.

Protesta hori radikalduz, uste dut, gehiena eta ausarkiena, Eusebio Osa ahalegindu zela, ikuspideok praksian aplikatzen¹. Erljio irakaskuntzaren arazoa ikastoletan planteatu zenean, hona hemen E. Osak zer idazten zuen:

¹ Joseba Arregiren ondoko lanok ikus daitezke gai honen inguruan: «Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu», in Rikardo Arregi, JAKIN 1971, 43-53; Karl Barth, Rudolf Bultmann, Paul Tillich, in Erljioa Hauzipean, JAKIN 1971, 21-74; Tillich dela-ta, in P. Tillich, Fedearen Dinamika, JAKIN 1972, 219-232.

¹ Besteak beste, ik. E. Osaren lanok: Bonhoefferen erlijiorik gabeko kristautasuna, in Erljioa Hauzipean, JAKIN 1971, 85-119; Ikastola eta Erljioa, in Gure Ikastola, JAKIN 1972, 185-201.

Erljioa espreski eta dotrina mailan Ikastolan sartu nahi dutenak oraindik ere *euskaldun fededun* eskema horrekin bizi direla uste dut. Fedea euskaldun gizartearen euskarri eta justifikatzaile bezala ikusten dute. Horrela, Jainkoa Euskal Herriko sokari loturik gelditzen da. Ondo domestikatua, guk erai-ki nahi dugun euskal etxearen oinarri.

Euskal kulturaren baitan derriorrezko elementu bat bilakatu da. Horixe da, hain zuzen ere, deisten jainkoa, eta jentilen jainkoa eta euskaltzaleen jainkoa, derriortua, kulturatua. Hitz batez, Euskal-kultura-jainkoa, sasi jainkoa, eta ez Kristo, ez Bibliako Jainko librea eta libratzailea.

Askotan entzun izan dut: «haurrari kultura nahi eta nahi ez eman behar diogun bezala, fedea ere nahi eta nahi ez eman behar diogu».

Horrela pentsatzen dutenek kultura eta fedea maila berdinean ipintzen dituzte, *beharrezkoaren mailan*. Eta hortxe sortzen da okerbidea. Kultura beharrezkoa du gizonak (...), kulturak pertsonatzen bait du gizona. Baina ez fedea, fedea ez dezakegu derriorraren mailan ipin. Fedea derriorraren mailan ipintzean, honen izatea itotzen dugu. Fedea giza esturturen barnean beharrezko bezala sartzea fedeari bi tiro ematea da. Horrela bere debaldetasuna, bere graziatasuna, dohaintasuna galduko luke. Eta fedearen muina debaldetasun hori delarik, inoiz ere ezin dugu kulturaren mailan ezarri.

Horregatik, fedearen eta kulturaren arteko nahasketarik eta identifikaziorik gerta ez dadin, oso komenigarri ikusten dut bi gauzok ongi berezte eta ikasbide oso berezia ematea.

Argi dezadan apuntetxuon zertarakoa: orain ez gara ari eboluzio baten azterketa zehatzean, ezta aipatzen ditugun Autoreon azalpen justua ematen ere, baina erreazio bat seinalatzen soil, Rikardo zenarekin hasi eta gero zabaldu zena.

Ohartaraz dezagun, oraindik: horien ateraldi askok, bakan harturik, Txillardegiren posizioan daudela, pentsaraz balezake ere, Autore guztiok kristauak dira eta kristautasunaren barrutik ari dira. Hots, kristautasunak badaukala esateko zerbaite, uste dute, munduan. Ezta ere, ez dira, mistizismo batetan anparatzen direnetakoak, politikan eta «zikintzeko» beldurrez: ez dira ari mundutik aldegin nahita, buruz behera eta radikalki munduan murgildu nahita baino (Barth maiz aipatuz, batzuek ez bait dute gure artean haren erdi bata besterik hartu nahi). «Tranzendentalismo» hau ez da inolaz ere mun-

duaren ukaziotzat hartu behar. Ukoa eman, munduaren eta Jainkoaren identifikazioari ematen zaio.

Beraz, ondo begiratzen badugu, hasita zegoenaren jarraipena da, Autoreok bortizki indartu duten erreazioa: gerra garaian hasitakoa, guruztariei buruz-buru, Autoreok ordea euskal teologiaren beraren eta euskal tradizioaren kritikatarra bihurtua.

Baina zer gertatzen da? Kultura eta fede identifikazioaren kontra borrokatuz, dikotomia estrematzeko arrisku handia dago —tententzialki bederen— fedea kulturarekin, hots, historiarekin, ikuski-zunik gabeko eremu gora batetan jasoaz eta hertsiaz (fedearen historiko izateak hemen ez du sentidu askorik); historia, giza arazoak, behean, fedearekin zerikusirik batere gabe konzebituz.

Alegia, printzipialki behinik-behin, kristauarentzat garbi daude bi estremoak: Jainkoa ez dagoela munduarekin identifikatzerik, historiak badaukala Jainkoarekin zerikusirik. Zeruaren eta lurraren arteko tensioa. «Tensioa sortzen duten bi alderdietatik bat ukatzea erraz da, - ikusten zuen E. Osak aspaldi. Tensioa ez dugu deuseztu behar, maitatu eta bizi baizik... Mundu honetakotasuna, bada, baina mundu honetakotasun zaila, kalitatezkoa, diziplinatua, bere baitan Kristoren heriotzea eta piztuera dituelarik. Tensiozko ibilia, baietza eta ezetza momentu bereko direlarik»¹. Hor zegok, bada, kokka... Hor banatzen dira izpirituak. Dena dela, badakigu, kristauak, nola edo hala, inkarnazio/gurutze/Bizkunde terminuetan bilatu beharko duela soluzioa.

Joerak, azentua Jainkoagan, hots, fedearen emaileagan, ala gizonagan, hots, fedearen dunagan, ezartzetik sortzen dira. Joera bion giltza-konzeptuak zeintzu diren, begiratzen badugu, batena «grazia» dela, ikusten dugu, bestearena «responsabilitatearen *bat*-tasuna» (responsabilitate *bat* dago munduan fededunarentzat eta gizakiarentzat, ez bi: hori esan nahi bait du inkarnazioak, alegia, iadanik ez dagoela batetik Jainkoa eta bestetik gizona, alde banatan, fedea eta arrazoi-mena, etab., baina biok bateginak direla), edo terminu horien eki-balenteak. Tranzendentalistek beti ere laguntza gehiago aurkitzen dute tradizio katoliko mistikoan edo teologo luterano-kalbinistetan. Eta biziki azpimarkatzen digute kristautasunaren arras bestelakotasuna munduko beste erlijio guztien aldean. Kristautasunak, horientzat, ez dauka beste erlijioekin zerikusirik, ez filosofiekin, ez mitoekin (kristautasuna, alegia, ez da «erlijiorik», grazia hutsa da, etab.). Horregatik, giza kulturarekin ere ez da fedea «nahasten» (h.d., «giza obre-

¹ Ik. *Bonhoefferen erlijiorik gabeko kristautasuna*, in *Erljioa Hauzipean*, JAKIN 1971, 112-113.

kin», *sola gratia*). Inkarnazionistek, kristautasunaren orijinaltasunik ukatu gabe, ez dituzte ikaragarri bestelakoak ikusten gainerako erlijioak; fedea ez dute ikusten «giza obra» orotatik arras aparte eta garbi, arrazoimenaren edo kulturaren ikuskizunik batere gabe esate baterako, eta ez gizonaren betiko larriekin herstu-herstu lotu gabe, praksian ezin berezteraino.

Bi joera dira. Garai batetan, euskaldun jatorrik izateko igandero elizara joan beharra zegoela, uste bazen, ondo dago erreazioa, Jaungoikoa eta igandeoroko meza eta euskal jatortasuna identifikatzen zituen sinplekeriaren aurka. Orain —Paulo Agirrebaltzategi behintzat— bide kontrariotik dator bultzada, dirudienez. «Errealitatek hasi behar dugu teologia egiten», idazten du: eta, horra, hemengo errealitate hau, ez da grazia, ez; ez da errebelazioa. «Zein da errealitate hori? Kulturaren bidez gureganatzen dugun errealitatea... Gure ideologiak, gure teoriak, gure tradizioak, gure ohiturek, gure asmoek, itxaropenek, etsipenek, gure ezinak eta ezinaren azalpenek, etab.: guzti horrek osatzen du gure errealitatea»¹. H.d., kultur eta askapen teologia bezala bururatzen du Agirrebaltzategik euskal teologia. Eta «antropozentrikoa da, alde honetatik behintzat, kultur teologia». Hemen, fedea baino lehenago —datu bezala— sinestera dei egiten zaion gizona dago, bere buruarekin, esperentziekin, *bere* errealitatearekin.

Hau dena bizantinismo zaila egingo zaio irakurle ez teologoari. Halare, diferentziok dauzkagu inplikaturik, axalagoko diferentzia askotan, kristautasuna ulertzeko moduan. Teologiek badute gauza kontsolagarri bat: edozein teologiak disparte hutsa dirudiela, beste teologia batetatik begiratzen bazaio (Salbatoreren «nazional-katolizismoak», adbz.); eta teologia guztiek berdinerak diruditela, teologiaren kanpotik begiratzen bazaie (guztiek elementu berdinekin operatzen dutenez gero, konbinaketak desberdin egin arren). Hemen, nolana ere, ez daukagu zergatik polemika horietan sartu, tranzendentalismo ala inkarnazionismo, teo ala antropozentrismo, azken errebelazio definitibu ala fedearen historikotasun, etab. Poeta batekin enplegatzen ari gara.

Poeta honek, ordea, badu zer irakatsi, nik uste, «euskal teologia» batetaz kezkatzen denari; eta guztiz bereziki, euskal teologia, kultur eta askapen teologia izan dadin, enpeinatzen denari. Askapen teologiak ezer gogorazi badigu, da, Jainkoa historian dabilela: Itsaso Gorrian, Jerikoko tronpetetan, basamortuko bide galduetan eta

¹ Ik. *Kultur teologia eta askapen teologia: euskal teologia*, in *Jaunaren Deia* 59/61 (1977) 101-102.

gurutzean hil zuten amaren semea baitan. Historiak errebelatzen du Jainkoa (beti ere segituan erantsi behar dela bigarren partea: Jainkoak errebelatzen du historiaren jainkozko sentidua). Hori, teoria asko gabe, euskal eta kristau zentzu haundiz, Salvatorek egin du. Niretzat harrigarri da Salvatore berrirakurtzea eta, askapen edo kultur teologia modernuen argitara, haren modernutasuna deskubritzea. Haren zentzu historiko haundiagatik, hain zuzen¹. Uste dut, bada, Salvatore, askapen eta kultur teologion argitara guztiz berraztertu beharko genukeela. Eta haren «nazional-katolizismo» omen delako edo hura, argi berritan distiratsu agertuko litzaigukeela.

Salvatorek, hain zuzen, teologia batek euskal teologiarik izan behar lukeen, Agirrebaltzategik aski destakatzen ez duen, gauza bat egin du: euskal historiaren teologia izan. Teologia judegu-kristaua ez da «basamortuan» dabilen herriaren histori teologia edo histori-filosofia jainkozkoa besterik. Euskal teologiak ez ote du izan beharko «gurutzebidean» dabilen herriaren histori teologia? Euskal hizkuntza, edo etnia, edo kultura baino globalkiago, nik uste, «Euskadi Jesukin gurutzua iltzen zijoak» honen *historia*, izan daiteke teologia benetan euskaldun baten ardatza: bere esperentzia kolektibutik Jaungoikoaz hitzegiteko herri honen eta beronen klase zapalduen gisa berezia (kristautasuna klase zapalduen ikuspegitik eginiko «ideologia» izango da beti) *logia*, euskal teologia.

Joxe Azurmendi

¹ Haren zentzu historikoak desarroilrik beharko luke, noski, Salvatore esentzialismo estatiko garai batetatik transizioan dago aro historizista batetara gure artean. Karlidadak eta 36-ko gerra berdintzeak, adbz., ez du ikusmira historikuegia erakusten. Baina poetaren «analisi» beste maila batetan mugitzen dela, esan beharrik ba ote dago?